

Bisitariendako aterpea

Astelehenean, apirilaren 10ean, zabalduko dute Arantzazuko aterpetxea / 34

2017-04-07 EGUBAKOITZA / 724. ZENBAKIA / 17. URTEA
DEBAGOIENEN DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

Debagoienez ere, denok bat euskararen alde

Gauerdian Osintxutik sartu eta bihar, zapatua, Leintz Gatzagatik irtengo da Korrika / 2 eta 'Herriak' saila

Frankismoaren zigorgabetasuna amaitzeko eskatuko dute, 80. urtemugan Elgetan / 31

Herritarren bultzadarekin egingo dio aurre Rezustak domekako finalari, Bilbon / 38

SINADURAK

	IGOR OIARBIDE / 28
	MAIDER AZKARRAGA-URIZAR / 8
	LUKENE IGARTUA / 36
	MARIA IZAGA / 19
	AGURNE BARRUSO / 48

423.000 euroko kalteak eragin zizkion haizeteak Aretxabaletako kiroledegiari / 20

Gazte bat motxilekin aterpetxe berrira sartzeko gertu.

UBANE MADERA

ASTE SANTUKO OPORRALDIA

Hurrengo argitalpenak:
'Puntua': apirilaren 12an.
GOIENA aldizkaria eta 'Puntua': apirilaren 28an.

Ondo izan!

 Euskaraz txiokatzen, 2016an 15.000 inguru
Emakumeen memoria historikoa berreskuratzen

% 30
deskontua
EGUZKITAKO BETAURREKOEN bilduma BERRI GUZTIETAN

www.multioplicasgipuzkoa.com

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRETERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Konsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ez ingo da beste eskaintza batzuetan erabilii.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Debagoiendarrena da orain lekukoa

Korrikari ongiatorria egiteko, eta ondoren, ekitaldi ugari egingo dituzte datozen orduotan eskualdean; tartean, ikastetxeek antolatutako Korrika Txikiak –gaur, barikua, goizean eta arratsaldean–; Korrika nagusia, berriz, gauerdian iritsiko da

Ubane Madera DEBAGOIENA

Osintxutik, Antxintxika Triatloi taldeak lekukoa hartuta sartuko da Korrika Debagoiengan, gaur, egubakoitza, gauerdian, 00:08 inguruan. Bergara eta Antzuola zeharkatu ondoren, 01:38 aldean lagako du Debagoiena, Antzuolatik, herri kilometroa baliatuta; herritarren ekimenez dirua batuta eskuratzen den kilometroari esaten diote herri kilometroa; Antzuolan otarre eder baten zozketa antolatu dute dirua batzeko, eta hiru herri kilometro eskuratu dituzte modu horretan.

Gero, biharamunean atzera ere Debagoiengan izango da euskararen aldeko lasterketa; Oñatitik sartuko da, bertako Udalak lekukoa hartuta Udana gainean 11:27an, eta, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza zeharkatu ondoren, Leintz Ga-

IRUÑEKO FORUEN MONUMENTUAREN ONDOAN IRAKURRIKO DUTE LEKUKOAK DARAMAN MEZUA

tzagatik aterako da, han ere herri kilometroa baliatuta, 14:53an. Angulen eta otarre berezien zozketa bidez eskuratu dituzte hiru kilometro; Antzuolan eta Leintz Gatzagan bakarrik egin dute hori.

Goienaren jarraipena

Goiena Komunikazio Taldeak medio guztien bitartez egingo dio jarraipena.

- **Goiena.eus** Une oro.
- **Goiena telebista** Zapatuan 22:00etan saio berezia emitituko du; eta domekan saio bera ikusteko aukera izango da 13:15ean eta 19:00etan eta martitzenean, 21:00etan.
- **Korrikaren amaiera** Zuzeneko jarraipena egingo zaio amaiera ekitaldiari, 11:45ean hasita, Goiena telebistaren zein *Goiena.eus*-en bitartez.
- **Puntua berezia** Eguaztenean *Puntua* aldizkariaren 19.000 ale banatuko dira, zenbaki berezi modura. 22 orriko jarraipena eskainiko dio *Puntua*-k Korrikari.

Hala, euskara aldarrikatzen 46 kilometro eta ehunka ekintza utziko ditu Korrikak bere zeharkaldian Debagoiengan –ekitaldien informazioa eta lekukoen eramaileena *Herriak* sailean eta orduategia, berriz, 3. orrian–.

12:30ean ongiatorria

Gero, Leintz Gatzagatik aurrera egin eta Dulantzirako –Araba-bidea hartuko du Korrikak, handik Nafarroara sartu eta Korrikak egin behar dituen 2.500 kilometroak Iruñean bukatuko ditu, domeka eguerdirako. Hain justu, 12:30ean egingo zaio ongiatorria lekukoari, Foruen Monumentuaren ondoan izango den ekitaldian. Azken bost kilometroetan Euskaltzaindiko, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko, Ikastolen Elkarteko, Kontseiluko eta, jakina, AEK-ko ordezkariak eramango dute lekukoa.

Hantxe, Foruen Monumentuaren ondoan irakurriko dute lekukoak barrenean daraman mezua, domekara arte sekretupean izango dena. Eta horren ondoren segituko du jaiak Korrikaren bukaera gehien bizi izan dituen hiriburuan; izan ere, umeendako ekitaldi, kontzertu –Gatibu, Altxatu, Sor-kun...–, azoka, tonbola eta beste hainbat ekitaldiz jantziko dute amaiera festa hori; antolatzailen esanetan, "itzela" izango den ekitaldia. Debagoienetik, gutxienez, bi autobus joango dira, dagoeneko beteta daudenak.

Korrikarako aholkuak

Korrikan parte hartzerakoan ezustekorik ez gertatzeko, hainbat gomendio helarazi dituzte Debagoieneko Korrikaren ordezkariak:

- **Ez da lasterketa** Korrika euskararen aldeko ekimena da, eta errespetatu egin behar da bizkor doan partaidea zein poliki doana.
- **Lekukoak** markatzen du jarraitu beharreko erritmoa. Ez jan lekukoa.
- **Lekukoa** eraman behar dutenak 15-20 minutu lehenago bertaratu behar dira.
- **Antolakuntzak** esaten duena bete, une oro.
- **Errespetatu** jendea. Jende askok parte hartzen duenez, kontu izan non zapaltzen den. Nahi den azkena da jendeak min hartzea.
- **Neurtu** norberaren gaitasunak. Eta horren arabera distantzian egin korrika. Gogoan izan gero bueltatu egin beharra dagoela.
- **Oinetako** egokiak jantzi.



**GU ERE
KORRIKAN
EUSKARAREN
ALDE!**





AEK-ko Debagoieneko langileak eskualdeko herritarrek Korrikan parte hartzera gonbidatzen, atzo, eguena, Arrasaten. X.U.

Korrikaren ordutegia

Gauerdian sartu eta arratsaldean irtengo da Korrika Debagoienetik; errenkadan daude adierazita lekuko aldaketak.

- Osintxuko sarrera 00:08.
- Osintxuko plaza 00:15.
- Osintxuko irteera 00:21.
- Mekolalde, zubi berria 00:27.
- Bergarako sarrera 00:33.
- S. Lorentzo: geltokia 00:40.
- Konde Panaderokua 00:46.
- S. Antonio (biribilg.) 00:53.
- Bergarako irteera 00:59.
- Bergara-Antzuola 01:06.
- Antzuolako sarrera 01:12.
- Antzuolako 1. irteera 01:19.
- Bus geltoki zaharra 01:25.
- Errebuelta bat 01:32.
- Errebuelta bi 01:38.
- Oñati, Udana gaina 11:27.
- Errebuelta 1 11:34
- Errebuelta 2 11:40
- Errebuelta 3 11:47
- Aiastuiko bideg. 11:53
- Artxubi baserria. 11:59
- Bidaurretako komentua 12:05.
- Herriko plaza 12:12.
- Otadui zuhaitzia 12:18.
- Ulma Eraikuntza 12:25.
- Fagor Ind. biribilg. 12:31.
- Zubillaga, zubia 12:37.
- Errebuelta 12:43.
- Elorregiko biribilg. 12:50.
- Ekilore sarrera 12:56.
- Roneo sarrera 13:02.
- Musakolako ermita 13:08.
- AEK-ko biribilg. 13:15.
- Arbolapeta 13:21.
- Olandixoko biribilg. 13:24.
- Bus geltokia (Fagor) 13:31.
- Aretxabaleta, biribilg. 13:37
- Bedarreta auzoa 13:43.
- Zariaia taberna 13:50.
- Ederlan parea 13:56.
- Eskoriatz. sarrera 14:02.
- Huhezi parea 14:09.
- Aingeru Guarda 14:15.
- Kuartuena 14:22.
- Trenbideko zubipea 14:28.
- Marulanda 14:35.
- Leintz Gatzaga, sarrera 14:42.
- Aterbe 14:49.
- Gure Ametsa 14:53.



Elkartasuneko kilometroak, Nafarroan

Debagoiendar askok ohitura dute eskualdean edo inguruan Korrika pasatzen denean bertan parte hartzeaz gainera, urrunagoko kilometroren bat ere eskuratu eta, sarri, asteburu-pasak eginez han ere Korrikan parte hartzeko; Nafarroan, bereziki

Ubane Madera DEBAGOIENA

Nor bere autoetan zein autobusak alokatuta, bakoitzaren ahalmen edo beharren arabera; hori bai, kasu gehienetan, egubakoitzean bertan atera eta asteburu-pasa barne, gehienetan ere, Nafarroarako -Iparralderaino ere bai- bidea hartu izan dute urtetan eskualdeko kuadrilla ugari Korrikan parte hartzeko.

Hutsak betetzera

"Kuadrillan asko gara eta pentsatuz Nafarroan kilometro huts batzuk badaudela, hara joatea erabaki genuen orain zortzi urte. Harrezkero, kuadrillako plan bihurtu da". Oñatiarrek kontatutako hori errepikatu egiten da, aldagaien batekin edo bestekin, eskualdean ez ezik, bestelako inguru batzuetan ere Korrikan parte hartzea erabakitzen duten Debagoieneko kuadrillen kasuetan. Gainera, seme-alabekin joaten dira gehienak, belaunaldi berriak ere bide berean jarrita.



UNAI BENGOA

Aretxabaletarrak Ibañetan

Bederatzi helduk eta hiru umek asteburu-pasa egin zuten Nafarroan, zapatuan, 08:30ean Orreaga eta Luzaide artean Korrikan parte hartzeko. Ingurukoekin batera eman zioten bultzada euskararen lekukoari.



GOIBEKO

Elgetarrak Eslaban (Nafarroa)

Goibeko Euskaltzaleen Topaguneko gaztetxoek eraman zuten lekukoa Eslaban. "Gaztetxoek hartu zuten lekukoa, eta irribarra ahoan eraman zuten, pozik", kontatu dute. 21 lagun bertaratu ziren, Elgetatik.



T.M.

Oñatiarrak Iso Gainean

Zapatuan, 514. kilometroan eraman zuten lekukoa 20-25 laguneko taldeak, ume txikiak barne. Oñatiko kuadrilla horrek laugarren aldiz aukeratu du Nafarroa Korrikari laguntzeko.



**GU ERE
KORRIKAN
EUSKARAREN
ALDE!**



OÑATIKO UDALA

Korrika lau haizetara mundu osoan zehar

Azken urteotan Korrika izaten ari den oihartzuna oso handia da. Izan ere, mundu osoko hainbat eta hainbat herrialdetan antolatzen da. Euskara bultzatzeko egiten ari diren ahaleginak geroz eta nabariagoak dira munduan osoan zehar

Ane Vitoria ARRASATE

Korrikaren presentzia atzerrian handia da oso. Izan ere, asko dira euskara bultzatu nahi dutenak, eta, beraz, Korrikaren aldekoak. Asko dira Euskal Herrikan kanpo antolatzen diren Korrikak. Eta, gehienak, atzerrian dauden euskaldunen eskutik antolatutakoak dira. Aurretik, adibidez, Dublinera gerturatuak Erasmuz ikasleek apirilaren lehen egun zuten Korrika. Hala ere, honez gain, asko dira Korrika antolatzen eta egiten dituzten herrialdeak; besteak beste, Eskozia, Berlin, Budapest, Mexiko, Kuba, Peru, Washington, Sydney, eta abar.

Saharan ere euskararen alde

Bihar arratsaldean abiatuko da Aitziber Osa bergararra Saharako Tinduferra. Bada, udan, urtero, bertako ume bat ekarri izan du Bergarara, baina, oraingo honetan, Osari tokatu zaio bisita egitea. Tindufen, bertako

ume zein gazteekin Korrika egitea da bisitaren asmoetako bat. Tindufeko kanpamentuetan izango dira, eta, basamortua dela kontuan izanik, hasiera batean, umeak Korrikaren txaleko, kamiseta, eta abarrek jantzi eta bertan ibilbide txiki bat egingo dute euskararen alde ilusioz eta gogotsu egiteko asmoz.

Sare sozialen eragina

Korrikaren inguruan egiten ari diren argazki zein bideoak sare sozial askotan helarazten dabilta. Hori horrela, jada badira Korrikaren 20. edizioaren argazki zein bideo esanguratsuak; eta, sare horiei esker, Korrikaren indarraren presentzia nabarmentzen ari da.



Saharako Korrikan izango diren umeak. AITZIBER OSA



Zaldieroaren Korrikaren gaineko biñeta. ZALDIEROA



Sare sozialetan gehien zabaldu den argazkieteko bat. JOSEBA LARREA



Korrika Dublinen. GARA



Desfibriladorea dauka Goienako egoitzak ere

Bihotz-biriketako gelditzeak gertatzen direnean lehen mailako laguntza emateko desfibriladorea jarri dute Goienan; Debagoiengan bat gehiago dago, bada; izan ere, enpresarako ez ezik, inguruan larrialdiren bat baldin badago erabiltzeko ere badira gailuok

Itziar Larrañaga DEBAGOIENA

Desfibriladorea jartzeaz gainera, hura erabiltzeko eta bihotz-biriketako masajea egiten ikaste-ko ikastaroa izan dute Goienako langileek asteon. Elorregiko Gurutze Gorriko Xabier Aramburu adituak eman du.

Gero eta desfibriladore gehiago

Ospitalez kanpoko bihotz-geldialdia (OKBG) arnasketa eta zirkulazio espontaneoan bat-bateko etena da, ezustean gertatzen dena. OKGBrako gomendatutako tratamendua bihotz-biriketako bizkortzea (BBB) da; leku-koek uanean bertan egindakoa eta desfibrilazio goiztiarra. Le-



Desfibriladorea erabiltzen ikasten, Goienan. ITZIAR LARRAÑAGA

kukoak bihotz-masaje goiztiarra egitea guztiz erabakigarria da pazienteei egiten zaien bizkortzeak arrakasta izan dezan.

Euskal Autonomia Erkidegoan gero eta ohikoagoak dira desfibriladoreak, eta horiek erabiltzeko formazioa duen pertsona kopurua ere hazten doa; gauza bera dabil gertatzen Debagoiengan. Eraikin ezberdinetan, enpresetan... desfibriladorea egoiteari esker, bertan edo inguruan OKGB egoera dakarren ezbeharren bat gertatuz gero, hasiera-

ko laguntza –bizi salbatzerainokoa izan daitekeen laguntza-azkarrago jaso dezake larrialdi egoera bizi duen pertsona horrek.

Norbaiti bihotza gelditu zaio la hauteman bezain laster arnabarik ez duelako hartzen, 112ra deitu eta bihotzeko masajea ematen hasi behar da, gertakaria izan den lekutik gertuen dagoen desfibriladorea eskatu eta hura iritsi bitartean. Ondoren, gailuak emandako argibideak jarraitu behar dira, anbulantzia etorri bitartean.

Desfibriladoreak lokalizatzeko APPa

Teknologia berriei esker, gaur egun telefono mugikorra erabiliz jakin dezakegu gu gauden tokitik gertuen dagoen desfibriladorea non dagoen. Lokalizatzailea aktibatuz, gugandik gertu dauden desfibriladoreak identifikatzen duen aplikazioari esker, hain zuzen.

Osakidetzak garatutako aplikazioa da eta *Ayuda a la Parada Cardiac* izenarekin aurkitu daiteke Google Play zein Apple Store aplikazioetan. Horrez gain, laguntza emateko orduan jarraitu beharreko gomendioak ere ematen ditu aplikazioak.

Arrasaten, 15 puntu daude alta emanda; Aretxabaletan, esaterako, kiroldegian, Arkupen eta futbol zelaian ere badaude; Eskoriatzan, kultura etxean eta kiroldegian, baita Oñatin ere; han udaletxean ere badute desfibriladorea, enpresetan...

BATZUK ^{aek} 20. KORRIKA

DEBAGOIENA, APIRILAK 8

Osintxu 00:08	Bergara 00:40
Antzuola 01:12	Udana 11:27
Oñati 12:00	San prudentzio 12:50
Arrasate 13:08	Atxabalta 13:37
Eskoriatza 14:00	Gatzaga 14:35

20. korrika ^{aek}

BUKAERA

JAKI

DENOK IRUÑERA!

APIRILAREN 9AN

BERTSO BAZKARIA. PUZGARRIAK, MUSIKA ETA ZIRKOA, MAGOA, TAILERRAK, ALTXATU, GATIBU, HIBAKUSHA, MAIDER, ERRIGORA AZOKA, SORKUN, TRIKIDANTZ, ARTISAU AZOKA, JOALDUNAK, KALE ANIMAZIOA, TONBOLA, KORRIKA DENDA, UMEEN TXOKOA ...

BATZUK

www.aek.eus
www.korrika.eus



Urtarrilean Bergarako epaitegian egindako lehen aurre-audientzia. GOIENA

Aurre-audientzia atzeratu egin du epaileak

Hilaren 12rako zegoen ezarrita Ordaindu-Mondragon auziaren bigarren aurre-audientzia Bergarako epaitegian. Epaiketarekin lotutako prozedurengatik, bertan behera uzteko erabakia hartu du epaileak, eta data berriaren zain dira alde biak

Larraitx Zeberio DEBAGOIENA

Ordaindu eta Eskuratu plataformetako kideek Mondragon Taldearen aurka jarritako demanda dela-eta bi aldeen abokatuak Bergarako epaitegian elkartzekoak ziren hilaren 12an. Egun hori ipini zuen epaileak urtarrilean egindako epaiketa aurreko lehen entzunaldiaren ostean. Bigarren ekitaldi hori

atzeratzeko erabakia hartu du, ordea, Bergarako 3. zenbakiko epaitegiko epaileak.

Ordaindu eta Eskuratu plataformetik igorritako informazioaren arabera, epaileak prozedura idatziz ebatzi nahi ditu urtarrilaren 24an egindako lehenengo aurre-audientzian talde kooperatiboak aurkeztutako salbuespen prozesalak. "Berga-

rako 3. zenbakiko epaitegiko epaileak Mondragon Taldeak eskatutakoaren inguruan auto irmoa egingo du eta behin hori eginda dekretatuko du prozesuarekin jarraitzeko data berria", adierazi dute demandatzaileek. "Orduan izango dugu alde biek, besteak beste, epaiketako lekukoak nortzuk izango diren planteatzeko aukera".

Mondragon Taldearen irakurketa Bestelako argibideak eman ditu Mondragon Taldeak. Adierazi dute beraien ustez kontrako alderdiak berandu aurkeztu dituela urtarrilaren 24an egindako aurre-audientzian faltan sumatutako agiriak.

Urtarrileko aurre-audientzia horretan demandatzaile bakoitzak eskatzen duen diru-kopurua zein produktorengatik eskatzen duen ez zela zehazten azpimarratu zuen Mondragon Taldeak, eta epaileak arrazoia eman zien. Mondragon Taldeak bere burua egoki defendatu ahal izateko zehaztasun hori egitea ezinbestekoa dela esan zuen epaileak.

"Gure ustez, epez kanpo aurkeztu dute eskatzen zitzaaien dokumentazioa", esan dute asteon Mondragon Taldeko iturriek. "Gauzak horrela, errekurso bat jarri dugu eta epaileak kontuan hartu du, eta bigarren aurre-audientzia atzeratzeko erabakia hartu du. Oraingoz, ez du epe berria ipini", adierazi dute.

Aurrekariak

Mondragon Taldearen aurkako demanda aurkeztu zuten Fago-

rreko eta Edesako 900 bat langile ohi elkartzan dituzten Ordaindu eta Eskuratu plataformek. 47,8 milioi euroko kalte-ordaina eskatzen diote talde kooperatiboari Fagor Etxetresnak kooperatibaren porrotaren ondorioz sortu zaizkien kalte-galerengatik.

Demandatzaileek jarraitzen dute argudiatzen iruzurrezko informazioarekin bultzatu zizutela aurrezkiak Fagor Etxetresnetan zein Edesan mantentzea, eta hori nahiz eta Arrasateko talde kooperatiboko arduradunak bi enpresen itxiera hurbilaren jakitun izan.

Euskadin orain arte aurkeztu den inoizko kalte-demanda handiena da honako hau kalte ordainari dagokionez. Epaiketari hasierako data ipini aurretik, ordea, hainbat gauza daude argitzeko eta horretan dihardute Bergarako epaitegian.

HURRENGO SAIOA EGITEKO DATA BERRIA IPINI BEHARKO DU BERGARAKO EPAILEAK

Bihar elizbarrutiaren erromesaldia Arantzazura

Donostiako Elizbarrutia antolatuta, bihar, zapatua, egingo dute Arantzazura ibilaldia *Amarengana erromes* lelopean. Erromesak 09:30ean abiatuko dira Oñatitik, eta 12:00 aldera iritsiko dira Arantzazuko Santutegira. Bertan, otoitzaldia egingo dute, Donostiako gotzain Jose Ignacio Munillak gidatuta. Antolatzaileek jakinarazi dute oinez igo ezin direndako autobusak antolatu dituztela eta erromesaldiaren atzetik igoko direla. Santutegirako errepidea, hori bai, 08:30ean itxiko dute mota guztietako ibilgailuendako. Gurutze Gorriak aholkatu du ondo gosalduta eta oinetako egokiek in joateko.

Kolonbiarrak gizarte ekonomian trebatzen izan da MU

Ekoizle eta nekazari talde bat gizarte-ekonomian trebatzeko jardunaldiak egin ditu Mondragon Unibertsitateak Kolonbian. Bertako unibertsitate nazionalak gonbidatuta, Herbehereetako Wageningen unibertsitatearekin batera egin dituzte jardunaldiak. Mondragon Unibertsitateko kideek astebetetz jardun dute Kolonbiako nekazarien ordezkari-tza bati kooperatibismoa zen den azaltzen. Hain zuzen, bost hamarkadako gatazka armatuaren ondoren eta bake-agertokiak eskaintzen dituen aukerak baliatuz etorkizunera begira hartu beharreko erabakien garrantziaz ohartarazi dituzte ekoizleak eta nekazariak.

Debagoieneko langabezia tasa %9,36 martxoan

Jaitsiera oso ahula izan bada ere, urteko lehenengo hiruhilekoan behera egin du langabezia tasak Debagoiengan. Martxoko datuei begiratuta eta otsailekoekin alderatuta, Aramaio da oraindik ere langabezia tasa txikiena duen herria —%2,38—, eta Arrasatek du handiena —%12,6—. Herriz herri emandako datuei begiratzen badiegu, Bergaran ia puntu erdiko jaitsiera izan du langabezia tasak. Leintz Gatzagan, aldiz, igo da gehien. Puntu bat handitu da langabezia tasa herri horretan.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako datuen arabera, 2.916 langabe daude Debagoiengan.



OHIKO BATZAR NAGUSIA

EGUNA: 2017ko apirilaren 30ean, igandean

ORDUA: Lehen deialdia 11:45ean eta bigarren deialdia 12:15ean

TOKIA: Kulturateko areto nagusian

GAI ZERRENDA

1. Batzar honen akta onartuko duten bi bazkideren aukeraketa
2. Urteko txostena irakurri eta onartu, horrela balegokio
3. Urteko kontuak irakurri eta onartu, horrela balegokio
4. LKS Auditores-ekin egindako hitzarmena onartu
5. Txosten aktuariala
6. 2017rako sarrerren eta gastuen aurreikuspena
7. Zuzendaritza Batzordeko kideak berritzea
8. Galde-erreguak

Arrasaten, 2017ko apirilaren 7an



ZABALIK

MAIDER AZKARRAGA-URIZAR

Itzulera bat

Etzea atzean utziko duzu zure beldur, min, ezin eta konplejuz betetako maleta zahar eta itsusi bat hartuta.

Sentituko zara deseroso, mamuekin borrokan, atzeko zure itzalei eskapu egin nahian, eta ezinean.

Denak soinean daramatzazu, atzetik segika bestela.

Astuntasunak entzuten ari zaren *Martin Larralde* gustura entzuten ere ez dizu utziko, hitzetan murgiltzen.

Autobusean sartu eta hasiko da bidaia, iluntze batez.

Sartuko dira bidaiariak zu konturatu orduko eta laster beteko zaizkizu inguruko aulki guztiak ezezagun; baina ez zaizkizu horren ezezagunak egiten.

Bidaia luze honetan bere zatitxo bat utziko dizu bakoitzak: hitzak, kanta bat, irribarre bat, gau bat, usain bat, begirada bat, otordu bat, liburu bat, muxu bat, ideia bat, iritzi bat, malkoak, poza, besarkada bat.

Eta begiak itxi eta berriz ireki orduko bidaiari

helduko zaio bere amaiera.

Berriz ere duela lau urte hartutako maleta hartu eta itzuliko zara etxera.

Maletan gordeko dituzu jasotako eta emandako guztiak.

BIDAIA LUZE HONETAN BERE ZATITXO BAT UTZIKO DIZU

BAKOITZAK: HITZAK, KANTA BAT, IDEIA BAT...

Bertara eramandako min eta ezin irribarre (ez) ezagunek itoko baitizkizute.

Atzetik jarraika zenituen itzalak beste batzuenak izango dira orduan.

Zu ere beste batzuen itzalen ehizan ibiliko baitzara, beste ezezagun zoragarri batzuk zuretan ibiliko diren bezalaxe; mamuak sarearekin harrapatu, zuk gorde eta gehiago ez zabaltzeko hautua ere egingo dute zuegan; zuen itzal eta mamuak ezagutzea ere ederra izan da.

Itzulera bidaian ez duzu astuntasun handiegirik izango, pena agian.

Hala ere, *Martin Larralde* gustura entzuteko gai izango zara, eta bihurtuko gara edo bagara beste batzuk; *gu*-agoak, desberdinagoak, beteagoak eta ederragoak.

Lau urte hauetan bidaia lagun izandakoei besarkada estu bana, zoragarriak zarete.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Ikasleak nolako pertsonak izatea nahi dugun adostea, zilegi?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

[HTTPS://LABUR.EUS/UWKY](https://labur.eus/uwky)

"Zer da pertsona izatea? Hori zehaztu behar dugu, eta horri tiraka definituko dugu lortzeko modua, irakasle eta ikastetxe bezala gure funtzioa zein den". Eztabaida piztu zuten Lore Erriondo irakaslearen hitzok, hezkuntzari buruzko mahai-inguruan. Homogeneizazioaren arriskua ikusi zuen Alexander Barandiaranek.

"Nolako ikaslea nahi dugu?" galderari erantzuten dion sistema eraiki dugu historikoki, eta *nolako*

pertsona nahi dugu? galderak homogeneizaziora garamatza –adierazi zuen Barandiaranek–, saiatuko garela ikasleak eredu horretara bideratzen. Eta hori nik ikusi dut ikastetxeetan: pertsona-eredu hori lortzeko, txikitatik hasten natzaio horretara bultzatzen, eta arriskua da aurrean duan pertsona ez ikustea, nahi ez duan modukoa baldin bada saiatuko naizelako birbideratzen artaldera, irteera-profilak agintzen duen horretara egokitu dadin. Non geratzen da aniztasuna?"

Berehala etorri zen Erriondoren erantzuna: "Ezin al dugu esan pertsona libreak nahi ditugula, elkartasuna balio bezala daukaten

pertsonak, sortzaileak, norberaren gaitasunak ahalik eta gehien garatzen lagunduko dien irakaslea izango dutenak alboan? [...]".

Ane Ablanedok jarri zion azken puntua eztabaidari: "Heziketa sistema existitzen denetik existitzen da pertsonak nolako izan behar duen dioen eredu, horregatik hobesten eta gaitzesten dira balio eta izateko modu batzuk eta besteak gizarte batzuetan eta besteetan. [...] Idealizatu gabe, jakina, baina gakoak ez da eredu bat izan eta ikasleak horretara moldatzea, eurengan konfiantza izatea eta behar duten ingurua eskaintzea baizik, ea zer erakusten diguten".

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amalia Mundiñano, Zierza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

"Nire izena entzun nuenean, ez nuen sinetsi ere egin"

OIHANA ARANA GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO BERTSO TXAPELKETAKO IRABAZLEA

A.T./M.T. ESKORIATZA

Joan den asteburuan Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketa jokatu zuten Azpeitian. Finalisten artean Urko Arregi oñatiarra eta Oihana Arana eskoriatzarra zeuden; azken horrentzat izan zen txapela. **Urduri zeunden? Espero zenuen horren saio ona?**

Oso urduri nengoen, eta oso gutxi lo eginda. Aretora heldu nintzen eta saio normal samarra egitea espero nuen; gustura geratzea bai, baina gehiegi gailendu barik. Nik nahiko argi nuen zeinek irabazi behar zuten. Baina gero, saioan, oso gustura ibili nintzen, espero nuena baino hobeto, egia esan. Ariketa guztiak oso txukun joan ziren, eta, begira, azkenean, sorpresa etorri zen. Hala, horregatik ere oso pozik nago. **Zendu zen zure osabari eta zure ahizpa bikiri eskaini gura izan zenien txapela. Zergatik eurei?** Osaba omendu gura izan nuen aukera ona iruditu



Oihana Arana bertsolari eskoriatzarra. AMAIA TXINTXURRETA

zitzaidalako dagoeneko hemen ez dagoen bati halako lorpen bat eskaintzea; are gehiago, ezustekoa izan denean.

Eta ahizpari ere eskaini nahi izan nion, azken finean, nire bertso ibilbidean beti

bidelagun izan dudan pertsona bakarra izan delako. Bera betidanik ibili izan da nirekin bertsoan, eta oso argi izan dut beti zer edo zer irabazten banuen berari eskainiko niola. Hori dela eta,

nire lehenengo txapela ahizpari eskaini nion. **Lehenengoz iritsi zara finalera, 15 urterekin, eta, gainera, txapela irabazi. Zer sentitu zenuen zure izena entzutean?**

Oso pozik nengoen. *Oihana Arana* izena entzun nuen momentuan ez nuen sinetsi ere egin. Nik saioan zehar oso argi neukan zeinek irabaziko zuten, zein izango zen bigarren... eta oso argi neukan ni ez nintzela lehenengo bi postuetan sartuko, inolaz ere. Eta, bat-batean, nire izena. Ni oso harrirituta geratu nintzen, nahiz eta ingurukoek esaten zidaten eurek espero zutela, zorionak emanda. Eta ni, artean, agurra pentsatu barik! Baina bueno, hori ere egin genuen, eta oso pozik.

Hurrengo hitzordua Saran izango duzu ekainaren 10ean: Euskal Herriko txapelketa, hain zuzen. Zein helbururekin joango zara?

Gipuzkoako finalera nindoaneko asmo berekin joango naiz. Gipuzkoako finalera kasualitatez heldu naiz, eta irabazi dut saio ona egin nuelako. Orduan, Sarara joango naiz beti joaten naizen moduan, ahal bada, lasai, nahiz eta ez dudan uste lortuko dudarik, baina, batez ere, han saio ona egitera eta gozatzerara.

HAU BE BADOGU!

Euskal Herriko #Itzulia-ren presentzia



Astlehenean hasi zen Itzulia, eta asteazkenean Arlabandik sartu eta Oñatitik irten ziren ziklistak. Tartean, Markel Irizarrek etxe albotik igarotzeko aukera izan zuen. Argazkian, Oñatiko txirrindularia Haimar Zubeldia usurbildarrarekin, Iruñeko irteeran:

@Markelirizar: "Egun berezia gaurkoa, norbere herritik pasata! #itzulia".

Hotz Oñatiren kanpaina arrakastatsua



4.000 kilo inguru batu ditu Hotz Oñatik hiru eguneko kanpaina eta elkarteak sare sozialen bidez eskerrak eman nahi izan ditu:

@hotz_onati: "10 pale inguru maitasun eta elkartasunez beteak aterako dira! Mila esker Oñati!".

@hotz_onati: "Laguntzaile ederrak ditugu gaur! Ludotekako neska-mutilak etorri dira gurekin lan egiteko! Mila esker!".

#Korrika, sare sozialetan nagusi

Astebete darama korrikak Euskal Herritik bueltaka, eta, Debagoienara aste bukaeran helduko den arren, igaro den tokietatik arrastoa utzi du jada. Arrasto horren erakusle izaten ari da #Korrika20, #Korrika eta #BatZuk tralok euskaldunen artean erabilienak izan direla aste osoan zehar. Gainera, erabiltzaile askok eta askok euren argazkiekin bete dituzte sare sozialak.

ITURRI ONETIK

Erraldoi berriak dabilta sortzen Bergaran

Bergarako erraldoien konpartsak erraldoi berriak egiten dihardu; hain justu ere, iaz estreinatu zituen *Tostoi* eta *Erreileno* erraldoien tamainakoak. Oraingo honetan ere, Bergarako folkloreakin, kulturarekin edo nortasunarekin lotutako beste bi erraldoi dabilta egiten. Eta *Erraldoi* eta *Tostoi* pertsonaia berriekin egin zuten moduan, orain eraikitzen dabilta bi erraldoi berriak ere Bergarako jaietan aurkeztuko eta estreinatuko dizkiete herritarrei eta bisitariei.

GORA ETA BEHERA



Tirolina apurtuta eta konpontzeke oraindik

Badira aste batzuk Bergarako Labegaraieta parkeko tirolinak apurtuta daudela; zehazki, haien jarlekuak. "Labegaraietako parkera ume eta gazte mordojoaten da; eta orain are gehiago, udaberriarekin, eguraldi onarekin... eta tirolina ezin erabiltzea lastima da, ba, umeak sarri ibiltzen ziren-eta bertan", dio parke hura oso gustuko duen guraso batek.



OIHANA ELORTZA

EAJ eta Aramaioko 2017ko udal aurrekontua

RAFAEL M. BENGUA, ROMAN BERRIOZABAL ETA ANDONI ERKIAGA
ARAMAIOKO EAJ-REN UDAL TALDEA
ARAMAIO

Jakineko kontua denez, Aramaion onartu berri den 2017ko aurrekontuak ez du EAJren udal taldearen aldeko boto izan.

Aramaioko EAJren udal taldea osatzen dugun zinegotzian ustez, Aramaioko Udal Gobernuaren aurrekontu-proposamena berandu etorri da. Lehen aurrekontu-zirriborroa martxoaren 9an ezagutu genuen.

Eta etorri ere, akatsez josita eta arrapaladan etorri zen. Hiru aste baino ez da igaro lehen zirriborroaren aurkezpen-egunaren eta onarpen-egunaren artean. Bada, era berean, esan beharrekorik: txikieria batzuk izan ezin, gobernu-taldeak ez du EAJ taldearen proposamenik gogoan hartu eta onartu. Besteak beste, EAJk honako hauek proposatu zituen: udalerrian dauden txabolen zerrenda egitea, jarraian legezatu edo/eta zelan jokatu erabakitzeke; hiriaren antolakuntza-plana eta PERIA bukatzea; Mendixola Zentroaren dinamizazioari behingoz ekitea; udal jabetzapekoak diren basoen ganadu- eta baso-erabilera aldi berean egitea; genero-indarkeriaren arrisku

posibleak ekidite aldera burutu beharreko ikerketa egitea; Ibarren eta, batez ere, Aramaioko auzo guztietan desfibriladoreak jartzea; ura eta hondakinak fakturatze aldera egin beharreko ordainagiria zuzen egitea; Udalak eta udal langileek ematen dituzten zerbitzuen ebaluazioa eta herritarren gogobetetzea neurtzea helburu duen ikerketa bat egitea; kudeaketa gardena egitea, aurrekontuak, langileen zein kudeatzaileen soldata argitaratuz.

Udal Gobernuak EAJ taldeak egindako proposamenei emandako erantzunak aitzakia hutsak izan dira, gehienetan ezetz borobil batekin jantziak.

Bada, era berean, azpimarratu beharreko ezetz borobil bat: Eudelek egindako gomendioei emandakoa. Udal Gobernuak, Eudeleko kide izan arren, ez du Eudelen gomendioa bete. Ondorioz, udal taldeei legalki dagokien diruaren banaketa EH Bilduren mesedetan jarri du eta, nahita, kalte egin dio EAJri.

Gaur eta hemen kostatzen egiten zaigu Udal Gobernuaren jarrera ezezkorra ulertzea.

Nola da posible neurri aurrerakoiak onartu eta aurrekontuan jaso beharrean, horiei bizkarra ematea?

Udal Gobernuak kideengan ikusitako jarrera ezkorra ikusi ondoren, EAJren udal taldeak ezetza eman zion martxoaren 30eko osoko bilkuran Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontu-proposamenari.

Gero arte!

MARIÑE ETXANIZ, ALAZNE JAUREGI, XABIER IPARRAGIRRE ETA GARAZI KORTABARRIA

ANTZUOLAKO TXOSNA BATZORDEA
ANTZUOLA

Ikusi izan dittugu maguak hitz magiko batzuk bota ostian ezerezetik untxixak, larrosak edo txanponak etarutzen. Geuk be oin dala urte batzuk arte uste giñun Zurrategiko estatuak egindako truko batek jartzen zittuala uztaile erdialdian bi txosna eta eszenarixua bere inguruan. Baiña konturatu gara gure hori sortzen daben esaldi magiko bakarra "borondatezko lana" dala.

Baiña, azken fiñian, ez al gara mago geu be? Martxotik uztaillera prestakuntzan jarduten dugu: billerak, kontzertuak, edarixak, kartelak, boletuak, kalkuluak, montajia, musikia... eta uztaillako hirugarren asteko ostegunian emanaldixa hasten da.

Aurreko bi astiak existitzen diran meteorologo danak aztertzen pasau ostian, lau egunez tekniko, elektrizista, zerbitzari, diruzain... bihurtzen gara.

Inprobisaziño hau bistaritzen dan arren, magiak bezela, ikusten ez danetik askoz gehixau dauka ikusten danetik baiño.

Hala eta be, siñisten dugu bihar dala gure euskaldun, feminista, ez arrazista... bat jaixak beste modu batera ospatu eta disfrutau nahi dittuanarentzat.

Horregatik, *billerafobia* epidemia bihurtu dan garai honetan, hau gaintitzen hasteko bi proposamen:

1. Gaur, ostirala, 18:00etan, Orlaranen.

2. Apirillaren 28xan, ostirala, 18:30ian, Orlaranen. Danok daukagu zeozer emuteko, hurrengo urtietan be euki daigun Zurrategi erritmo berian dantzan ikusteko aukeria!

Manifestatu zaituzte, ez diezazutela pentsioa lapurtu

ITZIAR USANDIZAGA

DEBAGOIENEN 'DUINTASUNA' ELKARTEA
DEBAGOIENA

Kezkatzeko moduko egoeren aurrean gaude; etxe askotan gorriak ikusten ari gara hil amaierara iristeko, edo zailtasun handiz iristen gara.

Pobretutako klase sozial baten kide gara, bihotzik gabeko sistema kapitalista honek indartzen dituen soldata baxuen, lan prekarietatearen, pentsio ziztrinen eta ikaragarritzko ezberdintasunen ondorioz.

Gipuzkoan 183.384 pertsona gara pentsionistak, biztanleriaren %26, erdiak 1.080 eurotik beherako pentsioak kobratzen ditugu, eta emakumeok pentsiorik baxuenak ditugu; era berean, 43.660 alargunen %90 emakumeak gara, eta, batez beste, gure pentsioa 743 eurokoa da. Azkenik, DSBE (diru-sarrerak bermatzeko gutxieneko errenta) kobratzen dutenen %27 pentsionistak

dira, eta horietatik %67 emakumeak. Errealitate gordin horren parte garenok ez dugu onartuko politikariek eta Eusko Jaurlaritzak miseria gorrian bakarrik utz gaitzaten, gure pentsioen erosteko ahalmena bermatu gabe duintasunik gabeko zahartzaroarekin.

Lanean aritu ginen, atsedetik gabe, eta duintasunez bizi nahi ditugu gure bizitzaren azken urteak. Zoritxarrez, boterean dauden eta ekonomia gobernatzeko duten politikariek ez zaie inporta zein egoeratan gauden pentsionista asko. Baina asko inporta zaie aberatsei laguntzea eta mesedeak egitea, zerga gutxiago ordaindu eta beren soldata itzelak eta neurritz kanpoko pentsioak maten ditzaten.


2016ko irailaren 21ean Eusko Legebiltzarrean 71.724 sinadura aurkeztu genituen, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa izateko eskubidearen alde eta Euskadin pentsio eta gizarte-segurantza sistema propioa eskatzeko. Eusko Jaurlaritzak "lehendabizi pertsonak" du lelotzat, baina alde batera utzi gaitu. Dena den, 71.724 sinatzaileak pertsonak gara, gure eskubideen alde egiten dugu, eta ez gara nekatuko errepikatzen, aintzakotzat hartzen gaituzten arte, gure bizitzak eta osasunak haien etekinak baino asko gehiago balio dutela.

Manifestazioa egingo dugu hilaren 10ean, Donostian, Bulebarretik irtenda, 12:00etan.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka 2017

apirilak 26-27

Kulturete (Arrasate)

FORMAZIOA LANERAKO ZURE AUKERA

Prestakuntza eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzat zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimenduak

APIRILAK 26, ASTEAZKENA

IREKIERA EKITALDIA

09:00

LANBIDE HEZIKETA: ENPRESATIK OSO GERTU

'Tknika eta TKgune zerbitzuak'

Iñaki Mujika - Tknika-ko zuzendaria

'DUALa bultzatuz, indartuz eta finkatuz'

Alberto Larrea -Miguel Altuna GLHBI-ko

LH Dual-eko koordinatzailea

11:00

Administrazio Publikoan irteera profesionalak (GFA)

Maite Barruetaña Zenekorta - Araubide Juridikoko eta

Funtzio Publikoko zuzendaria

Aitor Leturiondo Odriozola- Funtzio Publikoko zerbitziburua

16:00

Tailerra: 'Aurkitu eskaintzeko duzun hori' (*)

Debagoieneko Mankomunitateko Orientazio Zerbitzua

17:00

NiNeu 4. BideoCurriculum lehiaketaren sari banaketa

18:00

Bisita gidatua euskaraz (*)

15-19 urte bitarteko gazteen gurasoentzat

18:30

Bisita gidatua gazteleraz (*)

15-19 urte bitarteko gazteen gurasoentzat

19:00

Solasaldia: 'Nik ere Lanbide Heziketa ikasi dut' (*)

15-19 urte bitarteko gazteen gurasoentzat

APIRILAK 27, OSTEAGUNA

09:00

Ekintzaileen esperientziak

11:00

Eskualdeko programa, baliabide eta laguntzen aurkezpena



* Izen-ematea beharrezkoa: airizar@debagoiena.eus – 943 79 30 90

INFORMAZIO-MAHAIK

9:30-13:30 eta 16:00-19:00 (apirilak 26)

9:30-13:30 (apirilak 27)

Kultureteko klaustroan (Arrasate)

Lanbide Heziketako Zentroak

- Oñati Gestio Heziketa - MU (Oñati)
- Zuazola-Larraña Institutua (Oñati)
- Mariaren Lagundia Ikastola (Bergara)
- Miguel Altuna Institutua (Bergara)
- Arizmendi Koop. Elkartea Ikastola (Arrasate)
- Mondragon Goi Eskola Politeknikoa - MU (Arrasate)
- Aretxabaleta Lanbide Eskola (Aretxabaleta)
- Helduen Heziketa Iraunkorrekoko Zentroa (HHI - EPA)
- Oinarrizko Lanbide Heziketa (Lanbide Hastapena)

Formazio Zentroak

- Bastida Akademia (Arrasate)
- Ikasi - Prestakuntza Zentroa (Bergara)

Beste erakunde batzuk

- Bizikasi
- www.heziplus.eus
- Laneki-Jakinbai

Enplegu Zerbitzuak

- Lanbide (Euskal Enplegu Zerbitzua)
- EURES (Europako Enplegu Zerbitzuen Sarea)
- Kutxa Zeharo Enplegu Zerbitzua (Arrasate)

ERAKUNDE PARTEHARTZAILEAK

Udaleko Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak

- Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako Udalak

Ekintzaileentzat Zerbitzuak

- Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentzia

Antolatzailea:

DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune
eta Lurralde Oreako Departamentua

Mugikortasun plana definitzen

Udalak Bartzelonako Intra enpresari eman zion datozen 10 urteetarako plana diseinatzeko ardura. Herriko funtzionamendua lau hilabetez behatu ondoren, txostena gertu dago, eta herritarrek alegazioak aurkeztu ditzakete apirilaren 16ra arte

Xabi Gorostidi ARRASATE

2016ko urrian egin zuen Arrasateko Udalak datorren hamar-kadarako mugikortasuna definitzeko prozesuaren aurkezpena, herritarrek goraino bete zuten Kulturateko areto nagusian.

Egun indarrean dagoen plana 2005ekoa da, eta orduan plana egin zuen Bartzelonako Intra enpresako kide bat bertan izan zen, plan berriaren diseinu teknikoa eurek egin dute eta oraingo honetan ere. Mugikortasun alorrean esperientzia zabal

duen enpresa da, Katalunian, batez ere, baina euren planteamenduak Europako hamabi herrialdetara ere heldu dira, bai ta Hegoafrikara ere.

Txostena amaituta

Lau hilabetez Arrasateko mugikortasuna aztertu eta neurtu ondoren, Intraren proposamena udal webgunean ikusgai jarri zuen Udalak, eta herritarrek alegazioak egiteko epea zabaldu zen apirilaren 16ra arte. Orain ikusgai dagoen ikerketa ez da

definitiboa, eta zabalik dago herritarren zein herriko elkarrekin ekarpenak jasotzeko. Adituen gomendioekin egindako gida bat izango da, hurrengo hamarkadan egin beharreko lanak zeintzuk izan daitezkeen ikusteko.

Hiru lan ildo garbi

Txostenaren egileek 59 ekintza proposatzen dituzte helburu hauek lortze aldera: motordun ibilgailuen erabilera gutxitzea ibilbide laburretarako, oinezkoentzako eta bizikletentzako lurzorua handitzea eta honen kalitatea hobetzea.

Hori guztia, zertarako? Arrasateko bizilagunen bizi kalitatea hobetzeko. Horretarako planteatzen diren ekintzak hiru multzo nagusitan banatu daitezke: oinezkoak, bizikletak eta motordun ibilgailuak.

Txostenean jasotzen denez, gaur egun arrasatearren desplazamenduen %53,9 motordun ibilgailuekin egiten dira, %5,9 garraio publikoan eta %40,2 oinez edo bizikletaz. Bertan jasotzen diren ekintzak gauzatu gero, hamar urte barruko eszenario hipotetikoan, hauek lirake portzentajeak: %30,3 motordun ibilgailuetan, %10 garraio publikoan eta %58,7 oinez edo bizikletaz.

"Ohitura aldaketek ekar ditzaketen hobekuntzez jabetu behar dute herritarrek. Hori irudikatzea eta garbi edukitzea da lortu behar dena" azaldu du Joan Esteveordalek. Horren harira planteatzen diren ekimenetako asko ohiturak aldatzeko kontzientziazio kanpainak dira. Seinaletika arloan ere badaude neurriak, garraio publikoei eta aparkalekuei buruzko informazio eguneratuak emateko.



INTRA

kontzientziazioa dira, zalanza barik, hori lortzeko tresnarik eraginkorrenak, nire ustez. **Hobetzeko gauzez gain, alderdi positiboak ikusi al dituzue?**

Bai, noski. Oinezkoentzako esparru handiak daude, garraio publikoa asko hobetu da 2005etik hona, autoa elkarbanatzeko ekimenak... hobetzeko lehengaiak eta potentzialitate handiak ikusi ditugu, baina lanean jarraitu behar da.

"Arrasaten ibilbide laburretarako autoa hartzeko joera handia dago"

JOAN ESTEVADEORDAL INTRAKO ENPRESAKO KONTSULTOREA

Joan Esteveordal izan da Arrasateko mugikortasuna aztertu duen taldeko koordinatzailea, eta behaketa prozesuan ateratako ondorio nagusiei buruz galdetu diogu.

Zuen esperientziaren prisma ikusita, zein aspektu nagusi hobetu daitezke Arrasaten?

Urteak daramatza Udalak herriaren mugikortasun eraginkorra lortzeko lanean. Nire ustez, oinarrian, herrian ibilgailu pribatuak erabiltzeko joera edo tradizio handia dago, batez ere, autoei dagokienez. Leku askotan detektatzen dugu egoera hori. Horri buelta ematea ez da erraza izaten, baina argi izan behar da ohitura aldaketa horrek bizi kalitatea asko hobetu dezakeela. Mugikortasun planak hori arintzen lagundu dezake, baina hezkuntza eta



Makatzenako aldapa igotzen laguntzeko igogailua jartzea da asmoa. X. G.

Oinezkoak

Oinezkoentzako espazioak handitu egin dira azken mugikortasun plana egin zenetik hona. Hala ere, ekintzak planteatzen dira espazioak handitzeko eta kalitatezkoak izateko.

Lau igogailu berri

Plana egiteko aurkezpenean, Gorostiza eta Ferixalekuko igogailuek herritarren mugikortasuna hobetzeko aurrerapausorik eraginkorrenak izan direla azaldu zuen Juan Antonio Urdangarinek, Hirigintza Saileko arduradunak. "Nire ustez, igogailuena azken urteetan Arrasaten etekin sozial handiena izan duen inbertsioa izan da, zalantzarik gabe". Zentzu horretan, beste lau igogailu egitea proposatzen du txosten berriak: Erguinen, Galizia kalean, Makatzenan eta Etxeostea kalean.

Oinezkoentzako espazio berriak

Grupo San Juaneko Anfontso X plaza, hau Zaldibarrek lotzen duen San Bixente Ferrer kalea eta gaur egun garraio publikoentzako mugatua dagoen Garibai etorbidean trafikoa kendu eta oinezkoentzako bihurtzea proposatzen du txostenak.

Berdina proposatzen du Zarugalde kalean, eta Uribarri kalean ere oinezkoentzako espazioak handitzea planteatzen da.

Ikastetxeetara heltzeko ibilbideak hobetzea

Ibilbide sare bat proposatzen da, oinez heltzeko ohiturak sustatzeko. Segurtasuna handitzeko seinaleak edo ikastetxeen atarrietan ez aparkatzeko oztupoak jartzea ere dira neurri batzuk.

Semaforo gehiago

Zortzi semaforo gehiago jartzea eskatzen da, semaforo sarea %20 handituta.

Ekimen garrantzitsuenak

Ekintza sorta oparoa proposatzen da txostenean, baina, Intra enpresako koordinatzailearen ustez, badaude lehenetsun maila handiagoa duten hiru nagusi.

Garibai hiribidearen itxuraldatzean eta ardatz intermodal bihurtzean jartzen du fokua Joan Esteveordalek. "Bertan egin nahi duguna eredu izan daiteke herriko beste toki batzuentzat. Oinezkoentzako lekua irabazten da, zirkulazioa murrizten da, bidegorria sartzen da errepidearen maila berean,

eta, bide batez, segurtasun handituko da".

Bizikletaren arloa aipatzen du segidan. "Aurrerapauso handiak eman daitezke bidegorriaren sarean. Eskoriatza, Arrasate eta Oñati lotuko dituen sarea gauzatzeko lortu behar da, betiere, oinezkoei lekua ez kentzeko bidegorriak galtzadan eginen".

Azkenik, aparkalekuen kudeaketa aipatzen du. Plaza berriak sortu gabe, denbora mugatuz eta txandakatze sistema batekin, aparkatzeko aukerak handitzean ikusten du konponbidea.



Garibain bidegorria galtzadan jartzea proposatzen da. GOIENA

Bizikletak

Bizikleten alorrean jada planteatuta dagoen bidegorri sarean aurrerapausoak ematea ezinbestekotzat jotzen dute txostenaren egileek mugikortasuna hobetzeko.

Eskoriatza, Arrasate eta Oñati bidegorri bidez lotuta

Inguruko herriei konektatzeko egun eginda dauden bidegorri zatiak osatzea da datozen 10 urteetarako erronka nagusia. Hala ere, txostenaren egileek garrantzitsutzat jotzen dute hauek egiteko lekua errepideari kentzea oinezkoen espaloiei kendu beharrean, bidegorriak galtzadan eginez. Hala, Garaia gunetik Muzibarko biribilgunerako zatia, Fagor Elektronika ingurutik Etxaluze egoitzaren alboan dagoen biribilgunerako zatia eta Ospitale ingurutik Zigorrolako San Isidro elizarraino doan zatia egitea izango lirakeke egin behar nagusiak. Aurretik eginda zegoen bidegorri sarean, Zarugalde, Gipuzkoa etorbidean eta Garibain bidegorria galtzadan jartzeko eskaera berezia egin dute txostenaren egileek.

Bizikletentzako aparkalekuak

12 bizikleta uzteko lekua izango duten bost aparkatzeko gune jartzea ere proposatzen da. Gipuzkoa etorbidean zehar joango lirakeke horietako hiru; bata, ertzainen egoitza alboan; beste bat Osiñaga kaleko biribilgunetik gertu; eta azkena, Joan Bengoa kalearekin lotunean, kiroldegitik gertu. Gainontzeko biak Araba eta Uribarri etorbidean joango lirakeke. Horiez gain, Garibai kalean 25 bizikletentzako *Bici-Box* bat jartzea ere jasotzen da txostenean.

Bizikletaren erabilpena handitzeko sentsibilizazioa

Herritik mugitzeko dauden joerei buelta emateko, bizikletaren erabilera handitzeko sentsibilizazio kanpaina bat proposatzen da.



Gipuzkoa etorbidea norabide bakarrekoa izatea planteatzen da. X. G.

Ibilgailuak

Errepideen noranzkoak aldatzea, batzuk oinezkoen bideratzea eta TAO sistema dira ibilgailuekin lotuta proposatutako neurri batzuk.

Norabide bakarrekoko bideak

Garibai hiribidea noranzko bakarrekoa bihurtzea da aldaketa bat. Era horretan, Kontzezino kaletik Garibairako noranzkoan joango lirakeke ibilgailuak, eta biribilgune antzerako bat sortuko litzateke Garibai, Biteri eta Nafarroa etorbidea lotuz. Autobusek eta taxiak ere zentzu horretan mugitu beharko lukete, gaur egun euren erabilera mugatua dagoen Garibai etorbideko zatia oinezkoentzat izatera pasatuko litzatekeelako.

Era berean, Gipuzkoa etorbideko zati bat noranzko bakarrekoa izatea ere planteatzen da. Konkretuki, Gelmako biribilgunetik Maalakora doan zati horretan, Zigorrola aldetik datozen autoak soilik ibiltzea da txostenaren egileek gomendatzen dutena.

Muzibar-Arbolapeta

Arrasateko Udalak parte hartze prozesua antolatu zuen Arbolapeta-San Frantzisko zatiari buruz herritarren gustuko proiektuak ikusteko. Zentzu honetan, Intrako adituen proposamena garbia da: Otorlora Lizentziaduna bi noranzko errepidea izatea eta Zarugalde, aldiz, oinezkoentzat eta bizikletentzat mugatzea.

TAO sistema hedatzen

Hiru TAO mota planteatzen dira: 0, 1 eta 2 guneak. Lehena Arrasateko alde zaharrean planteatzen dute; bigarrena, Zarugalde, Arimazubi eta Uribe auzoan zehar; eta hirugarrena, aldiz, San Andresen. 0 gunea litzateke aparkatzeko denbora tarte murriztena izango lukeena eta luzeena, aldiz, 2 gunea. Gune bakoitzeko denbora tarteak eta tarifak ez dira zehazten.

Mugikortasun Mahaiaren txanda laster

Intrak egindako txostena eta herritarrek zein elkarteek aurkezten dituzten alegazioak aztertzeko, Mugikortasun Mahaia izeneko organo kontsultiboa deituko du Arrasateko Udalak. Honako eragile eta talde hauek osatzen dute, baina interesa duten herritarrek ere har dezakete parte:

- Udalbatzan ordezkariak duten alderdi politikoak.
- Gizarte, ingurumen eta ekonomia arloetako interesak ordezkatzeko dituzten 16 elkarte.
- Herri eta baserri auzoetako alkateak.

Data zehaztu gabe

Apirilaren 16an agortuko da alegazioak aurkezteko epea. Behin fase hori bukatuta helduko da Mugikortasun Mahaia konbokatze ordua.

Bertan adostutakoekin erabakita geratuko da datozen hamar urteetan Arrasateren mugikortasuna hobetzeko Mugikortasun Plana zein izango den.

Aurrerantzean, udal gobernua momentuan momentuko baliabide ekonomikoaren arabera eta ezartzen dituen lehentasunen baitan joango dira planean jasotzen diren ekintza ezberdinak gauzatzen.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK



aholkulariak-abokatuak

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura



Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.eus

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta



2016ko soberakinak nora bideratu erabakita

Aprendizen eraikina, Kulturola eta Makatzenako igogailua finantzatzeko bideratuko da zatirik handiena, 3.420.000 euro. 1.191.000 euro, aldiz, oposizio taldeek proposatutako gaietarako erabiliko dira; tartean, Etxezarretako lursaila erostera

Xabi Gorostidi ARRASATE

Martxoko osoko bilkuran baino gai gutxiago izan arren, mamia izan zuen apirilekoak ere. Eguneko gai garrantzitsuenen eztabaida piztu zen, 2016. urteko aurrekontuak utzitako ia 5.000.000 euroko soberakina zein inbertsio egitera bideratu lantzen zen puntuan, hain zuzen.

Bi poltsa nagusi

4.701.000 euro nora bideratuko diren azaldu zuen Udal Gobernuak, bi poltsa nagusi bereiziz: lehena, 3.420.000 eurokoa, EAJK hauteskunde garaian hartutako konpromisoak finantzatzeko; eta 1.191.000 euroko beste bat, oposizioak aurtengo aurrekontuen harira proposatutako gaitara.

Lehen multzoan, Udal Gobernuarentzat lehen tasuna diren hiru gai izango dira: Aprendizen eraikina, Kulturola eta Makatzenako igogailua.

Bigarren multzoan, aldiz, honako gai hauek daude, horietako batzuk oposizio taldeek eskatutakoak: Musakolako igorilekuen klimatizaziorako lanak, Artabilla baserrirako bidea konpontzea, Zeharkale Estaliko pisu bat erostea, Etxezarretako lursailak erostea, San Antolingo eskoletako argindar transfor-



Astearteko osoko bilkurako irudia. XABI GOROSTIDI

madorea lekuz aldatzea eta Uribarri etorbideko urbanizazio lanak.

Udal Gobernuak kideen aldeko botoekin egin zuen aurrera neurriak, eta EH Bilduk eta Baleikek aurka bozkatu zuten. Eneko Barberenak aipatu zuen Hidalgobason egin beharreko lanak sartzeko proposatu zutela, besteak beste, eta horiek ez sartu izanagatik bozkatu zutela aurka. Baleikeko Igor Urizarrek, aldiz, salatu zuen soberakineta zentimo bat ere ez dela bideratzen behar gehien dituztenen-

tzat, edo genero ezberdintasunaren eraginak baretzera.

Asistentzia faltak baldintzatuta
Eguneko gai zerrendan Irabazi udal taldeak proposatutako hiru mozio zeuden, horietako bat Baleikekin batera eginda, baina Juan Luis Merino ezin izan zen osoko bilkuran egon. Hori dela eta, EAJK aurka bozkatzeko erabaki zuen eta EH Bilduk, aldiz, abstenitzea. PSE-EEk eta Baleikek edukiaren arabera bozkatu zituzten, asistentzia kontuan izan gabe.

Pintaketan gaineko mozioa

Nahiz eta eguneko gai zerrendatik kanpo egon, urgentziaz onartu zuten asteburuan *Mozalik Ez!* leloarekin egindako 160 pintaketak salatzearen mozioa bozkatzeko. Udal Gobernuak osoko bilkura hasi baino 20 minutu lehenago eman zien beste taldeei mozio honen berri, eta hori izan zen, besteak beste EH Bilduk aurka bozkatzeko eta Baleikek abstentziora jotzeko erabilitako argumentuetako bat. Maria Ubarretxenaren esanetan, gaia pausatuko landu eta denon artean adostutako gaitzespen testu bat egitea ere planteatu zuten osoko bilkura hasi aurretik, baina erantzuna ezezkia izan zela azaldu zuen. Udal Gobernuaren izenean Anuska Ezkurak hartu zuen hitza, esanez, hainbat herritarren kezak jaso zituztela gertakariaren inguruan, eta horrek eragin zuela gaia urgentziaz sartu izana. Alderdi guztiak gertatutakoa salatzerako gonbidatu zituzten, pintaketak estaltzeaz "nazkatuta" daudelako eta Udal Ondarea zein eraikin pribatuak larriki kaltetu dituztelako gertakariak.

EH Bilduko Eneko Barberenak esan zuen gai honen atzean dagoen arazoa ezin dela urgentziazko mozio bidez landu, gaineratuz, ondarea kaltetzen duten pintaketak egitea ez dela "EH Bilduren estiloa". Ondoren, EH Bilduko eta Baleikeko ordezkariak bat egin zuten, iaz onartutako garbiketa ordenantzak utzitako zatiketaren eta adostasun faltaren eraginez gertatutako ekintzak direla azpimarratzeko orduan.

Merkatarien oharra pintaketan harira

Alderdikieriatan sartzeko asmorik gabe, ondorengo prentsa oharra kaleratu du herriko merkatariek batzen dituen Ibai-Arte elkarteak: "Adierazpen askatasuna 1. mailako ondasuna da kale garbi eta erakargarriak izateko oztopo izan behar ez duena. Horretarako, pintadei alternatiba bat aurkitu behar zaie eta adostasun politikoak lortu behar dira herriko horma eta herritarrek kalterik ez izateko".

Pintaketan egileen aldarrikapenak

Asteburuko pintaketan egileek helarazitako oharrean, besteak beste, euskararekin, sexu askapenarekin eta internazionalismoarekin lotutako aldarrikapenak zituzten herriko hainbat horma-irudi kendu izana leporatzen zioten Udal Gobernuari. Agintean dagoen gobernu koalizioari ondorengo mezua bidaliz amaitzen da ekintzak justifikatzeko helarazitako oharra: "Hortaz, Udal Gobernuak, eta bereziki Maria Ubarretxena eta Oscar Garcia, herritarren dirua zuen obsesio zentsuratzaila horren ondorioz xahutu beharrean, hobe zenukete Mozal ordenantza bertan behera uztea. Ez baitugu uste herri honetan inor engainatzen duzuenik errepede ondoan ipinitako hiru-lau *Pankarta gune* eta *Adierazpen libreko gune* ziztrinekin; hormak eta kaleak baitira eta izango baitira adierazpen librekoak, behar dituenarentzat. Ez galdu ez zuen denbora ez denon dirua".

ARRASATE IRRATIA

Aste Santuko oporrak

Arrasate Irratiko zuzeneko emisioek datorren apirilaren 12ra arte iraungo dute, eta, oporraldiaren ostean, bueltan izango dira apirilaren 24an.

Hurrengo zozketak

Oporretatik bueltan, Estricalla taldeak Koaltur Ostegunak ekimenaren barruan joko duen kontzerturako sarrerak zozketatuko ditugu, besteak beste.

Hanburgesa erraldoia jateko lehiaketa gaur Jai Zale tabernan

Jai Zale tabernak hanburgesa lehiaketa prestatu du egubakoitz honetarako, 21:00etan. Hiruko taldeetan antolatuta, ia bi kilo okelarekin eta lau arrautzarekin egindako hanburgesa jaten lehena izango da irabazlea. Hirukote bakoitzak 30 euro jarri behar du parte hartzeko eta bildutako diruaren zati bat Korrika laguntzera bideratuko dute.

Igeriketa monitoreen eta sorosleen lan poltsa zabalduko da

Arrasateko Udalak igeriketako monitoreen eta sorosleen lan poltsak sortuko ditu.

Udal webguneko *Lan Eskaintza Publikoa* atalean ikus daitezke postu horietara sartzeko bete beharreko baldintzak zeintzuk diren.

Interesdunek apirilaren 6tik 24ra bitartean izango dute izena emateko aukera.

Siti Siti

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Pauso gutxi Korrika Arrasatera heltzeko

Bihar goizean pasatuko da Korrika Arrasatetik. Elorregitik sartuko da eta Mugarriko biribilgunetik irtengo da; tartean, hainbat gune izango dira. Eta, jada, hainbat elkartek, erakunde publikok eta enpresak euren kilometroak eskuratu dituzte

Ane Vitoria ARRASATE

Korrikari Elorregiko biribilgunean (12:50) emango zaio hasiera, Arrasateri dagokionez. Besteak beste, Musakolatik, Maalako biribilgunetik eta Arbola-petatik pasako da. Horrez gain, ekintza ezberdinei esker, egunaz disfrutatzen aukera izango da.

Ekitaldi bereziak

Korrikaren ospakizunaren harira, bihar, 11:30etik aurrera, hainbat ekitaldi izango dira Arrasateko gune ezberdinetan. Herriko Plazan, adibidez, Kiliki eta Erraldioen Konpartsa, gaiteroak eta Txatxilipurdiren eskutik haurrentzako jolasak izango dira. Honez gain, saiheskia eta edariak eskainiko dira. Ari-mazubín, aldiz, Lore Gazteak, Udaxpe eta txistulariak izango dira. Honetan ere, Txatxilipurdikoak izango dira haurrei jolasak eskaintzeko. Zigorrolan ere izango dira txikientzako jolasak, baita Txikitxu-Arrostaitz, trikitalariak eta Samba-

maña. Gainera, tabernetan, Korrikaren ospakizunaren harira, eta giro ona sortzeko asmoz, bi ekitaldi eskainiko dira: batetik, Irati tabernan Perlata musika taldeak eskainiko duen kontzertua. Hura arratsaldeko zazpietan izango da. Bestetik, Jai Zale tabernan hanburgesa lehiaketa antolatu dute gaurko; gaueko bederatzietan izango da.

Korrika Txikia

Gaur goizeko hamarretan izango da Arrasateko Korrika Txikia. eskola publikoko eta Arizmendi Ikastolako gune ezberdinetako txikienek parte hartuko dute. Musakola auzoko San Isidro plazan hasiko da eta herrian zehar hainbat gune ezberdinetatik pasako dira. Korrika Txikian, denak batera arituko dira, bai eskola publikokoak, bai Arizmendi Ikastolakoak; lekukoak bi eragile horien ordezkarien artean txandakatzen joango da. Azkenik, Arrasateko Herriko Plazan emango zaio amaiera.



Arrasatearrak Korrikan, 2015ean. GOIENA

Gure markak, 40 urte familian



gure marken urteurrena da
40
urte
EROSKI
ARRASATE

1977
Eroski aitzindaria izan zen marka zuriko produktuak merkaturatzen.

Eta familia hazi eta hazi ari da...
Zu gabe ez baikenituzke 40 urte beteko, eta askoz gehiago bete nahi ditugulako zurekin batera. Hori dela eta, lanean jarraituko dugu, onena eskaintzeko.

Eskuratutako kilometroak

Elorregiko biribilgunean

- Abantail.
- Udaleko langileak.
- Auzolagun.
- Polmetasa.

Ekilore sarreran

- Udala.
- LAB-Etxerat.
- MGEP ikasleak.
- MGEP irakasleak.

Kataideko industrialdean

- Astore.
- Pesa.
- Caldereria Epele.
- JMA.

Musakolako ermitan

- Txikitxu-Arrostaitz.
- Trikitixa Eskola.
- AED, Ekin eta Txatxilipurdi.
- EPA, Arrasateko Institutua eta Arrasateko Herri Eskola.

AEK biribilgunean

- AEK.
- Maritxu Kajoi.
- Gure Esku Dago.
- Euskara elkarteetako kideak.

Arbolapetan

- Arizmendi Ikastola.
- EH Bildu.
- Emun.
- Lore Gazteak.

Olandixoko biribilgunean

- Beste bat!-Sant Pauli.
- Santamas Komisiñua.
- Laboral Kutxa.
- Lagun Aro.

Fagorreko bus geltokian

- Ikerlan.
- Mondragon.
- Fagor taldea.
- Bastida.

EROSKI
basic

EROSKI
SELEQTIA

belle

EROSKI
Sannia

EROSKI

EROSKI
NATUR
ORIGEN Y SABOR

Bazkidea
bazara
2. alea

- %40

*
gure marken
adierazitako
produktuetan

EROSKI
ARRASATE



Musakola 11 ARRASATE | Tel.: 943 71 10 30



*Kutxatik pasatzean, unean bertan, EROSKI Club txartelean sartuko dizugu erositako produktuaren/en deskontuaren kopuru bera. Zenbateko hori hurrengo erosketetan baliatu ahal izango duzu. Deskontu honek ez du balio 'Azken unitateak' seinalea duten produktuarentzat.

Eskola Arteko atletak batuko dira Mojategin

Mojategiko atletismo instalazioek 600 neska-mutiko baino gehiago hartuko dituzte domekan –10:00etan hasita– maila txikietako atletismo txapelketan. Bertan parte hartzeko, Federazioak eskatutako gutxieneko markak izan behar dituzte atletak

Xabier Urzelai ARRASATE
Atletismoko harrobi erakustaldia egingo du Gipuzkoak Mojategiko kirol instalazioetan, domekan. Izan ere, Arrasaten jo-

katuko dituzte, 10:00etan hasita, Eskola Arteko Gipuzkoako Atletismo Txapelketak. Ez da Arrasateko atletismo taldeko ordezkariak hitzordua antolatuko

duzen lehenengo aldia izango, iaz ere Mojategin batu zirelako, eta, Fernando Zufriak aitortu duenez, jendetza batuko da domekan Mojategiko harmailetan: "Pentsa, proba bakoitzean batzbestek 30 kirolari inguruk hartuko dute parte, eta guztira 21 proba izango dira. Horrenbestez, 630 atleta inguru izango dira Mojategin, euren gurasoek lagunduta".

Arrasateko 23 atleta izango dira Txapelketan parte hartzeko, Federazioak gutxieneko markak eskatzen ditu, eta Arrasateko 23 atletak dituzte marka horiek.



Joan den urteko txapelketaren une bat, Mojategin. ARRASATE ATLETIKO TALDEA

Ordutegiak

Ordua	Modalitatea eta maila
10:00	Vortex, alebin mutilak
10:00	Altuera, infantil mutilak
10:00	Luzeera, alebin neskek
10:00	Pisua, infantil neskek
10:20	220metro hesiak, infantil.
10:40	1.000 metro alebin mut.
10:50	1.000 metro alebin neskek
11:00	1.000 metro infantilak
11:30	Vortex, alebin neskek
11:30	Altuera infantil neskek
11:30	Luzera, alebin mutilak
11:30	Pisua, infantil mutilak
11:50	60 metro alebin neskek
12:20	80 metro infantil mutilak
11:50	60 metro alebin neskek
12:50	80 metro infantil neskek
13:20	60 metro alebin mutilak
13:25	60 metro alebin neskek
13:35	80 metro infantil neskek

OHARRA: TAILAN EZ DAUDE ORDUTEGI GUZTIAK

MUK bigarren partidua jokatuko du jarraian kanpoan

Oraingo asteburuan ere ez dute erronka makala, etxetik kanpora jokatuko dute eta. Asteburuan, sailkapenean bosgarren tokian dagoen Megacalzado Ardoi taldearen kantxara joango dira, Zizur Nagusira (domeka, 18:00). Emaitzatik harago, garrantzitsua izango da sentsazio positiboarekin itzultzea etxean jokatuko duten *finalera* begira, batez ere.

Ligako azken partidua Ford Mugarrirendako

Ford Mugarri Arrasatek eta Izarraitz Muñoz Aloña Mendik eskura dute igoera fasera sailkatzeko *flay-off*-erako txartela. Lehenago, baina, ligako azken jardunaldia jokatu beharko dute asteburuan. Arrasatearrek etxetik kanpora agurtuko dute liga, Deustoren kantxan (domeka, 12:15). Oñatikoek, berriz, Urdu-lizen jokatuko dute ordu berean.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA


ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Country musika entzungai Amaian

Pop vintagearen eta country tradizionalaren arteko nahasketaz gozatzeko aukera bikaina izango da bihar 20:00etan Amaia Udal Antzokiko 'hall'-ean. Izan ere, arrakasta handia izaten ari den Whitney Rose kanadar abeslaria izango da Arrasaten

Ane Vitoria ARRASATE

Etorkez oparoa aurreikusten zaio Whitney Rose artistari. Izan ere, azken bi urteotan izugarriko arrakasta izaten ari da kanadar abeslari hori. 2015ean bigarren diskoa, *Heart Breaker Of The Year*, argitaratu zuen eta horrek eman zion behin betiko bultzada. Gainera, duela gutxi *South Texas Suite* deritzon EPa argitaratu du eta honekin ere arrakasta handia izaten ari da. Abeslari gazte hori Europara heldu berri da; izan ere, hilabete iraungo duen bira egingo du bertan. Hainbat herrialdetan eskainiko ditu kontzertuak, hala nola Belgikan, Alemanian, Suitzan, Norvegian... Hala ere, bira horri Bartzelonan eman zion hasiera, martitzenean, eta, Arrasatera heldu aurretik, Valentzian, Madrilan eta Bilbon izan da. Bihar, ordea, udalerrian izango da, eta, eskainiko duen kontzertuan, pop vintagea eta country tradizionala uztartzen duten abestiak eskainiko ditu. Musika estilo hori eskaintzen duten ikuskizunak eskasak direla aitortu du Arrasateko Kultura Saileko arduradun Karmelo

Alberdik, eta horregatik aukeratu zuten Whitney Rose abeslaria: "Gure helburua hain ohikoak ez diren artistak plazaratzea da. Egia esan, country ez da oso entzuna izaten bailaran, eta horregatik aukeratu dugu abeslari hau". Udalak uste du aukera ona dela, eta, gainera, European egiten ari den biran tarte bat egitea posible zitzaion abeslariari. Beraz, harekin hitzordua lortzea ez dela zaila izan onartu du Alberdik. Gainera, countrya entzuteko aukera paregabea izango dela azpimarratu du.

What A Band

Whitney Roseren kontzertua ikusteaz gainera, What A Band talde bergararra entzuteko aukera ere izango da Amaia Udal Antzokian. 2015ean sortutako talde horretako kideak hainbat dira: Aitor Aldanondo (Fiachras, Bizardunak, Brigada Criminal), Guille Sanz (Bostenbor, Belceblues), Fernando Laskurain (Mahaster River, Shut up Trio) eta Jesus Martinez (Fiachras). Hainbat talde ezberdinetatik pasatutakoak dira horiek, eta, beraz, musika estilo ezberdinen

eragina izan dute: countrya, rocka eta popa, batik bat. Bada, horiek guztiek beraien kantuetan presentzia dutela ikusi ahal izango da biharko kontzertuan. Hain zuzen ere, sarrerek 7 euro balio dute eta Amaia Udal Antzokiko leihatilan zein www.arrasate.eus atarian erosi ahal izango dira.

Los Galerna taldearen azken kontzertua, denbora luze batez

Bihar arratsaldean Los Galerna talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du. Taldekide baten proiektu pertsonalak direla eta, kanpora joan behar du, eta, beraz, denbora luze baterako, taldeak eskainiko duen azken kontzertua izango da biharkoa. Ikuskizun honek ordubete inguru iraungo du, eta, taldekide Jagoba Domingoren esanetan: "Azkenaldian egin dugun Set zerrendako abestiak eskainiko ditugu, baina, horiez gain, aurretik sortutako hainbat ere joko ditugu". Beraz, giro ederraz disfrutatu nahi duen pertsona orok hitzordua du bihar 19:30ean Arrasateko Taupa tabernako terrazan.


Crap taldeak Dictators-ekin batera joko du laster

Punka gustuko dutenek musika estilo horretaz gozatzeko aukera bikaina izango dute laster. Izan ere, mundu mailan famatua den Dictators taldea Euskal Herrian izango da. Askorentzat punkaren aitzindaria den talde hori 70eko hamarkadan sortu zen, AEBetan. Eskainiko duen kontzertua apirilaren 13an izango da Donostiako Dabadaban. Eta horiekin batera Crap punk talde arrasatearra izango da; horrek Dictatorsekin batera kontzertua eskainiko baitu. Ikuskizuna 21:00etan izango da eta sarrerek 12 euro balio du. Sarrerek erosteko aukera Danbadako webgunean izango da: www.dabadabass.com/entradas.

DEBAGOIENKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK



AITOR LUENGOREN IBILBIDEA



Aitor Luengok 40 urterekin industria mundua utzi eta pertsonen laguntzen lan egin nahi zuela erabaki zuen. Bergarako Mariaren Lagundia Ikastolan Gizarte Integrazioa goi-mailako heziketa zikloa ikasten hasi zen, eta egun, urte eta erdi geroago, praktikak egiten ari da, Gizakia Helburu ekimenean, Izan Fundazioan.

Zer moduz doa praktikaldia?

Oso interesgarria, laneratzeko esperientzia bat da. Jada, praktikaldia egin aurretik, 8 hilabete lehenago boluntario hasi nintzen Izan Fundazioan, igeriketa ikastaroak eskaintzen. Larritasun maila txikiarekin erabiltzaileekin hasi nintzen eta egoera zailena bizi duten pertsonen ari naiz orain, Lasao-ko zentroan.

Zure lehen ikasketak industria arlokoak izan ziren, ezta?

Bai, FP2 industri maisutza zena ikasi nuen, Mikromekanika-n, eta urte asko egin ditut industrian lanean. Arazo

batzuk direla eta, lana arlo sozialean eta arazoak dituzten pertsonen egitea erabaki nuen. Makinetatik pertsonetara. Apustu handia izan da, baina oso pozik nago egindako aukerarekin.

Nolakoa izan da ikasketetara buelta?

Indarrarekin hartu dut; nire helburuak garbi nituen, eta motibazio handia. Motza egin zait, bi urtean esperientzia pilo bat bizi izan ditugu ikasgelan: emozioak, zailtasunak, enpatia eta antzekoak landu ditugu. Horrek ikaskideen arteko harreman estua eta konfiantzazkoa sortu du. Gizarte Integrazioa ikastarokan sortu daitekeen harremana seguru nago bestelako ikasketak egiten diren geletan ez dela sortzen.

Eta praktikak bukatutakoan, zer?

Auskalo non aurkituko dudana, baina garbi daukat arazoak dituzten pertsonen, drogekin arazoak dituztenekin edota atzeritarrekin lan egin nahi dudala. Horretarako bidea zabaltzen ari naiz orain.



GOIAZ! 2017
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaten, Arrasaten

[f](https://www.facebook.com/goiazdebagoiena) [i](https://www.instagram.com/goiazdebagoiena) [y](https://www.youtube.com/goiazdebagoiena) [goiazdebagoiena](https://www.goiazdebagoiena.com)



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Deustuko Unibertsitatea, Lanbide Heziketaren Azoka
Iza Lanbide Heziketaren Departamentua



Whitney Rose. WHITNEYROSEMUSIC.COM

2.021.586 euro erabilgarri

Aramaioko Udal Gobernuak 2.021.586,85 euroko aurrekontua onartu du 2017rako; hau da, iaz baino 11.521,02 euro gutxiago; jaitsiera hori izan da, batez ere, Gureia auzoko obraren gastuaren erdia baino gehiago 2016ko aurrekontuan sartu zelako

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Pasa den egueneko osoko bilkuran onartu zuen Aramaioko Udal Gobernuak 2017. urteko aurrekontua. EH Bilduko bost zinegotzik alde bozkatu zuten eta EAJko bi zinegotzik, berriz, kontra -bi zinegotzi ez ziren bozketaren unean egon-.

Iazko, 2016ko, aurrekontuarekin alderatuta, %0,57ko jaitsiera izan du aurtengoak. "Gureia auzoko lanak egiteko Aldunditik jaso dugun laguntza bi fasetan jaso dugu, eta kopuru handiena iaz jaso genuen. Horren eraginez jaitsi da kopurua; beraz, nahiko aldaketa sinbolikoa da. Gainontzean, inbertsioak nahiko antzerakoak dira", azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Aurrekontua lantzeko orduan, behin sarrerak aurreikusita eta gastu finakoak zehaztuta -personal gastuak, zerbitzuak, eta abar-, "iaz eragile eta norbanako ezberdinen parte-hartzearekin egin zen Aramaioko beharrak identifikatzeko prozesuan azaldutakoak, tokian tokiko eragileekin adostutakoak edo eragile ezberdinekin adierazitako arazo edo beharrak konpontzen jarraitzeko ahalegina egin da", alkaterearen esanetan.

Hiru inbertsio nagusi

Hala, hiru inbertsio nagusi egingo ditu aurten Aramaioko Udala: Gureia auzoko lanak, San Martin Eskolako erdisotoa eraberritzeko lanak eta kiroldegiko lehenengo solairuko eraberritze lanen bigarren fasea.

Gureia auzoan, euri urak bereizten dituen saneamendu sarea, elektrizitatea, kale argiteria, telefono kanalizazioak eta zoladura proiektuari dagozkien obrak ari dira egiten, urtarrilaz geroztik. Lan horiek egiteko, Arabako

2016. URTEKO AURREKONTUAREKIN ALDERATUTA, %0,57KO JAITSIERA DU AURTENGOAK

Foru Aldunditik jasotako diru laguntza bi fasetan iritsi zaio Udalari. Laguntzaren lehen zatia -zati handiena- 2016ko aurrekontuan sartu zen eta 2017an, Foru Planaren bitartez, 163.390,25 euro bideratuko dira lan horietara. Apiril bukaerarako edo maiatz hasierarako bukatuta izatea aurreikusten du Udalak.

Bigarren inbertsio nagusia San Martin Eskolako erdisotoa eraberritzeko lanetan egingo du Udalak. "Eskola eta gurasoekin adostu zen eskolako erdisotoa berritzeko diru laguntza eskatzea, bertako ludoteka eguzkiak ematen duen aldera eramanez, komun egokiak jarriz eta almenak berrantolatuz", azaldu du Altunak. 52.785,31 euro bideratuko dira lan horietara.

Kiroldegiko lehenengo solairuko eraberritze lanen bigarren fasea izango da hirugarren in-

bertsio nagusia. "Aurten kiroldegiko gimnasioa egokitzen bukatzea aurreikusten da, talde eta pertsona asko eskatzen ari diren kirola egiteko espazio berri bat sortuz", dio alkateak. Hala, lurra egokitu, berogailua jarri, leihoak konpondu eta beste lan batzuk egingo dira.

Horiez gain, baina, Udalak egingo ditu beste inbertsio batzuk: besteak beste, "baso bide batzuen jabetzak argitu eta hauek ordenatzeko", baso bideen inventario bat egitea aurreikusten da; kultura etxe atzetik parkera joateko sarrera irisgarri egingo da; 2020rako Europak markatzen dituen birziklatze tasetara heltzeko ekintza eta inbertsio ezberdinak zehazten ari da Udala eta plan orokorrari lotutako hainbat lan aurreikusten dira, betiere, Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik falta diren onespenez jaso ostean.

Batzordeak

Sei batzorde daude Udal Gobernuan, eta, iazko kopuruekin alderatuta, portzentajeak oso antzerakoak dira. Hala, gastu handiena Ogasuna-antolakuntza batzordean egingo da, gastu guztiaren %34, hain zuzen. Ondoren, Zerbitzuak batzordeak ere zati handi bat hartuko du, %26, baita Hirigintza-auzoak batzordeak ere, %18.

Oposizioa, kontra

Oposizioan dagoen EAJ alderdiak aurrekontu proposamenaren kontrako botoa eman zuen. Horretarako arrazoietakoa bat proposamena "berandu" helarazi izana da. Rafael M. Bengoa, Roman Berriozabal eta Andoni Erkiaga zinegotziek artikulua bat idatzi dute -10. orrian-, arrazoiak zehatzago azalduz.



Gureia auzoko lanek inbertsio nagusia izaten jarraitzen dute. E.A.

Hiru inbertsio nagusiak

2017ko aurrekontua onartu ostean, hiru dira Aramaioko Udalak egingo dituen inbertsio nagusiak:

Gureia auzoa

Euri urak bereizten dituen saneamendu sarea, elektrizitatea, kale argiteria, telefono kanalizazioak eta zoladura proiektuari dagozkien obrak.

San Martin eskola

Ludoteka eguzkiak ematen duen aldera eraman, komun egokiak jarri eta biltegiak berrantolatu.

Kiroldegia

Lurra egokitu, berogailua jarri, leihoak konpondu eta beste lan batzuk. Lanak aurten bukatzea aurreikusten du Udalak.

"Aurrekontua onartuta, egiteko ditugunetan zentratzea dagokigu"

LIERNI ALTUNA ARAMAIOKO ALKATEA

Lehentasan kontuan hartuta landu da aurtengo aurrekontua, Altunaren esanetan.

2017ko aurrekontua onartuta. Zein da balorazioa?

Alde batetik, pozik nago. Izan ere, arazo batzuk direla eta, martxoan onartu dugu.

Bestalde, oposizioak aurka bozkatu du, proposamen zehatzik egin barik, baina nik uste dut gauzak ondo egin ditugula, lehentasan aintzat hartuz. Behin aurrekontua onartuta, orain exekutatzeko eta egiteko ditugun beste hainbat gauzatan zentratzea dagokigu. **Zuk esan duzun moduan, atzeratu egin da aurrekontu honen onarpena.**

Aramaioko Argindar Enpresako aurrekontuak onartu behar ditugu Udalekoekin batera, argindarraren prezioa Udalarena delako. Enpresa



GOIENA

horren gestioak atzeratu egin dira, arazo konkretu batzuen ondorioz, eta horregatik onartu ditugu orain, martxoan.

2016ko aurrekontuarekin alderatuta, jaitsiera txiki bat izan du aurtengoak.

Gureia auzoko lanak egiteko Aldunditik jaso dugun laguntza bi fasetan jaso dugu, eta kopuru handiena iaz jaso genuen. Horren eraginez jaitsi da kopurua; beraz, nahiko aldaketa sinbolikoa da. Gainontzean, inbertsioak nahiko antzerakoak dira.

Gastuak batzordeka

Batzordea	Kopurua	%
Ogasuna-antolakuntza	695.249,40	34
Zerbitzuak	525.954,22	26
Hirigintza-auzoak	368.941,54	18
Gizarte ongizatea	85.730,37	4
Mendiak-ingurumena	113.731,16	6
Euskara eta hezkuntza	73.600,00	4
Kultura eta kirolak	158.380,16	8

ITURRIA: ARAMAIOKO UDALA

"Kolektiboki, seiok final txukuna eskaini genuen"

MANEX AGIRRE ETA XABI IGOA BERTSOLARIAK

Arabako Bertsolari Txapelketan hirugarren eta laugarren sailkatu ziren, hurrenez hurren, Agirre eta Igoa; maila handiko finala izan zela azpimarratu dute biek ala biek

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Finalaren osteko sentsazioak azaldu dituzte bi bertsolariek.

Azkenean, Oihane Perea txapeldun. Espero zenuten?

X.I.: Nire kinielan lehenengo hiru izenak zeuden, eta puntuazioek hala esan zuten. Oso alde txikia egon zen lehenengo hiru artean, eta, buruz burukoan, Oihane Asierren gainera ikusi nuen, oso txukun abestu zuen.

M.A.: Buruz burukoan, pertsonalki, puntu bakarreko aldea baino handiagoa espero nuen bien artean. Baina gu ez gara epaileak, eta horrek esan gura du oso pareko ibili zirela biak, buruz buruko lehiatua izan zela.

Laugarren txapela du dagoeneko.

M.A.: Bai, erreferentzia historiko bat da Araban, nahiz eta oraindik gaztea izan. Gu guztiontzako erreferente bat da, bai bertsotan egiten duen moduagatik, baita bertsogintzan egin duen lanagatik ere. Horrez gain, daukan esperientziak lasaitasun handia ematen dio txapelketetan.

X.I.: Nik ere hori azpimarratuko nuke. Oholtza gainean erakusten duen lasaitasuna eta arriskuak hartzeko daukan gaitasun hori. Gainera, lasaitasun hori bertso bidez adierazteko gai da eta horrek asko ematen dio berari.

Eta zeuk nola bizi izan zenuten finala?

M.A.: Finalurreko momentuak ez dira gozoak izaten. Urduritasunak hor daude, tentsioa hor dago. Luze espero izandako egun bat da eta, ere berean, pasatu beharreko trantze bat. Biok elkarrekin egon ginen eta saiatu ginen goizetik finalean sartzen, burua lasai edukitzen. Finala hasi ondoren, nor bere pelikula dauka. Ni, pertsonalki, lasai sentitu nintzen, bertsotan gustura eta gozaten.

Egindako lanarekin gustura?

M.A.: Bai, eta ez nire lanarekin bakarrik, kolektiboki sei finalistok eman genuen mailarekin



Manex Agirre eta Xabi Igoa. TXOMIN MADINA

oso harro sentitu nintzen. Izan ere, final ona izan zen, bertso mailan eta kalitatean. Gainera, txapela buru onean geratzen da, eta horrekin geratzen naiz.

X.I.: Txapelketa gorabeheratsua eduki dut. Bigarren finalurrekoarekin ez nintzen gustura geratu eta arantzatzko horrekin joan nintzen finalera. Finaleko sentsazioak, gozo-gaziak izan ziren, ordena horretan. Izan ere, oso eroso hasi nintzen, zortziko handian disfrutatuta egin nuen Viñasprekin eta pixkanaka gerotz eta tentsio handiagoarekin ikusi nuen neure burua. Hala, sentsazio gazi batekin bukatu nuen finala, azkeneko lana, bakarka, ez nuelako disfrutatuta. Kolektiboki, Manexek esan duen moduan, final txukuna eskaini genuen seiok.

Finalean ere, parte-hartzaileen herenak aramaiorak.

M.A.: Askok azpimarratu den kontu bat da Aramaioko parte-hartzaile kopuruarena. Horrek zerbait adierazten badu da talde homogeenoa bat garela; talde aberatsa garela, oso estilo ezberdinetako bertsolariak gaudelako bertan eta txapelketan inplikatu egiten garela talde

moduan, dagokion garrantzia ematen diogula txapelketari berari.

X.I.: Pixkanaka-pixkanaka, bagabiltza geroz eta jende gehiago batzen gure bertso-eskolako familia honetan. Txapelketan parte hartu dugunoz gain, badaude hiru talde Aramaioko bertso-eskolan eta hiruetan nahiko jende kopuru polita daukate. Hori, urteetan egindako lanaren seinale da eta ederra da horrelako herri txiki baten bertso-eskolak halako presentzia edukitzea. Horrek aberasten gaitu.

Arabian ere, bertsolaritza badoa hauspoa hartzen, pixkanaka.

M.A.: 90eko eta 2000ko hamarkadan aparra bezala igo zen bertsolaritza Araban, eta ordutik mantendu egin dela esango nuke. Momentu bat iritsi da egonkortu egin dela, badirudi gure neurria edo aurkitu diogula. Beti daukagu gogo hori gorago joateko, baina hankak lurrean ere eduki behar dira. Beti daude erronka berriak, momentu honetan, umeengan ematen den transmisio hori lantzen ari gara. Zentzu horretan, elkarte lan handia egiten ari da eta lortuko dugula uste dut.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

Familia

Begiratzen jarrita, familia mota desberdinak daudela ikusi dezakegu. Ez nabil odolezko familiei buruz, ezta legalei buruz ere, nireak beste familia batzuk dira: familia sozialak, guk sortzen ditugunak, aukeratutakoak. *Radikal* jarrita esango nuke familia sozialik gabe ez ginatekeela existituko eta beste guztiak soziala den zuhaitzaren adarrak besterik ez direla. Testuan zehar definiziotan itotzea errazena izango litzateke. Seguruena ere, baina gaur harago joateko beharra dut. Oroitzapen batek gaiz aldatzera behartu eta Gasteizko Printzipal antzokira eramane nau. Familiar sentitzea erraza izan zelako belus granateko pareta horien artean. Azaleko ile guztiak tente jartzea lortu eta batu gintuztelako. Modu askotan ezin daiteke definitu tabladu gainean igo ziren lagunei diedan miresmena. Ikaragarria delako noraino iristen diren ikustea, eta ikaragarriago parte izatea. Lehenak ez ginen izan, baina hain harro sentitzea seinale ona besterik ezin daiteke izan. Iceberg baten punta ikustea bezala izan zen, izotzaren parte garela ikusiz. Akaso familiarena ez duzu ulertu, baina nik esaldietako lehenengo letra begiratzera gonbidatzen zaitut.

Trikitixa Eskolaren kontzertua izango da gaur kultura etxean

Aramaioko Trikitixa Eskolaren kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, 18:30ean, kultura etxean. Sarrerak hiru euro balioko du eta Korrikari laguntzeko izango da batutako dirua.

Kontzertu hau egingo den laugarren urtea da eta, Aritz Alustiza irakasle eta antolatzailearen esanetan, adin-tarte zabala izango du emanaldiak. "Umeak, gazteak zein helduak, adin-tarte guztietako partaideak izango dira oholtza gainean", azaldu du. Guztira 35-40 parte-hartzaile inguru izango dira.

Horrez gain, pianoa, bateria, baxua eta gitarra ere egongo dira, "beste formatu" bat eskaintzeko helburuarekin.

Herriko pilotariak lau partidu jokatu dituzte domekan

Aramaioko Pilota Elkartek antolatuta, herriko hamasei pilotarik lau partidu jokatu dituzte domekan herriko kiroldegian, 11:00etan hasita.

Maila guztietako pilotariak izango dira, benjaminetatik hasi eta nagusietaraino. Josu Olaiola elkarte kidearen esanetan, euren arteko harremanak sendotzea da jaialdiaren helburua.

Basurdeek eragiten dituzten kalteak hizpide gaur Sastiñan

Gaur, egubakoitza, *Basurdeek eragiten dituzten kalteak nola kudeatu* izeneko hitzaldia egongo da Sastiñan, 19:00etan, Florencio Markinaren eskutik. Markinak basurdeek eragindako kalteen zergatia eta konponbidea aztertuko du. Gainera, egungo populazioaren egoera, ehizaren garrantzia eta gaiarekin lotutako beste aspektu batzuk ere aztertuko ditu. Auzo ezberdinetan basurdeekin dauden arazoak ikusita, Udalak dei egin du ahalik eta jende gehien gertura dadin, hitzaldia oso erabilgarria izango delakoan. Baserritarrei, ehiztariei, mendizaleei eta naturarekiko interesa duen edozeini zuzenduta dago hitzaldia.

Erretiratuek bisita gidatua eta eskolako haurrek, musika

Apirilaren 25ean, martitzena, Aramaioko bisita gidatua egingo da Ibarra, karobia eta Andra Mari-, Jubilatuen Elkartek antolatuta. 10:30ean izango da.

Bestalde, apirilaren 27an, eguena, San Martin eskolako haurrek San Prudentzio zaindarien abestia eskainiko dute, urtero legez, batzuk abestuz eta beste batzuk txirula eta danborra joz.

Ibarra kiroldegia: 423.000 euroko kalteak

Otsailaren 13an izandako haizeteak eragindako kalteei zenbatekoa jarri diete perituek. Guztiari egin beharko dio aurre Udalak, eta, horretarako, bi aukera ditu; dena den, erantzukizunak eskatuko dizkie arkitektoei eta obraren arduradunei

Mirari Altube ARETXABALETAK

Aldamioak daude kiroldegiaren barruan eta kanpoan otsailaz geroztik. Babesteko jarrita daude eta laster lanean hasiko dira horien gainean. Fatxadan jausi gabe geratutako kristal xaflak kenduko dituzte, hain zuzen, datozen egunotan.

Ia bi hilabete bete direla, haizeteak eragindako kalteen kostuaren berri eman du Unai Elkoro alkateak: 423.000 euro. "Fatxada, sabai-leihoak, solariumekeo belarra, sabaia eta eguzki plakak hondatu ziren eta horien guztien kostua 423.000 euro da", dio Elkoro.



Ibarra kiroldegia aldamiok. M.A.

Soberakina edo finantzaketa

"Bai proiektua, bai obraren exekutua ondo begiratuko ditugu. Eraikitze garaian akatsak egon zirela uste dugu eta erantzukizunak eskatuko ditugu orain", argitu du. Kontu horrek, baina, luze joko du, eta, bien bitartean, Udalak egin beharko dio aurre kostuari. Eraikinaren aseguruia, gainera, ez zegoen behar bezala eginda: "Eraikin berriaren balioaren %5 bakarrik dago aseguraturuta; hau da, kirol etxe zahararen katastroaren balioa". Hori horrela, dirutza hori ordaintzeko bi bide aztertzen dabilta: soberakina eta kiroldegiaren

finantzaketa luzatzea. "Beste bi ordainketa gehiago egiteko sei hilabetean luzatzea litzateke. Bi aukerak gabilta aztertzen".

Kristalaren ordeztu txapa

Aste Santuaren bueltan kenduko dute fatxada, "beste haizetearen batek arazo gehiago sor ez dezan". Eta horren ondoren hasiko dituzte lanak. "Sabai-leihoak aldatzeko bidrioak eskatuta ditugu dagoeneko, baina denbora beharko dute fabrikatzeko".

Kiroldegiaren fatxadaren kristalezko xaflen ordeztu zer jarri ez

dute erabaki oraindik: "Lehen bezalako ezer ez dugu jarriko, emaitza zein izan den jakinda. Gure asmoa litzateke txapazko sandwich bat jartzea, baina arkitektoekin sinatutako kontratua begiratu behar dugu aurretik. Izan ere, ez dugu gura horren diseinua egindako arkitektoak jabetza intelektual eskubideak arrazoituta trabak jartzen etortzerik".

"Ondo bidean", udan eguzkia hartzeko solariuma erabiltzeko moduan izango dela uste du alkateak.



M.A.

Pintaketak garbitzen hasi dira

Pintaketa mordera egin dituzte azken hiru hilabeteotan herriaren erdiguneko hainbat eraikinetan; batzokian eta Pagaldaixenean, besteak beste. Horiek garbitzeko agindua eman du Udalak egunotan, eta dagoeneko hasi dira. Unai Elkoro alkateak adierazi du 10.000 euro inguru bideratu beharko dituztela horretarako.

Isidoro Uribealgoren gaineko liburuxka argitaratuko dute

Haren biografia eta obrak jaso ditu Aitor Antxia Leturiak eta apirilaren bukaeran aurkeztuko dute

M.A. ARETXABALETAK

Orain dela 144 urte jaio zen, herriaren hegoaldeko sarreran dagoen Errotabari errota. Isidoro Uribealgo Guruceta. Haren biografia eta lanak aztertu ditu herriko historia kontuetan aditua den Aitor Antxia Leturiak -anaia Keparen eta arreba Amaia-aren laguntzarekin- eta apirilaren bukaeran liburuxka argitaratuko dute.

Hiru urte Erroman

Gaztetatik izan zen trebea eskulanetan, batez ere, marrazkiak

egiten eta buztina lantzen. Marianisten ikastetxean egin zituen lehen ikasketak, eta gero, Gasteizera bidali zuten. Osaba Julian Zalañarekin Erromara joan zen bidaian eta hango eskulturekin maitemindu zen. Horregatik, bertan geratzea erabaki, eta Arte eta Lanbideen Eskolan eman zuen izena. Gipuzkoako Diputazioaren beka lortu zuen eta hiru urtean egon zen Erroman. Hark egindako obraren artean daude Urretxuko plazako Urdañetaren eskultura eta Aretxabaleako parrokiako kristoa.

Pilotalekuko sabaiaren konponketa

Iturrigorri pilotalekuko sabaiaren dagoen zuloa eta beste itogin batzuk konpontzeko lanak ere egunotan hasiko dituzte. Datorren astean kendu egingo dute orain dagoen sarea, eta beste bat jarri, langileek lan egin ahal izateko. Sabai guztia berrituko dute lehenengo, eta gero, margotu. Lanak maiatzaren erdirako bukatuta izango dituztelakoan daude.



Zuloa, Iturrigorri pilotalekuko sabaiaren. M.A.

Erramu Domekako elizkizunekin Aste Santuari ongi etorria

Elizkizun ugari izango dira egunotan Andre Mariaren Zeruratze parrokiaren Erramu Domeka ospatzeko bi eukaristia egingo dituzte: bata, zapatuan, 19:00etan, eta bestea, domekan, 11:00etan. Eta horiek emango diote hasiera Aste Santuari.

Astelehenean, apirilaren 10ean, elkarteko penitentzia izango da, 19:00etan, eta hilaren 13an, Eguen

Santuan, azken afariko eukaristia; hori ere, 19:00etan.

Egubakoitz Santuan goresprenak otoitz egingo dituzte 09:00etan, eta gero, azken urteotan lez, gurutze bidea Izurieta auzora, 11:00etan. Arratsaldean, ostera, Jaunaren nekaldiko ospakizuna izango dute, 19:00etan.

Zapatua ere goresprenak otoitz eginda hasiko dute, 09:00etan, eta 21:00etan, Pazko Gaubeila izango da. Aste Santua agurtuko dute Pazko Igandeko meza nagusiarekin, 11:00etan.

Euskara ahoan izateko aitzakia gaur eta bihar

Korrika Txikia hasiko da girotzen gaur herriko kaleak; hiru ikastetxeek bat eginik jardungo dute erdigunean lasterka. Lekukoa, baina, bihar pasatuko da, 13:37ren bueltan, eta ondoren jaiak jarraitu egingo du herri bazkariarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Pausoz pauso badator 20. Korrikaren lekukoa Debagoienara; egunotan euskara ahoan izateko aparteko aitzakia. Lekuko ofizialaren aurretik Korrika Txikiarena ibiliko da eskuz esku eta kalez kale; gaur da hori, 10:30ean hasita.

Bi urtekoek emango diote hasiera Pausoka parean eta hiru ikastetxeetako ordezkariak eramango dute lekukoa lehen metroetan. Ondoren, Haur Hezkuntzakoek hartuko dute, eta Herriko Plazaraino eraman. Bigarren buelta Lehen Hezkuntzakoek egingo dute eta plazara iritsita-koan egingo duten ekitaldiarekin bukatuko dute Korrika Txikia.

Iluntzean, ostera, Ihara eta Alberdi bikoteak eta *Trigger*, Eñaut Zubizarreta, txelo-joleak jardungo dute Pagaldaixenean; taberna ere egongo da.

600 lagun bazkaltzeko

Bihar, goizean goizetik izango da jai giroa kaleetan: doke txapelketa, dantzak, buruhandiak eta gaiteroak... Argazki erraldoia ere aterako dute. 13:30ak eta 14:00ak bitartean pasatuko da lekukoa Aretxabaletatik eta hamabost taldetako ordezkariak eramango dute hiru kilometrotan. Herritik alde egin eta gero ere jaiak jarraitu egingo du. *Zuk ekarri, zuk jan* bazkarirako 600 lagunek eman dute izena, hortaz, plaza bete-bete eginda izango da. Eta bazkalostea herriko trikitilariak girotuko dute. Korrika batzordeko kideek hainbat aholku eman gura izan dituzte: "Pazientziak jokatu, jende asko izango gara eta. Mahaiak txukun jaso eta antolatzaileei lagundu. Eta hondarrak dagokien lekura bota".

Eguneko ekitaldiak musikarekin bukatuko dituzte. Jasan eta D-skarga taldeak eta AZ Gaubelak izango dira besteak beste, ilunkera girotzen.



Joan den zapatuan Orkatzategin Korrikaren etorreraren berri ematen. M. BERRIZBEITIA

Egitaraua

Apirilak 7

- **10:30** Korrika Txikia: Haur Hezkuntzakoak: Pausoka, Andramari, Mitarte kalea, Durana kalea eta Herriko Plaza. Lehen Hezkuntzakoak: Herriko Plaza, Errekabarren, Pausoka, Loramendi, Bizkaia kalea, Araba ibilbidea, Mitarte, Durana eta Herriko Plaza.
- **19:00** Taberna eta kontzertu akustikoak Pagaldaixenean: Ihara&Alberdi eta *Trigger*.

Apirilak 8

- **10:00** Diana, dokea, dantza, buruhandiak, gaiteroak, argazki erraldoia...
- **13:37** Korrika badator!
- **14:30** Herri bazkaria eta erromeria Herriko Plazan.
- **19:00** Musika emanaldiak Pagaldaixenean: Jasan, D-skarga, AZ Gaubelak...

Lekuko aldaketak

Lekuko aldaketak non eta noiz izango diren eta zeintzuek eramango duten.

Arrasateko biribilgunea (13:37)

- Udala
- EAJ
- EH Bildu
- Murruxo MT
- Emakume taldea

Otalora kalea: Bedarretako arrandegia (13:43)

- Aretxarte elkarte
- Loramendi elkarte
- Kurtzabarri eskola
- Arizmendi ikastola
- Pausoka haur eskola

Araba ibilbidea: Zaraia taberna (13:50)

- UDA
- Arteman
- Copreci
- Assembly
- Lanbide Eskola

Gaztekonkis eta 'Goza topera oporretan!' egitasmoak beteta

Datorren asteko opor egunetarako Gazteria Zerbitzuak abian jarritako aisialdi egitarauak bete egin dira

M.A. ARETXABALETA

Lehen Hezkuntzakoei, 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei, lehenengo egin diete Aste Santuko opor egunetarako eskaintza. Eta ez dute hutsik egin horiek; lehenengo mailatik laugarren mailara arteko taldeak (hamabost lagunekoak) bete egin dira: "Eta itxaron zerrendan geratu da gainera jendea", adierazi du Mainer Etxaniz gazteria teknikariak. Eta bosgarren eta seigarren mailetan oraindik bada-goela lekua jakinarazi du. *Goza topera oporretan!* izenarekin

natura, teknologia eta sukaldaritza uztartuko dituzte astelehenetik eguaztenera bitartean.

Zazpi talde Gaztekonkisen

Gaztetxoek, 12 eta 16 urte artekoek, ostera, Gaztekonkis ekimena dute, hirugarrenez. Eskoriatzako eta Aretxabaletako zazpi taldek eman dute izena: "Eta azken egunotan eta azken orduan oraindik gehiagok emango dute", dio Etxanizek. Astelehenean Gaztekonkis egingo dute mendi inguruan, eta martitzenean, Gaztetxep pilotalekuan.



INMA MIGUEL

Maren Martin, Andorrara begira

Euskadiko judo txapelketa jokatu berri da eta Arrasateko Judo Klubeko kide Maren Martin aretxabaletarra bigarrena izan da –argazkian, Julio Gallego entrenatzailearekin–. Denboraldi bikaina egiten dabil, aurretik Gipuzkoako txapelketa irabazi du eta. Bihar, zapatua, Pauera (Frantzia) doa eta hilaren 23an nazioarteko txapelketa jokatuko du Andorran.

Jou Diaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Futbol topaketa bereziak egingo dira, neskendako

Hilaren 10ean eta 11n izango dira topaketak, Ibarra futbol zelaian, Real Sociedad Fundazioko entrenatzaileen eskutik; gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna eta bertan parte hartu ahal izango dute 8 eta 12 urte bitarteko neskek

Amaia Txintxurreta ARETXABALETA Arizmendi Kirol Elkarteak antolatuta, eta Mondraren eta UDAREN laguntzarekin, lehen aldiz bailaran neskendako futbol topaketa bereziak antolatu dituzte, eta, bertan, Real Sociedad Fundazioko entrenatzaileak egongo dira, Realean erabiltzen dituzten ariketak bertaraten diren emakumezko futbolarietarako erakusteko asmotan.

Topaketen helburua da Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasi eta 6.era bitarteko neskei futbolaz gozatzeko aukera bat ematea, futbola gertutik erakusteko eta, gustatuz gero, etorkizunean kirol hori ikasten jarrai dezaten bidea zabaltzeko. Izan ere, topaketetan parte hartzeko ez da beharrezkoa futbol talderen bateko kide izatea, eta inguruko herrietako edozein neskatilak eman dezake izena hilaren 10ean eta 11n, astelehenean eta martitzenean, Ibarra futbol zelaian egingo diren topaketetan parte hartzeko. 10:00etatik 12:00etara bitartean izango dira saioak bi egun horietan.

Egoeraz kezkatuta

Topaketak antolatzeko ideia sortu da bailaran emakumezkoen futbola azkenaldian "gainbehera" egoeran dagoela ikusi dute-lako. Horixe adierazi du Arizmendi Kirol Elkarteko ardura-dunetako batek, Urtzi Amianok. Gaineratu du Realekoekin harrimantetan jarri zirenean haiengandik baiezko erantzuna segituan jaso zutela. Neska "gutxi" dabilta futboleko gaur egun bailaran, eta, orain arteko esturktura mantendu nahi dutenez, futbola kirol gozagarria dela erakutsi nahi dute topaketa horien bitartez. "Nahi duguna da edozein neskek ikustea 8 urterekin aukera izango duela, adibidez, 40 urtera arte futboleko jokatzeke, eta bailaran daukagun futboleko esturktura orain arte



Arizmendi/UDako alebinak, Gabonetako torneoa jokatzen. MIRARI ALTUBE

bezala mantendu nahi dugu", adierazi du. Duela hiru bat urte antolatu zituzten antzerako topaketak, baina oraingoak balio erantsia du: Real Sociedad Fundazioko entrenatzaileak izango direla.

Izena emateko

8 eta 12 urte bitarteko neskek hartu ahal izango dute parte eta izen-ematea webgune honetan egin beharko da gaur, egubakoitza, gaua baino lehen: www.arizmendi.eus.

"Balio oso onak transmititzen ditu futbolak"

URTZI AMIANO ARIZMENDI
KIROL ELKARTEA

Gertutik ezagutzen du Urtzi Amianok zein den emakumezkoen kirolaren egoera inguruan.

Nola ikusten duzu emakumezkoen futbola Debagoienean?

Gainbehera txiki bat izan duela esango nuke, eta, egoera horretan, alarma jarri beharrean gaude; hala ere, badoa aurrera. **Aretxabaletan osasuntsu dago emakumezkoen futbola, zure ustez?**



GOIENA

Hiru mailako taldeak dauzkagu: alebin-infantil mailakoak, kadeteak eta nagusiak. Neska asko mugitzen dira, baina beste sasoi batzuetan talde gehiago ere izan ditugu.

Zergatik animatu futboleko jokatzerara?

Talde kirola da eta balio oso onak transmititzen ditu. Halako topaketekin, gainera, etorkizuna bermatzen saiatzen gara euskal futboleko.

Patinaje ikastaroa eta puzgarriak egongo dira Pazko astean

Hilaren 18an eta 19an izango da patinaje ikastaroa, Ibarra kiroldegian. Bertan parte hartu ahal izango dute 4 eta 14 urte arteko neska-mutikoei eta izena eman beharko da hilaren 10erako. Abonatuak debalde sartu ahal izango dira; besteek eguneko sarrera ordaindu beharko dute. Puzgarriak 20an egongo dira, 16:30etik 19:15era.

1967ko kintoei irteera egingo dute maiatzaren 13an

Zumaian egun-pasa egingo dute, maiatzaren 13an, 1967an jaiotako kintoei. 11:00etan aterako da autobusa, eta, Zumaian poteoa egin ostean, Marina Berri jate-txean bazkalduko dute. 19:00etan izango da bueltarako autobusa. Izena eman beharko da Gurea tabernan edo 50 euro sartu beharko dira Laboral Kutxan: ES81 3035 0002 19 0020070722.



Ikasleak eta irakasleak areto nagusian bertako liburuak irakurtzen. MIRARI ALTUBE



Ekzerretik hasita bigarrena da aipamen berezia jaso duen Iturriotz. KURTZEBARRI ESKOLA

Irakur Maratoia egin dute, beste urte batez, Kurtzebarri eskolan

A.T. ARETXABALETA

Joan zen asteke eguaztenaz geroztik, poesia ardatz duen 26. Literatura Astea ospatu dute Kurtzebarri. Eta eguazten honetan, urtero bezala, Irakur Maratoia egin dute. Areto nagusia irakurketarako txoko bihurtu dute eta han aukera izan zuten ikasleak, irakasleak, gurasoak, eskolako langileak eta herritarrek elkartzeko. Literatura Asteari amaiera borobila emateko, poesiak hainbat hizkuntzatan irakurri dituzte.

Bertso paperak

Bestalde, Oñatin, martxoan egin zen Bertso paperetako Eskolarteko Topaketan ere parte hartu zuten Kurtzebarri eskolako 4. eta 6. mailako ikasleek. Guztira 34 ikastetxetako 964 ikasle elkartu ziren topaketa horretan, eta, horien guztien artean, Etxahun Iturriotz Kurtzebarriko ikasleak aipamen berezia jaso zuen. Kurtzebarri eskolako komunitatea osatzen duten guztien partetik Iturriotz zoriondu nahi izan dute.

Zapatu eguerdian pasako da Korrika Eskoriatzatik

Motorrak berotzen joateko ekintza ugari egin dira egunotan: Korrika Txikia, Eskoriatzako euskararen erabileraren neurketa datuak aurkeztea eta 'Herrigintzaz eta irrigintzaz' saio umoretsua, besteak beste. Hala, bihar ere egitarau zabala egongo da

Imanol Beloki ESKORIATZA

20. Korrika pasa den egunean hasi zen, Otxandion, eta zapatuan 14:00 aldera zeharkatuko ditu Eskoriatzako kaleak. Herriko eragile eta talde desberdinetako ordezkariak egitarau ederra prestatu dute egunerako, eta prestatutako ekimen guztietan herritarren parte-hartzea eskatu dute.

Zapatuari hasiera emateko, 11:30ean, Postaka giza katea egingo da. *Intxaurtxuetatik Aranburuzabalaraino euskara eskutik eskura* lelopean, herritarrekin herri osoa zeharkatzen duen katea osatu nahi da. Eskoriatzako Korrika batzordeko Xabi Uriarte kidearen esanetan: "Ez da erraza izango herriko punta batetik bestera heltzea; horregatik, herritar guztiak animatu nahi ditugu. Plazan elkartuko gara lehenengo eta bertatik banatuko gara. Asmoa da Korrika aurretik herria girotzea, eta, bide, batez denok euskararen alde elkartzea..."

12:15ean, berriz, Korrikaren aldeko mezua irakurriko da, eta ondoren, euskal dantzak izango dira plazan. Gainera, goiz osoan zehar taloak jateko aukera ere izango da herriko talogileen eskutik.

Korrika eguerdian helduko da

14:00 bueltan Korrikak Eskoriatzako kaleak zeharkatuko ditu, Intxaurtxuetatik sartuta, Leintz Gatzagarako bidea hartuz. 15:00etan, *Zuk ekarri, Zuk jan* bazkaria izango da plazan, eta, erreserba egitea derrigorrezkoa ez bada ere, antolaketa lanak erraztearren, nahi duenak mahaian lekua erreserbatu ahal izango du. Bazkalostean, Beñat Intxauspe zarauztarrekin euskal abestien kantaldia izango da. 18:00etan, buruhandiak irtingo dira kalera, eta 19:00etan, TTeK elektrotxarangarekin itxi-ko da zapatuko egitaraua.



Duela bi urte Korrika Eskoriatzara heltzen zebilela, Ederlan parean. GOIENA

Korrika Txikia 10:30ean hasita

Beste hainbat ekintza ere izan dira Korrika berotzeko. Korrika egunaren bezperan, herriko ikas-tetxeetako Haur Hezkuntzako haurrek eliza paretik plazarainoko bidea egingo dute. Ondoren,

Lehen Hezkuntzakoek honako ibilbide hau egingo dute: Jose Arana zaharren egoitza, Antsoategiko biribilgunea, Sorautz, San Juan kalea, Dorleta auzoa, Aranburuzabala eta Herriko Plaza.

Euskararen kale erabilera

Atzo, berriz, Eskoriatzan egindako kale erabileraren neurketaren datuak aurkeztu zituzten Zaldibarren. Lehenengo neurketa espezifikoa 2003. urtean egin zen eta harrezkero bi urtean behin egin da neurketa. 2011. urtean, aldiz, erabaki zen neurketa bost urtean behin egitea, Euskal Herrian egiten den urte berean. Honako datu hauek helarazi zituen Olatz Altunak, Soziolinguistika Klusterreko teknikariak: 2016ean, %37,50ek euskaraz, %59,90ek gaztelerez eta %2,60k beste hizkuntza batean. Euskaldun kopurua, berriz, %58,80 zen. Bestalde, adinaren arabera sailkatuen artean, gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, %55,9k, eta 65 urtetik gorako adinekoak gutxien: %19,8k, batez beste. Datuak eman ostean, amaitzeko, Jose Mari Agirretxe *Porrotx-ek Herrigintzaz eta irrigintzaz* saio umoretsua eskaini zuen.

Lekukoa eramango dutenak

Ederlaneko biribilgunea (13:56)

- Ederlan

Herriko sarrera (14:02)

- EH Bildu, Atxorrotx Kultur Elkarte eta Arizmendi

Huhezi parean (14:09)

- EAJ

Aingeru Guardako biribilgunean (14:15)

- Udala

Kuatuena (14:22)

- Luis Ezeiza

Trenbide zaharreko zubi azpian (14:28)

- Huhezi

Herritarrekin komunikazioa hobetzeko aplikazioa

Udalaren albisteak jasotzeko, kultura agenda eskuratzeko... mugikorretarako app-a martxan da

I.B ESKORIATZA

Pasa den astea ezker martxan da Eskoriatzako Udalaren aplikazio berria. Udalak herritarrekin komunikazioa hobetzeko asmoarekin, zerbitzu elektronikoak gehitu ditu udal app-a martxan jarrita.

Android eta iOS sistema eragileak dituzten mugikorren aplikazioak eskuragarri dago jadanik, eta, aplikazio honekin, herrian gertatzen denaz herritarren informatuta egotea da asmoa. Iaz, herriko jaien programari buruzko informazio guztia eskuratzeko aplikazio bat jarri zen martxan, eta edozein ustekabe, ordu aldaketa... gertatzen bazen hitzorduren batean, bertan abisua jasotzen zen. Orain, aurkezten den app-an, berriz, Udalaren albisteak eta kultura agenda erraz eskuratzeko aukera ematen duen garapen berritzailea izateaz gain, jakinarazpenak jasotzeko ere balio izango du. Esate baterako, trafikoa eragina izango duten lanak... Gainera, erabiltzaileek oharrak egin edo kezak eta iradokizunak bidali ahal izango dizkiote Udalari.

Gutxitasun sentsorial edo fisikoa dutenak ere oporretara

Udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan tramitatu beharko da eta eskaera aurkezteko azken eguna apirilaren 21a da

I.B ESKORIATZA

Elkartuk (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea) 2017rako bidaia ezberdinak antolatu ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua laguntzaile duela. Hala, desgaitasun fisiko, organiko edo sentsoriala dutenak opor batzuekin disfrutatu ahalko dute.

Eskoriatzako udaletxeko Gizarte Zerbitzuetara, 943 71 31 36 telefonora, deituta edo *agurtzane@eskoriatza.net* helbidera idatzi

tzita tramitatu daiteke. Bestalde, informazio gehiago nahi duenak Elkartzura deitu dezake, 943 31 67 70 telefonora, edo webgunean kontsultatu. Eskaera egiteko azken eguna apirilaren 21a izango da eta aurkeztu beharreko dokumentua honako hau da: eskaera orria behar bezala beteta, minusbalotasun agiriaren fotokopia eta diru sarreraren frogagiriaren fotokopia. Eskaera kopurua plaza kopurua baino handiagoa balitz, hautatutako eskaeren artean zozketa egingo litzateke.



Oporraldirako eskaintza haur eta nerabeentzat

Txirikila aisialdi elkarteak eta Udalak antolatuta, Lehen Hezkuntzako haurrek hiru egunez ekintza mordoa izango dituzte. Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuetako nerabeek, berriz, Gaztekonkis eta Gaztetxef lehiaketak egingo dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Aste Santuko oporraldirako haur eta nerabeentzat eskaintza zabal izango da lehen aldiz Eskoriatzan. Eskoriatzako Udalak eta Txirikila elkarteak elkarlanean 6-12 urte (LH1-LH6) bitarteko haurrei zuzendutako programa antolatu dute apirilaren 10, 11 eta 12rako, eta dagoeneko 23 haurrek eman dute izena. Lau begiralek kudeatuko dute oporraldia, eta eguraldiaren arabera moldagarria izan daitekeen plangintza antolatuta dute.

Lehenengo egunean, mahai jolasak eta igeriketa izango dituzte; bigarren egunean, berriz, sukaldaritza tailerra eta ginkana. Azkenik, hirugarren egunean, bizikletan edo patinekin irteera egingo dute. Maialen Lete begiralearen esanetan: "Izena ematen dutenak zikloka banatuko ditugu, bi taldetan, eta helburua, nola ez, ondo pasatzea izango da. DBHko lehen mailatik lau-



Txirikilako begiralea haurrekin tonbolan. GOIENA

garren mailara bitarteko haurrek eman dute izena; izan ere, egun beretan, beste hainbat eskaintza daude Eskoriatzan. Esaterako, areto-futbol campusa. Edozelan ere, oraindik izena emateko aukera dago".

Izen-ematea zabalik

Izena eman nahi duenak aukera izango du oraindik horretarako. Goizetan kultura etxera joanda edo arratsaldean Tortolis ludotekara joanda egin daiteke. Prezioa 20 euro da.

Gaztekonkis eta Gaztetxef

Eskoriatzako eta Aretxabaletako nerabeentzat, berriz, apirilaren 10ean eta 11n izango dira hainbat ekintza. Apirilaren 10ean, Gaztekonkis egingo dute Urkulun 10:00etatik 18:00etara bitartean. Bost kidez osatutako taldeak egingo dituzte; Urkulura bidean hainbat proba egin beharko dituzte parte-hartzaileek.

Apirilaren 11n, berriz, Gaztetxef egingo dute 11:00etatik 17:00etara bitartean. Ginkana bidez bazkarirako osagaiak eta tresnak lortuko dituzte. Ondoren, Aretxabaletako Iturrigorri frontoian bazkaria prestatuko dute, eta bertan bazkaldu. Bazkalosteko argazki emanaldiarekin bukatuko da lehiaketa. Horren ostean, amaitzeko, hiru sari banatuko dituzte bertan: irabazlearentzat, bigarren sailkatuarentzat eta talde ereduariarentzat, hain zuzen ere.



Badator udaberriko Gaztekonkis

Nerabeei zuzendutako hirugarren edizio honetan, Gaztekonkis Urkulun egingo dute, apirilaren 10ean, Eskoriatza eta Aretxabaletako gaztelekuetako gazteek. Hainbat proba egingo dituzte egun osoan zehar, ETB2ko *El Conquis* programa erreferentzia moduan izanda.



LEKAIKOKA BERTSO ESKOLA

Oihana Aranarentzat txapela

Joan den domekan jokatu zen Azepeitiko Soreasu aretoan Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, eta 15 urteko Oihana Arana eskoriatzarra izan zen garaile. Eskoriatzarrak lehenengo finalean lortu du txapela janztea. Hain zuzen, orain dela hilabete gutxi hildako Juan Mari osabari eskaini zion, baita Haizea ahizpa bikiari ere.



Hezkuntza Foroak antolatutako azken irteera, Gebarara. HEZKUNTZA FOROA

Mendi irteera Gorbeiaiko Mairulegorretako kobazulora

Apirilaren 9an, 09:30ean, Huheziko aparkalekutik irtengo dira bertara joan nahi dutenak

I.B ESKORIATZA

Eskolore pausoz pauso: Makila eskuen eta ibili basuen ekimenaren barruan, Eskoriatzako Hezkuntza Foroak antolatuta Arabara joango dira; hain zuzen ere, Zigoitiko udalerriko Gorbeiaiko Mairulegorretako kobazulora mendi irteera egingo dute.

Irteera apirilaren 9an izango da, domekan, Huheziko aparkalekutik irtenda, goizeko bederatzietan eta erdietan. Ez dago aurrez izena eman beharrik, baina bertara joateko hainbat baldintza bete beharko dira: frontala era-

man beharko da, autoz joan beharko da eta haurrak ezingo dira bakarrik joan.

Azken irteera, arrakastatsua

Orain dela hilabete, Hezkuntza Foroak antolatutako azken irteera Gebarara izan zen, eta bertara 30 lagun inguru joan ziren.

Gebara-Gaztelua-Aldaia-Etura-Gebara bidea egiteko hiru ordu behar izan zituzten, eta egun ederra pasatu zuten. Hala, domekako irteerarako gonbidapena egin die Hezkuntza Foroak herritarrei.

"Balioak, elikadura eta kirola sustatuko ditugu"

ARATZ KORTAZAR KOORDINATZAILEA

Areto futbola sustatzeaz gainera, eguneroko balioak, ondo elikatzeko hainbat ezagutza eta joko ezberdinak izango dituen campusa izango da oporraldian

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Kirol Elkartek antolatuta, Areto Futbol Campusa izango da apirilaren 10ean, 11n eta 12an. Kirola eginaz disfrutatuz, hainbat ezagutza ikasteko antolatu dute oporraldiko egitasmo hori, eta gaur izango bertan izena emateko azken eguna.

Zer egingo duzue Areto Futbol Campusean?

Hainbat ekintza prestatu ditugu hiru egunetarako. Lehenengo egunean, campuserako apropos egin ditugun kamisetak banatu dizkiegu partaide guztiei, eta ezagutze jolasak egingo ditugu, 10:00etan hasita. Horren ondoren, olinpiadak egingo ditugu herriko txoko ezberdinetan zehar proba ezberdinak jarritz. Arratsaldean, berriz, bi taldetan banatuta, batzuk igerilekura joango dira eta beste batzuei elikadura onaren hainbat zehaztasun emango dizkiegu joko bitartez.

Gaztetxoei hainbat balio transmititzea da helburua?

Batez ere, areto futbola sustatzeko prestatzen dugun ekimena da, baina eguneroko balioak ere transmititzen saiatuko gara, eta, aipatu bezala, elikadura osasuntsua egiteko, elikagaien inguruan ere hitz egingo diegu;



Aratz Kortazar. GOIENA

horretarako, egunero egingo dugun hamarretakoa ere erabiliko dugu.

Zein beste ekintza egingo dituzue?

Bigarren egunean Atxorrotxera mendi irteera egitea da asmoa, ea eguraldiak laguntzen digun. Ondoren, Almenen bukatuko dugu mendi buelta, eta bertan bandera jolasa egingo dugu. Hirugarren eta azken egunean, berriz, kiroldegian izango gara, batez ere. Gaztetxoek kirol elkarteko jokalariei eta entrenatzaileekin egoteko aukera izango dute, sortzen zaizkien galdera

guztiak egiteko. Amaitzeko, hiru txapelketa egingo dugu eta sariak banatuko dizkiegu.

Ez da lehenengo edizioa; iaz baino arrakastatsua izatea espero duzue?

Aurtengoa bigarrena da. Iaz gaizki egin genituen gauzak beste batzuekin ordezkatu ditugu, eta ondo egindakoak, berriz, mantendu. Berrikuntzak onerako izan direla uste dut eta izena ematen dutenek bikain pasako dutelakoan nago.

Izema emateko zer egin behar da?

Plazak mugatuak dira, baina oraindik lekua dago eta gaztetxo guztiak animatu nahi ditut etortzera, oso ondo pasako dute eta. Kiroldegian bertan 25 euro ordainduta egin daiteke izen-ematea.

Begirale lanetan zeintzuk arituko zarete?

Nik koordinatzaile lanak egingo ditut, baina kirol elkarteko areto futbola talde ezberdinetan ari diren bost jokalariei egongo dira gaztetxoekin begirale lanetan.

Gaineratzeko besterik?

Eskerrak eman nahi dizkiet campusa aurrera eramaten lagundu diguten babesle guztiei. Eta gaztetxoei, berriz, izena eman dezatela, bikain pasako dutelako Eskoriatzako Areto Futbol Campusean.



Eskoriatza aldetik sartuko da Korrika herrian. GOIENA

Euskararen aldeko pausok beteko dute Leintz Gatzaga

Korrika ekimena bihar iritsiko da herrira, 14:30ak pasata. Lehenago, Korrika Txikia egingo dute umeek

Maite Txintxurreta BERGARA

Azken edizioan Korrika ekimena Gatzagatik igaro ez bazen ere, aurten bai, eta herritar askok eta askok gogo eta ilusio handiz egingo diote ongietorria euskararen aldeko ekimen handi honen 20. edizioari.

Antolatzaileek aurreikusten dute 14:35ean iritsiko dela Korrika Leintz Gatzagara, Marulandara, zehazki. Herria gurutatu, eta aldapan gora jarraituko du Gatzagaineraino, harik eta mugara iritsi arte. Arratsaldeko hirurak inguruan izango da hori.

Dena den, Korrika bera ez da izango biharko ekimen bakarra; izan ere, horren bueltan, egun osoan zehar izango da zer egin herrian.

Neska-mutikoendako ekintzak

Ohitura den moduan, Korrika iritsi aurretik, eguerdiko hama-bitan, herriko umeek petoak soinean jantzi eta Korrika Txikia egingo dute, Herriko Plazatik abiatuta eta erdiguneko kaleak zeharkatuz.

Bukatzean, indarrak berreskuratzeko, hamaiketako eskainiko dute Gurelekoek, ez umeentzat soilik, baizik eta gerturatsen diren guztientzat. Toki Eder elkartean egingo dute hamaiketako.

Ez dira, baina, hor bukatzen txikiendako antolatutakoak. Hala, herriko ume eta gaztetxoek, plan berezi modura, ludotekan gaubeila egingo dute; bertan lo egiteko aukera izango dute.

Lekuko eramaileak

Korrikaren 2317. kilometrotik 2320. erainokoak izango dira Leintz Gatzagatik igaroko direnak. Kirometro horietan herriko hainbat talde eta eragilek eroango dute Korrikako testigua.

Eskoriatza aldetik sartuko denez, Marulandatik sartuko da herrian korrika. Han, lehenik, Marulandako bizilagunek eroango dute lekukoa, eta haiek txirindulariei pasako diete. Haiek udaletxeraino joango dira, eta bertan Udalaren kilometroa hasiko da. Dena den, puntu horretan lekukoa eroateaz umeak arduratuko dira. Arrate baserrian, Uruguaitik etorritako Salterain familiak hartuko du lekukoa. "Haien jatorrizko familiaren baserria denez, erabaki dugu puntu horretan beraiek eramatea testigua", azaldu du Korrika batzordeak. Haiek Burdinkurtzeraino joango dira, eta bertatik zubiraino Sormeneko Asier Ugartek eroango du lekukoa. Hark Gureleko Dorleta Elkorobarrutiari pasatuko dio, Gatzagainen. Hark, berriz, Gaztainuzketakoei, eta, azkenik, Sorginak taldekoek eramango dute testigua Arabako mugaraino.

Bertso afaria

Iluntzean, berriz, bertso afaria izango da Soran Etxean, Andoni Egaña eta Onintza Enbeita bertsolariekin, 21:00etan. Dagoeneko saldu dituzte txartelak, baina Korrika batzordeak dio norbait azken orduan animatuko balitz, "tokia izango duela".

Domina ugari Madrildik

Eskoriatza Atama Kenpo taldekoak Madrilen izan ziren pasa den asteburuan, Guadalajarako Espainiako txapelketan. Hainbat dominarekin bueltatu dira handik. Guztira, sei sari urrezko, lau zilarrezko eta hirugarren postuan beste hiru geratu ziren. Hurrengo erroka, berriz, munduko txapelketa jokatzeko izango dute, Portugalen izango dena.



RAFA CARRIET



Erramu Zapatuko ferian zaldi-gurdi berezia izan zen iaz; aurten askotariko 183 postu izango dira azokan. IMANOL SORIANO

Korrikari eta Itzuliari so, badator Erramu Zapatua

Urteko feria berezienarekin batera, Korrika (00:22) eta Euskal Herriko Itzulia (13:30-17:30) pasatuko dira bihar Bergararik; azokan 183 postu egongo dira aurten eta Udal Pilotalekuan egingo den herri bazkarian 450 lagun inguru elkartuko dira

Jokin Bereziartua BERGARA

Aste bukaera ezin beteagoa izango da honako hau bergarrendako. Korrikaren etorrera girotzeko Korrika Txikiak herriko kaleak zeharkatuko ditu gaur arratsaldean ikastetxe guztien parte hartzearekin, eta zapatuan 00:22an Korrika helduko da Bergarara (ikus 28. orria). Biharkoa urteko egun handietako bat izango da bergarrendako, Erramu Zapatua delako, eta hori guztia gutxi balitz, bihar arratsaldean pasatuko da Bergararik Euskal Herriko Txirrindularitza Itzulia.

Erramu Zapatuko ferian 183 postu izango dira aurten; Muniben eta San Martin plazan artisauak izango dira, Fraiskozurin eta Simon Arrieta plazan elikagaiak eta Seminarioko atarian, berriz, bestelako postuak. Abeldurak, hegaztiak, artisauen postuak edota makinaria ere egongo dira ikusgai. "Bergararak eta kanpotik etorriko direnak jai eguna ondo pasatzera animatzen ditugu, beti ere errespetuan, parekidetasunean eta bizikidetzan oinarrituta", adierazi du Elena Lete alkateak. Ospakizunak eragin zuzena

izango du zirkulazioan; Ibarra, Fraiskozuri eta Bideberri itxita egongo dira zapatu goizean. Beraz, trafiko guztia saihesbideetik desbideratuko da. Ibarra kaleko 4. zenbakitik aurrera ibilgailuz libre egon beharko da zapatuko 06:00etarako, bertan jarriko da eta ganadua. Fraiskozuri kaleko alde biak itxita daude dagoeneko, eta erdialdean aparkaleku asko kenduko direnez, bihar Ipintza institutuko eta San Martin Agirre eskolako jolas tokiak irekiko dira aparkaleku moduan erabiltzeko. Horregatik, Udalak eskatu die garajea duten herritarrei autoa garaje barruan uzteko eta herritarrei, "ahal den neurrian", erdigunera oinez joateko.

400 txartel ordu erdian

Udal Pilotalekuko herri bazkarian 450 bat lagun elkartuko dira. 400 sarrera jarri zituzten salgai -gainerakoak bestelako konpromisoetarako gordetzen dira- martxoaren 30ean eta guztiak saldu ziren ordu erdian. Aurten ere Txapa Irratiak antolatu du; herrian erositako produktuekin osatuko dute menua:

AURREZTE HANDIA!

2017 / APIRILA / 12

Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin

comercial BRUNET TELLERIA 2, LABEGARAIETA, BERGARA. 943 76 31 52. WWW.COMERCIALBRUNET.COM

ECHO

hasierakoak, oilasko erreka patatekin, Bergarako pastelak eta bidezko merkataritzan oinarritutako kafea. "Azken urteetako antolatzaileek erreleboa eskatu zuten eta erabaki genuen erronkari eustea; iazkoa, lehena izateko, oso ondo joan zen. Lan asko egin genuen, baina merezi izan zuen", dio Txapa Irratiko Andoni Larrañagak.

Bazkariak gain, gauerako kontzertuak antolatu dituzte Kartzela Zaharrean, doan: Iñigo Cabezafuego, What A Band eta Esne Beltza taldean ezaguna egin den Zigor DZ izango dira musikari gonbidatuak.

Euskal Herriko Itzulua ere bai

Bihar arratsaldean pasatuko da proba Bergaratik. Antolatzaileek Bergaratik Elgetarako GI-2632 errepidea eta Bergaratik Maltzagarako errepideak moztuta izango dituzte 13:00etatik 17:30era. Ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko honako neurri hauek hartuko dira: San Juan auzoko bizilagunendako eta Tartufo jateko bezeroendako urbanoa jarriko dute; Mekolaldeko eta Osintxuko auzotarrendako trenbide zaharrek bidegorritik autoarekin joatea ahalbidetuko zaie eta Uberakoendako herribusa jarriko da 09:00etan herrira jaisateko eta 18:00etan Uberara itzultzeko. 13:30ean hasita, eta ordu erdiro, Ernaitik San Juanera autobus zerbitzua eskainiko dute Itzuliko antolatzaileek.

Egitaraua

- **09:00** Feriaren irekiera: abelburuen erakusketa, hegaziak, makineria, Eusko Label produktuak eta artisautza postuak.
- **11:00** Bergarako Musika Eskolako trikitilariak, txistulariak eta dantzariak kalejira. Ondoren, emanaldiak San Martin plazan, Simon Arrieta plazan eta Seminarioko patioan.
- **11:00** Baserriko oilasko pintxoak dastatzea San Martin plazan.
- **11:30** 28. Txorimalo Lehiaketa. Erakusketa jarriko dute Ibargarai kalean; 13:00etan sari banaketa egingo da Ibargarai kalean.
- **11:30** Aurtizko joaldunak kaleetan zehar.
- **12:00** Bergarako trikitilarien emanaldia Ibargarai kalean.
- **14:00** Herri bazkaria Udai Pilotalekuan. 450 bat lagun espero dira; 400 txartel saldu ziren ordu erdian.
- **17:30** Gaztetxoendako zezentxoak Seminarioko patioan.
- **Arratsaldean**, Kale animazioa txarangarekin.

Ordu batzuk besterik ez Korrika herrira iristeko

Gauerdia pasata sartuko da Osintxutik, eta horren harira, hainbat ekimen izango dira arratsaldean. Tartean, San Martin, Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastetxeetako neska-mutikoei egingo duten Korrika Txikia, edota Xaxauk antolatutako jolasak

Maite Txintxurreta BERGARA

Ordu batzuk baino ez dira falta Korrika, euskararen aldeko ekimenik handiena, Bergarara iristeko. Gauerdia pasata iritsiko da Osintxura Soraluze aldetik, eta handik Bergarako erdigunera abiatuko da, herria zeharkatu eta Antzuolarantz joateko.

Korrika Txikia

Bada, gaur arratsaldean, beti bezala, umeen txanda izango da. 15:15ean Korrika Txikia abiatuko da San Martin Herri eskolatik. Matxiategi kaletik joango dira, eta Oxirondoko azokara iristean testigua pasako diete Aranzadi ikastolakoei. Handik, Ibargarai aldera egingo dute, eta kale hau ibili ostean, Arrizuriagako aldapan gora egingo dute. Espolaira iristean Mariaren Lagundikoei pasako diete testigua, eta azken hauek San Pedro kalea, Arruriaga eta Barrrenkalea zeharkatuko dituzte, harik eta Iralara iritsi arte, ber-

Lekukoak

Osintxu

- Antxintxika.
- Txuringo kultur elkarte

Osintxutik Bergarara

- Banda, orkestra, Mus. eskola
- EH Bildu
- Labegarrietako koadrila
- Angiozar
- Ezker abertzalea
- Etxerat eta Gure Artera

IAT-ITV

- Udaleko langileak
- Auzoko, Xaxau, Gaztetxea
- Ipintza eta San Martin
- Migel Altuna eta EPA

Konde panaderokua

- Aranzadi ikastola
- Jardun
- Udala
- Mariaren Lagundia

San Antonio

- Goiena
- Aranzadiko langileak

tan amaituko baita. Bukaeran guztiak plazan elkartuko dira.

17:30ean txokolatada izango da Oxirondoko azokan. 18:00etan, berriz, Moises Azpiazu dantza taldekoen erakustaldia. Eta, bien bitartean, umeendako jolasak.

Xaxauk antolatutakoak

19:00etan, berriz, 16 urtetik gorakoendako euskararen aldeko ginkana hasiko da Errotalde parkean (izen ematea: Arranon eta Ganbaran). 21:30ean, afaria Kartzela Zaharrean, eta 23:00etan, berriz, kalejira gaztetxetik Amillagaraino. Han, beroketa jolasak egingo dituzte.

Osintxuko egitaraua

Osintxun, 18:00etan Korrika txikia egingo dute, ludotekatik plazaraino. Gero, txokolatada. Iluntzean kantu poteoa izango da, Aretxabaletako kantariak, eta ondoren, bokata jana plazan. 00:08etan dago aurreikusita Korrikaren etorrera.

ERRAMU ZAPATUA 2017

Apirilak 8, zapatua.
Ondo ibili!

- Azpeitxi
- Etxagi
- Irish Pub Galways
- Bule
- Euxebio II
- Toki Ona Bodegoia
- Usoa
- Ariznoa
- Pol Pol

Leire Martin bergararrari laguntzeko lanean

IGAM taldeak buru-belarri dihardu muskulu-atrofia espinala dutenen FundAME elkartearentzat eta Leire Martinentzat dirua batzeko ekimenak antolatzen. Zozketa txartelak eta kamisetak atera dituzte, eta Erramu Zapatuan ere kalera aterako dira

Maite Txintxurreta BERGARA

Leire Martinen aldeko txartelak salgai daude herriko hainbat komertzio eta tabernatan, eta kamisetak, berriz, Bulen eta Deporren. Erramu Zapatuan Irala kalean postutxo bat jarriko dute IGAMekoek, eta Fraiskozurin San Martin Herri Eskolak jarriko duen txosnan ere izango dute salgai materiala. Joko bat ere egingo dute, zeinetan jendeak asmatu beharko duen kutxa garden baten barruan zenbat kortxo dauden. "Dirua FundAMERi eta Leireri laguntzeko izango da", azaldu du IGAMeko Jon Ander Garitanok.

Herriko talde eta aurpegi ezagun askok erakutsi diote babesa, haren aldeko argazkiak atera. Martinek berak "ingurukoen babesa" igarri du, eta argazkiek "ilusioa" egin diotela dio.

Sendabidea, gertuago

Muskulu-atrofia espinala endekapenezko gaixotasuna da, denborarekin okerrera egiten duena. 10.000tik bati eragiten dio, eta gaixotasun arraro bezala katalogatuta dago; adingabeen bi kasu baino ez daude Gipuzkoan.

Martinen ama eta FundAMEko Euskadiko koordinatzaile Ana Pinedak dio alabak "etxeko gauza askotarako" laguntza behar



Ana Pineda, Leire Martin eta IGAMeko Jon Ander Garitano. M.T.

duela. Hala ere, azterketak oso aurreratuta daude, eta sendabidea gertu dago. "AEBetan dagoeneko onartu dute tratamendu bat eta orain, Europara iristear dago", azaldu du. Europan oniritzia ematean Espainiako Estatura iritsiko da, eta, bertan, erkidego bakoitzak kudeatu beharko du. "Borroka gogorra" izango ei da hori.

Izaten ari den laguntza nabarmendu gura izan du Ana Pinedak. "Ez dakit nola eskertu horrenbesteko elkartasuna". Herria asko inplikatzan ari dela dio.

Ekainaren 17ko jaiak

IGAMekoek ekainaren 17ko elkartasun jaialdira begira abiatu dute txartel eta kamiseta salmenta. Jon Ander Garitanok egun horretarako dituzten asmoen nondik norakoak azaldu ditu: "Goizean goiz Donostiatik Bergararaino etorriko gara oinez; Bolutik sartuko gara herrian, eta bertan zain izango ditugu batukadakoak, soinu eta pandero-joleak, erraldoiak... Kalejiran frontoiraino joango gara, eta han herriko kultura taldeekin jaialdi bat egingo dugu".

Seminarioko erretaula, ekainerako berriztuta

XVII. mende amaierako erretaula zaharberritzeko lanetan dihardu Bizkaiko Artelys enpresak

Jokin Bereziartua BERGARA

Errege Seminarioko erretaula, 1690 eta 1695 urteen artean eta fase ezberdinetan Mateo de Aspiazu, Rafael Larralde eta Jacobo de Jauregik egindakoa, ekain hasierarako berriztuta egongo da. "Hezetasunak kaltetutako egurra konpontzen ari gara eta kolorea atera behar zaio, besteak beste", dio Elena Lete alkateak.

Orduan, herritarren begi bistan jarriko da erretaula. Artelys enpresak dihardu zaharberritzean. "Emaitza oso ona izango da. Erretaulak berezitasun ugari ditu, San Inazioaren irudia kasu. Zaharberritze honekin erretaula balioan jarriko dugu", dio Letek. XVII. mendetik izandako babes ezak, hezetasunak eta aireztapen faltak egurrean eragin du.

Ume baten hezurrak

Aldareko aldeetan bi zulo egin zituzten obretan, eta ume baten hezurak aurkitu zituzten. Aranzadi Zientzia Elkarteak dihardu hezurrok aztertzen. Bestalde, Andres Madariagaren hilobia berreskuratu eta kristal batekin babestuko dute, ate bateko beiratea Olitera eraman zen konpontzeko eta ur bedeinkatuaren ontziak zein bobedak berreskuratu egingo dira.



Alkohola, drogak eta indarkeria

Komunikabide nagusiek berri gehiago ematen dituzte legez kanpoko drogei buruz alkoholari buruz baino, eta, gainera, hauek moralki suntsitzaileagoak bezala erakusten dituzte, arduragabe eta gizagalduei lotuta.

Komunikabideek paper garrantzitsua dutenez jendearen iritziarengan, halakoek jendearen sinestara diezaioke legez kanpoko drogek alkoholak baino joera gehiago dutela indarkeria eragiteko.

Zer diote datuek? Australian argitaratu berri diren ikerketek azaltzen dute indarkeria kasuen %26, moduren batean, alkoholari lotuta dagoela. Aldiz, %3,1 baino ez dago drogei lotuta.

Nola azaldu daiteke hau? Jendeak, edatean, erabaki okerrak hartu ohi ditu, modu emozionalean eta zentzu barik, eta ondorioak kontuan hartzeke. Aldiz, MDMAk (estasiak) serotonina askatzen du, enpatia handituz. LSDari buruz ez dago ikerketarik beraz indarkeriarekin lotzen duenik eta arraroa da portaerok eragitea. Baina bai LSDaren kasuan eta MDMAren kasuan, portaera hauek drogon kalitate kontrol ezari lotuak daude, haien ilegaltasuna dela eta.

Esan daiteke, salbuespenak salbuespen, alkoholak indarkeria gehiago eragiten duela zenbait drogak baino.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

UREDERRA
ITURBINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Taldearen salbazioa ziurtatzeko azken aukera

Eskubaloiko Soraluze BKEk denboraldiko azken partidua jokatu du aurkari zuzena den Ormaiztegiaren kontra. Domekan erabakiko dute zeinek ziurtatuko duen salbazioa eta zein geratuko den jaitsiera postua izan daitekeen hamargarren lekuan

Maite Txintxurreta BERGARA

Domekan jokatu dute Soraluze BKE eskubaloiko talde nagusikoek denboraldiko azken norgehiagoka. Azken unera arte izango da emozioa; izan ere, hil edo biziko hitzordua izango da Ormaiztegiaren aurka jokatu duten partidua (domekan, 11:30ean, Labegaraietan).

Jaitsiera postua izan daitekeen 10. postuan daude ormaiztegiarrak, eta bergararrak, berriz, bederatzigarren dira. Bi puntu-ko alde dago talde bien artean. Izatez, bi talde jaisten dira, baina hori aldatu egin daiteke goiko eta beheko mailletako mugimenduen arabera –Gipuzkoako Lurraldeko lehen mailan daude gaur egun-. Hala, okerrenean, lau talde jaitsiko lirarteke; hau da, hamargarren postuan egongo litzateke muga. Berdinketa-ekin ere maila ziurtatuko lukete, baina Edu Orgaz entrenatzaileak argi dauka "derrigor" irabaztera aterako direla. Taulan euren aurretik dagoen Eibarko Haritzak galduz gero eta eurek irabazi, gainera, zortzigarren postuan bukatu dezakete denboraldia bergararrek.

Azkenengo jardunaldian mahoneroek ezin izan zuten Ordizia liderra garaitu, eta 30-24 galdu zuten. "Oso urduri geunden, eta



Soraluce BKE-ko Unai Orgaz Labegaraietan jokaturako azken partiduan. I. SORIANO

akats larregi egin genituen", azaldu du entrenatzaileak. Zorionez, Ormaiztegi ere galdu egin zuen Legazpiren aurka.

Gakoa, defentsa lanean

Edu Orgazek "partidu gogorra" espero du domekarako. Izan ere, joanekoan, azken uneko penalti bati esker irabazi zuten mahoneroek, gol bakarreko aldearekin.

Irabazteko gakoa defentsa lana ondo egitean egongo da, entrenatzailearen ustez: "Serio mantendu behar dugu, ondo orde-

natuta eta kontraerasoak aprobetxatzen ahaleginduz". Azkenegoz, defentsan fin ibili ziren, kontraerasoak sortuz, baina ate aurrean asmatzea falta izan zitzaion. Hortaz, "beldurra galdu" beharko dute jokaldi horiei etekina ateratzeko, Orgazen ustez.

Labegaraieta betetzeko deia

Taldearen azken partidua eta "azken urteotako garrantzitsuen" izanik, zuzendaritzak zaleei dei egin die taldea animatzera gerturatu daitezten: "Zergatik ez bete kiroldegia igandean?".



Mariaren Lagundiko ikasleak Realeko Nahikari Garciarekin, platoan. JOKIN BEREZIARTUA

Futbolari gazte baten bizipenak, lehen pertsonan kontatuta

Nahikari Garcia elkarrizketatu dute Mariaren Lagundiko ikasleek hilaren 12 emango duten 'Galdegazte' saioan

M.T. BERGARA

Goiena telebistako *Galdegazte* saioan Mariaren Lagundiko ikasleek eta Jokin Bereziartua aurkezleak Realeko jokalaria Nahikari Garcia elkarrizketatu dute. Garciak Euskal Selektioarekin ere jokatzeko du, eta 20 urtez azpiko Espainiako futbol selektzio kapitaina da. Saio horren emisioa apirilaren 12an izango da, eguaztena, 21:30ean.

Sara Balentziaga, Amaia Alonso eta Iker Ortiz izan ziren elkarrizketatzaileak. Kirol munduko hastapenez berbetan hasi zuten elkarrizketa, Realaren deiaz, debutaz... Baita bere etorkizunaz ere. Futbolariak Medikuntzako gradua ikasten dihardu, eta, horren harira, futbola eta ikasketak nola uztartzen dituen azaldu zuen platoan.

Gaur egun emakumezkoen eta gizonzkoen futbolaren artean dagoen desberdintasunaz ere

jardun zuen txuri-urdiran. Adierazi zuen "egoera parekide baten egoteko bide luzea" badago ere, emakumezkoen futbola "pixkana gorantza" doala.

Jokin Bereziartua aurkezlea ere pozik dago elkarrizketak emandakoarekin: "Saioa oso ondo joan da, Garcia ere oso gustura egon da, eta, 20 urte izan arren, sekulako heldutasuna erakutsi du. Ezin dugu ahaztu goi mailako futbol jokalaria dela".

Aurrelari fina

Nahikari Garciak 20 urte bete berri ditu martxoan. Oso gaztean egin zuen debuta Realarekin; 16 urterekin, zehazki. Urnietarrak aurrelari postuan jokatu du, eta sekulako denboraldia egiten ari da. Realaren azken partiduan, 90. eta 92. minutuetan bi gol sartu zituen, eta horri esker garaipena ekarri zuten txuri-urdinek Huelvatik.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskoziuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatzkoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Go!azen ikuskizuneko protagonistak. GLU GLU

'Go!azen' modako antzezlan pilotalekuan

Apirilaren 23an ETB1eko telesail famatuaren taula gaineko bertsioa izango da ikusgai Udal Pilotalekuan. Jada ez dago sarrerarik, guztiak ordubetean agortu baitziren; izan ere, gazte batzuek sinadura bilketa egin zuten antzezlan herrira ekartzeko

Maite Txintxurreta BERGARA

Gaztetxoaren artean azkenaldian izugarriko arrakasta izaten ari den *Go!azen* antzerki musikala Bergarara iritsiko da apirilaren 23an, domekan, Glu Glu ekoizpen etxearen eskutik. Ikuskizun hori Udal Pilotalekuan egingo dute, arratsaldeko seietan hasita.

ETB1 telebista kateko *Go!azen* 3.0 izeneko telesaileko protagonistak eurak izango dira Udal Pilotalekuko antzezlan horretan parte hartuko dutenak. Ondorengoak dira aktore horiek: Paula eta Aitana Etxeberria ahizpak, Markel Gajate, Asier Burguete, Aritz Mendiola eta Ramon Agirre.

Sinadura bilketa

Antzezlan Bergarara ekartzearen arrazoiak herriko hainbat gaztetxok horretarako sinadura bilketa bat abiatu izana da. Sinadurok udaletxean aurkeztu zituzten, eta, "eskariari jarraiki", Bergarako Udala emanaldia herrira ekartzeko tramite lanetan hasi zen.

Sarrera guztiak agortuta

Apirilaren 23ko *Go!azen* ikuskizunerako dagoeneko ez da sarrerarik geratzen. Martxoaren 22an jarri zituzten salgai sarrera horiek Kutxabank-en webgunean, 18:00etan, bakoitza zortzi eurotan, eta ordubete eskasean agortu ziren guztiak. Udalak adierazi du ez dutela beste emanaldirik aurreikusiko, oraingoan.

830 sarrera saldu dituzte guztira. Udal Pilotalekuan Gabonetako zein Aratusteetako kontzertuak egiten direnean 885 sarrera inguru saldu ohi dituzte, eta Aratusteetako pailazoen ikuskizunean, berriz, 950 inguru. Oraingoan, ikusle gutxiago izango dira; izan ere, Udalak azaldu duenez, konpainiakoeke eurek eskatu dute hala izatea, agertokiaren ezaugarriengatik zenbait kokalekutatik ezin baita ondo ikusi.

Izan ere, benetako fenomeno izaten ari da *Go!azen*; umeen eta gaztetxoaren artean, bereziki. Duela zenbait urte hasi ziren telesaila ematen ETB1en, beste protagonista batzuekin orduko hartan, eta ikasturte honetan berreskuratu dute; oso harrera ona izan du.

Orain, telesailaren denboraldia bukatu egin da, baina saio berearekin lotutako *Bagoaz!* izeneko kantu lehiaketa daukate martxan.

Istoriaren nondik norakoak

Basakabi izeneko aterpetxeko udalekuean kokatzen da *Go!azen* antzerki musikaleko istorioa, eta bertan dauden gaztetxoaren maitasun istorio, abentura eta bizipenak kontatzen dituzte: "Iritsi da uda eta Basakabik zabaldu ditu ateak. Gazteak ilu-

sioz beterik datoz; abesteko, dantzan egiteko eta ondo pasatzeko prest. Baina Zuzen-ek ez dizkie gauzak erraz jarriko bere arau eta debekuekin. Hala ere, Elene (Aitana Etxeberria) eta Haizea (Paula Etxeberria) bikiak maitemindu egingo zaizkigu; arazoa da mutil bera gustatzen zaiela bie, Mikel (Markel Gajate), udalekuko langilea. Mikele Haizea gustatuko zaio hasieratik, baina gero, Elenerekin geratuko da, eta hortxe hasiko da nahaste-borrastea".

BERGARAKO GAZTE BATZUEK SINADURA BILKETA EGIN ZUTEN IKUSKIZUNA HERRIRA EKARTZEKO



IMANOL SORIANO

Ikuskizun hunkigarria pilotalekuan

Aurreko asteburuan, Karl Jenkinsen *The Armed Man* obra taularatu zuen Bergarako Orfeoia Udal Pilotalekuan; gerraren eta bakearen gaineko hausnarketa sakon bezain hunkigarria. Orfeoiaekin batera, Orfoi Gazteak, Camden Town akademiak eta

Intxorta 1937 elkarteak ere hartu zuten parte, baita ekitaldirako elkartutako musikari talde batek ere.

Frontoira bertaratutako ikus-entzuleek ezin gusturago jarraitu zuten ikuskizuna, eta, amaieran, ondo merezitako txaloak jaso zituzten protagonistek.

Apirilean Musikaren baitan, hainbat hitzordu asteburuan

Joan den astea ezker martxan den Apirilean Musika egitarauak aurrera jarraitzen du. Gaur, egubakoitza, bi hitzordu izango dira ordu berean (18:00): batetik, Musika Eskolan trabes-txirula ikasleen emanaldia izango da; eta, bestetik, Zabalotegi aretoan, ipuin musikatuak. Musika tallerreko ikasleek eta gitarra ikasleek *Txit oilo txikia eta katua* istorioa kontatuko dute.

Bihar, berriz, 11:30ean, Santa Marina elizako organoa ezagutzeko aukera izango da Josean Pascual irakaslearen eskutik. Bestetik, goizean dantzariak, trikitilariak eta txistulariak kalejiran ibiliko dira, Erramu Zapatuko giroa alaitzen.

Pablo Ugartetxearen artelanak gaurtik aurrera Aroztegin

Pablo Ugartetxea artista bilbotarraren erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, 19:00etan, Aroztegi aretoan. Apirilaren 23ra bitartean izango da Barrenkaleko aretoan mostra hori bisitatzeko aukera.

Teknika mistoarekin egindako artelanak eta collageak dira nagusi Ugartetxearen lanen artean, eta kolore ilunek hartu ohi dute protagonismoa. Gaia, berriz, hiria, inguru urbanoa izan ohi da, eta bere jaioterria du inspirazio iturri nagusi.

Beti bezala, martitzenetik egubakoitzera iluntzean izango da zabalik aretoa; zapatuetan, berriz, eguerdian eta iluntzean, eta domeketan, eguerdian.

80. urtemugan justizia eskaera aldarri nagusi

Intxortako erresistentziak zortzi hamarkada betetzen dituen honetan, frankismoaren zigorgabetasuna amaitzeko eskatuko dute, ozen, Elgetan. Errekreazioa egingo dute hilaren 23an, eta herriko 32 biktima omenduko dituzte ondorengo ekitaldian

Larraitz Zeberio ELGETA

Ekitaldi nagusiak —Intxortako borrokaldien errekreazioa eta omenaldia— apirilaren 23rako iragarri dituzte, baina lau eguneko egitaraua da prestatu dutena. Hain zuzen ere, tropa frankisten eraso gogorrenak izan ziren lau egunetan.

Iraitz Lazkano alkateak nabarmendu du aurten justizia eskaerarekin zegoen zorrari begira egin duela Udalak ahalagin nagusia. Memoria jardunaldiak egin zituzten urrian, eta frankismoaren krimenen aurkako kereilan sartzeko erabaki hartu zuen udalbatzak aho batez. Biktimen testigantzak jasotzeko bulegoa ere zabandu zuten urte hasieran, eta jaso dituzte testigantzak. "Testigantza horiek lagundu digute eza-gutuzen ez ziren kasu batzuk eta hobi batzuk ezagutarazten. Uste dugu oso aberasgarria izan dela", esan du alkateak. "Testigantzen bulegoak balio izan du baita ere aurtengo omenaldia prestatzeko". Frankistek hildako elgetarren izen-abizenak elkartzen saiatu dira, eta 32 laguneko zerrenda osatu dute. "Zerrenda hori aurretik ezagutzen ziren kasuekin dago osatuta, baita gerora etorri diren beste testigantza horiekin ere". Askotariko kasuak daude



Udal ordezkariak eta Intxorta 1937 kultur elkarteko kideak ekintzak aurkezten. L.Z.

la adierazi du alkateak: gizonezkoak, emakumezkoak, herrigunekoak, auzoetakoak, frontean hildakoak, zibilak...". Guztiek jasoko dute omenaldia apirilaren 23an Elgetako frontoian. Bazkaria ere antolatu dute aurten. Txartelak laster izango dira salgai udaletxean.

Ekitaldiak lau egunez

Aurreko egunetarako ere iragarri dituzte hainbat ekitaldi. Nabarmen dira ikus-entzunezko bat, bi antzezlan, hitzaldi bat eta bisita gidatu bat. Informazio

guztia eskuragarri dago *elgeta.eus* atarian. Ekintzok antolatze-ko Intxorta 1937 kultur elkarteko kideen laguntza izaten dute urtero Elgetan. Frankismoaren zigorgabetasuna amaitu behar dela azpimarratu dute, eta esan dute Elgetako Udala frankismoaren aurkako kereilan sartzeari erdugarria dela gainerako erakunde guztiendako. "Justizia behar dugu Faxismoaren zigorgabetasunarekin amaitzeko eta horrelakorik berriz ez gertatzeko", esan du elkarteko kide Nerea Villak.

Udalak Pilotalekurako egindako arautegi berria indarrean da

Eskolarendako tartea arautu dute eta pilota jokoek dute lehentasuna eguazten eta bariku arratsaldeetan

L.Z. ELGETA

"Aldaketa egin dugu hainbat herritar zuzendu direlako Kirol batzordera beraien kezka eta interesak agertzera. Beste proposamenik edo eskaerarik balego batzordean aztertuko ditugu", esan du Kirol zinegotzi Mikel Elkorok. Arautegi berria indarrean da, eta ikusgai dago Udal Pilotalekuko ohar taulan.

Aldaketa nagusiak hiru dira. Herri Eskolaren erabilerarako izango da frontoi osoa astelehenean, martitzenetan eta eguenean, 14:30etik 16:00etara. Sal-

buespena dira eguaztena eta barikua. Kasu bietan, pilota jokoek izango dute lehentasuna 14:30etik 17:00etara. Hortik aurrera, eguaztenetan, pilota eskolarendako izango da frontoia 17:00etatik 19:00etara. "Herri Eskolak ordu eta erdiko bi saio galtzen ditu pilota jokoen mesederako", adierazi du Elkorok. "Aldaketa jasaten duen Herri Eskolarekin hitz egin dugu eta adostasun horretara heldu gara". Arautegi berriak eragina du baita ere orain arteko neska-mutikoen jolas librerako tartetan.



AIZPEA URIBE

Korrikarekin bat egiteko egunak

Zapatuan hartu zuten Korrikako lekukoa Goibeko euskaltzaleen elkarteko kideek, Eslaban. Gaur, 15:00etan, abiatuko da Korrika Txikia eskolatik. Ondoren, txokolate-jana eta txotxongilo ikuskizuna daude iragarrita. Bihar, zapatua, autobusa irtengo da, Elgetatik, Korrikaren Oñati eta Arrasate arteko tartea egin nahi dutenendako.

Euskal Herriko Itzulia dela-eta zirkulazio aldaketak bihar

Eta Elgetatik igaroko da, eta erlojupekoa da. Lehen txirindularia 13:43an abiatuko da, Ipuruatik. Lasterketa aurretik eta bitartean ibilgailuek ezingo dituzte ez Eibarrerako ez Bergararako bideak erabili, itxita egongo baitira. Zabalik egongo dira Elorriorako zein Kanpazarrerako bideak. Adi, Erramu Zapatuko feria da-eta Bergaran.

Nekazaritzako ibilgailuen azterketa, astelehenean

Nekazaritzako ibilgailuen azterketa teknikoa —IAT— egitera etorriko da unitate mugikor bat Elgetara, astelehenean. Pagatza industrialdean kokatuko da, Elorriorako bidean eskuineko aldean, 12:00etan. Ez da beharrezkoa aurrez txanda hartzea. Iaz zortzi nekazarik baliatu zuten herrian bertan azterketa teknikoa pasatzeko aukera.

80. urteurreneko omenduak

- Andres Alberdi Astigarraga.
- Andresa Iriondo Etxabe.
- Angel Aranzeta Aranzeta.
- Arrieta.
- Canuto Ugalde Marcaide.
- Dimas Aranzeta Etxezarreta.
- Eugenio Bolinaga Belar.
- Eusebio Ugalde Zubimendi.
- Faustino Garitano Askasibar.
- Fausto Irazabal Aranzabal.
- Felipe Telleria.
- Felipe Markiegi.
- Fernando Telleria Altuna.
- Florencio Vitoria Arrieta.
- Francisca Lamarain Aranzabal.
- Francisca Ojanguren Iribecampos.
- Gregorio Larrañaga Aranzabal.
- Hilario Aranzeta Aranzeta.
- Isabel Birichinaga.
- Jacinto Elkor Aranbarri.
- Joaquin Lazcano Igartua.
- Jose Bizente Garai Arenaza.
- Jorge Iturricastillo Aranzabal.
- Julian Aranzeta Lizarralde.
- Lucas Ugalde 'Panaderokua'.
- Luis Telleria Irazabal.
- Mateo Bolinaga Telleria.
- Martin Alberdi Juldain.
- Pablo Ansoategi Zubierrementeria.
- Pedro Telleria Askasibar.
- Pedro Ansoategi Zubierrementeria.
- Ubaldo Lanberri Goizueta.
- Victorio Telleria Irazabal.



Lau euskal magoak Torresoroako agertokian ikuskizuna prestatzen. IMANOL GALLEGU

Magoen abilezia eta trukoak, euskaraz

Familia osoarendako eta euskaraz izango den magia ikuskizuna prestatzen ari dira aste hauetan Torresoroan. Tor Magoa, Asier Kidam, Txoborro eta Imanol Ituiño magoek elkarrekin zein bakarka egindako trukoak eskainiko dituzte ikuskizunean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Magia Torresoroako aretoaz jabetu da. Izan ere, lau euskal mago batu dira eta magia ikuskizuna gertatzen dihardute Antzuolan. Tor Magoa, Asier Kidam, Txoborro eta Imanol Ituiño magoak dira lau protagonista.

Euren ikuskizunaren ardatz elementu txikiak –kartak, txistera...– eta ez hain txikiak diren objektuak dira.

Pikupe Produzizioetako kide Iker Muruamendarazek dio euskarazko magia ardatz duen ideia Elgetako Magia Mostran abiatu zutela: "Mostrarekin jendea oso gustura geratu zen. Harremana eginda magoekin, bestelako proiektuak egiteko ideia jaio zen. Gura genuena zen lau mago agertokian batzea, ikuskizun familiarra egitea eta euskaraz egitea".

Hala, entseguak egiten hasiak dira. "Ikuskizun honek daukan berezitasuna da euskaraz dela, baina baita istorio bat konta-

tzen dela. Lau magoen artean ideia garatzen da, eta istorioa kontatu. Oso bisuala izango da, baina publikoa partaide izatea ere gura dugu".

Abilezia magia bilakatu

Ikuskizunaren lehen atalean magia bisuala eskainiko duela azaldu du Asier Kidam magoak: "Musika eta manipulazioa erabiliko ditut. Pilotak agertu eta desagertu egingo ditut bat-batean eskuetatik. Hau da, eskuetan daukadan abileziarekin magia egingo dut".

Hala, lau magoak tartekatzen joango dira eta magia truko ezberdinak egingo dituzte. Beste tarte batzuetan, aldiz, laurek elkarrekin trukoak egingo di-

PANTAILA HANDI BATEK IKUSLEAREN BEGIEI GERTURATUKO DIE MOMENTUKO MAGIA IKUSKIZUNA

tuzte. Tor eta Txoborro magoek, esaterako, kutxa bat erabiliko dute. Eta zertarako? Bada, Tor kutxa barrura lotuta sartuko da eta askatu egin beharko da kutxatik irteerako. "Kutxaz gain, bideo batekin jolas ere egingo dute agertokian. Ikuskizunak gauza ezberdin asko ditu. Ikuskizun *potentea* gura genuen egin", azaldu du Tor Magoak.

"Zenbat eta elementu klasi-koagoa izan eskuetan, orduan eta arrakasta handiagoa dute eta gehiago harritzen gaitu sinpletasun horrek; kartek, esaterako, gertutasuna ere ematen dute. Kamera izango dugu eta trukoak pantailan eskainiko ditugu", dio Imanol Ituiñok.

Magoek, normalean, ez dute euren sekretua zein den kontatzen, baina, agian, ikusleren baten abileziak lortu du sekreturen bat edo beste azaleratzea.

Emanaldiaren data zehaztu gabe dagoen arren, asmoa da maiatzerako prest izatea euskarazko magia ikuskizuna.

Altzarteko etxebizitzaren arau aldaketari argi berdea

Altzarten etxeak egiteko arau subsidiarioen aldaketa onartu dute, aho batez, ohiko osoko bilkuran

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aho batez onartu dute Altzarten hamaika etxebizitza egin ahal izateko arau subsidiarioen aldaketa puntuala apirilko ohiko osoko bilkuran. Orain, Jaur-laritzak berrikusi eta aztertu egin beharko du proiektua. Eguzki, Kalebarren eta Aiherra auzoetako 105 bizilagunek aurkeztutako alegazioa aintzat hartu ez izana ere arrazoitu du Antzuolako Udalak. Auzotarrek aurkeztutako alegazioa garaje kopuruari zegokion; hau da, hamasei egin beharrean zortzi egiteko eskatzen zuten. "Proiektuan planteatzen diren hamasei aparkalekuek legea errespetatzen dutela eta egokia dela azaldu da", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Proiektua hobetzeko aintzat hartu dituzte aurkeztutako hainbat txosten edo gai: "Proiektuan jasoko dira lurzorua lagapenagatik jaso beharreko ordainketa, urarekiko mantendu beharreko distantzia edo garai batean zegoen industria jarduera. Erre-arekiko distantzia izango dute etxebizitzek eta gune berdeak izango dira, besteak beste".

Moizioaz desadostasuna

Itsaso-Gueñes linearen aurkako mozioak eztabaida piztu zuen martitzeneko ohiko osoko bilkuran. "Antzuolako mendi lurretan 80 metroko bederatzi poste jarri gura dituzte. Makroproiektua da eta interes publikoaren izenean aurrean dagoen dena eramaten dute. Tartean, basoak eta belardiak. Ez dakit halako eremu magnetikoaren inguruan ganadua egoteak ere ondorioz izango ote duen. Antzuolako errealitatea aurkezten duen alegazioa prest dugu. Besteak beste, babes bereziko izendapena duten basoei eragiten dielako", dio alkateak.

EAJ ez da ados azaldu eta linearen ibilbidea negoziatu beharra dagoela dioen mozio alternatiboa aurkeztu du. "Linearen ibilbideak ahalik eta inpaktu ekologiko txikiena eragin dezan negoziatu beharra dago; baina linea beharrezkoa da horrelako industrializazio gunea duen lurraldearendako. Energia bertako duena eta, batez ere, energia berriztagarriak ekarriko dituen Nafarroatik", azaldu du Javier Telleria jeltzaleak.



IMANOL SORIANO

Pilotaren harrobia, Antzuolan

Gipuzkoako eskolarteko pilota txapelketako finalak jokatu dira Antzuolako frontoian. Alebin, infantil eta kadete mailetakoko finalak. "Jendea hurbildu da, giro ona sortuz", adierazi dute antolatzaileek. Alebin mailan Txinkortak irabazi du; infantiletan Arrasate 1 taldeak eskuratu du garaipena eta kadeteetan Eibarko eta Elgoibarko pilotariak nagusitu dira.

Umorea eta irria nagusi ahozkotasanaren festan

Ahotik Bihotzera ekimenaren laugarren edizioak harrera oso ona izan du. "Familia giro ederra" sortu zela diote ekimenaren bultzatzaileek. Arratsaldeko emanaldirako, berriz, Torresoroa aretoa bete-beteta egon zela eta "oso pozik" daudela diote

M.A. ANTZUOLA

Familia giroan ospatu dute antzularrek ahozkotasanaren festa. "Eguraldiak ez duen arren askorik lagundu, familia askok hartu dute parte eta oso giro berezia eta polita sortu da goizean goizetik herrian. Oso gustura ibili gara kontu kontari", azaldu du Dorleta Kortazarrek, antolatzaile taldeko kideak.

Goiz eguerdi partean lau kontalari aritu ziren familia osoarendako askotariko istorioak kontatzen. "Adi-adi, gustura" entzun zituzten istorioak herriko haurrek.

Gertuko kontakizun parte-hartzaileak izan ziren eta haurrek ere istorio horien parte izateko aukera izan zuten. Trikitilarien kalejirarekin, gunez gune ibili ziren herriko familiak istorio ezberdinak entzunez.

Torresoroa beteta

Arratsaldeko saioaz gozatzeko, berriz, bete egin zen Torresoroa areto berritua. "Sorpresa hartu genuen Torresoroa beteta ikusita. Harrera paregabea izan zuen emanaldiak. Bi orduko saioa izan zen eta ipuin kontalari profesionalak zein afizionatuak izan ziren bertan. Berderatzi ipuin kontalarik hartu zuten parte eta askotariko ipuin tradizionalak izan ziren entzungai. Guztiek, baina, umorea izan zuten oinarri", gaineratu du Kortazar ipuin kontalariak.

Luzerako proiektua

Ahotik Bihotzera ekimenak izan duen harrera ikusita, pozik azaldu dira bultzatzaileak: "Urtetik urtera bere bidea egiten ari den ekimena da. Balorazio oso positiboa egiten dugu eta aurrera egiteko gogoz gaude. Beti esan dugu epe luzerako proiektua dela hau". Orain, testigua eta ahotsa domekan entzule izan zirenei pasa dietela azaldu dute.



Zurrategi plazako arkupean gaztetxoak adi-adi. IMANOL SORIANO



Herriko Plazan, familiek ere izan zituzten ipuinak entzuteko aukera. IMANOL SORIANO



Haurrak gustura kontakizuna entzuten. IMANOL SORIANO

Festa eta aldarrikapena 20. Korrikarekin bat eginda

Gaur arratsaldetik goizaldera arte Korrikaren baitan ekintza ugari izango dira herritar ororendako

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bihar, apirilak 8, iritsiko da 20. Korrika, 00:30-01:00 tartean. Baina gaur, egubakoitza, arratsaldetik motorrak berotzen joateko makina bat ekintza izango da herrian.

Korrika Txikia 16:00etan abiatuko da eskolako patioetik. Ondoren, 17:00etan puzgarriak egongo dira, txikitxoek gozamenarako. Arratsaldean, berriz, triki-poteoa eta 21:30ean afari herrikoia egingo da pilotalekuan.

Zozketa ere egingo da. Korrika dela-eta produktuz betetako otarrea zozketatuko dute; baita herri kilometro bat ere, lekukoa eramateko aukera emanda.

Karaokea

Herri afariaren ostean, *korrikarako* egingo da. Korrikako abesti guztiei letra jarri die Ion Lizarazu informatikariak. "An-

tzulako Korrika batzordean komentatu zen karaokea egitearen ideia; nik esan nuen egin nezakeela. Eta halaxe, korrikako edizio guztietako musikak deskargatu *Korrika.eus*-etik eta karaokea egin nuen. Ez da hain zaila, Gabi de la Mazak erabiltzen duen KaraFun programarekin egin dut", azaldu du.

Testigua

Kilometro ezberdinetan korrikaren testigua eragile hauek eramango dute: Elayk, Udalak, Matz Errekak, Goizperrek eta herri kilometroa (zozketaren irabazlea).

Bestalde, Korrikako amaiera festara Iruñera joango direnendako oharra: autobusa Antzuolako geltokira 09:15ean iritsiko da apirilaren 9a, domekan. Izenematea itxita dago autobusa beteta dagoelako.

OHARRAK

Auzoko jaiak

Maiatzaren 6an, Auzoko egitasmoaren urteko festa Antzuolan egingo da. Topaguneak eta Uemak herrietara etorri berriei egiten dieten harreraren inguruko kezkarri erantzuteko asmoz sortu zen Auzoko, 2008an.

Udaleku irekiak

Apirilaren 24an irekiko da Antzuolako udalekuetan izena emateko epea. Eskolan banatutako orria eta ordainketa-ziurtagiria udaletxean aurkeztuz edo www.antzuela.com webgunearen bitartez eman daiteke izena. Aurten ere Aiherrako gaztetxoak etorriko dira bi herrietako haurren arteko harremana sustatzeko eta indartzeko.

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34



Jatorduetatik kanpo, bezeroek bestelako erabilera eman diezaiokete jantokiari. IKER OÑATE



Gainerako espazioetan bezala, logeletan azken ukituak ematen ari dira. IKER OÑATE

Aterpetxea prest du Arantzazuk

Arantzazuren eskaintza indartu guran, aterpetxea irekiko dute astelehenean, apirilaren 10ean. Nagusiki, ikasle taldeak, Inaziotar Bidea egiten diharduten erromesak eta gazteria erakarri nahi dituzte egitasmoaren bultzatzaileek

Iker Oñate OÑATI

2005ean Gandiaga Topagunea eraiki zutenetik, aurreikusirik zegoen Arantzazun aterpetxea egiteko proiektua; Gandiaga 1 eraikineko solairuartea bere du ordutik. Hala ere, 2012. urtera arte ez zioten egitasmoa diseinatzeari ekin. Ardura horrekin, azken urteotan elkarlanean jardun dute Arantzazu Gaur Fundazioak eta Gipuzkoako Parke-txe Sareak.

Prozesu horren baitan, aterpetxearen kudeaketa esleitu nahirik, eraikina enkantean jarri zen 2016an. Hiru egitasmo aurkeztu ziren, eta, horien artean, Joseba Longarterena hobetsi zuten. "Balio pedagogiko handiko proiektua eskaini gura nuen. Alegia, argi nuen Arantzazuk dituen natura eta kultura balioak transmititzera bideraturiko egitasmoa eraiki

Barrutik ezagutuz

Ezaugarriak

- 56 ohe, zortzi logeletan banatuta
- Sukaldea: bi mikrouhin-labe eta bi hozkailu
- Jantokia
- Hiru bainugela, dutxekin
- Elbarrientzako espazioak

Ordutegia

- 08:00-22:00

Erreserbak

- Tel.: 943 78 05 00 eta 656 74 31 48
- arantzazuaterpetxea@gipuzkoamendizmendi.net

behar nuela", azaldu du Longartek.

Hamaika hilabetez irekita

Urtarrilean salbu, aterpetxea urte osoan izango da erabilgarri; Arantzazun aterpea gura duen orori, eraikinean lo egiteko aukera bermatu gura zaio horrela. Kasuak kasu, erreserbak egiteko bide ezberdinak izango dira: posta elektronikoz edo telefonoz.

Finkaturiko ordutegitik kanpo ere izango da lotarako tokia eskatzeko aukera. "Aurrez erreserba egiterik izan ez duen bezeroa aterpetxera heldu, eta, bertan ez banago, lasai asko dei diezadake mugikorrera", argitu du Longartek. Giltza bat utziko zaio bezero bakoitzari, aterpetxea eta berorren barneko armairuak ireki ditzan.

Bestetik, ikasle taldeentzat lo leku ere izan nahi du aterpe-

txeak. Hasiak dira ikastetxeekin harremanetan, eraikinak eskaintzen duenaren berri emanez; Artelatz Ingurumen Zerbitzuak SLk dihardu zeregin horretan.

Gainerako bezeroek ez bezala, Arantzazuko Santutegi Hotelean prezio murriztuan bazkaltzeko eta afaltzeko aukera izango dute ikasleek; beraientzat propio eginiko menua eskainiko zaie.

Gazteak erakarri nahian

Gazteria erakarri gura du Longartek: "Duela urte batzuk, gazteriak oso presente zuten Aran-

tzazu. Orain, ordea, gazte gutxi ibiltzen da hemen inguruan; pena ematen dit horrek. Kimu berriak erakarri gura ditut". Gaineratu duenez, Arantzazuren inguruko ezagutza galdu egin da gazteen artean.

Edozelan ere, Longartek argitu du aterpetxeak, berez, ez dela jendea erakarriko. "Arantzazuren eskaintza elikatu besterik ez du egingo aterpetxeak. Alegia, hemendik aurrera ere espiritualtasunak, naturak eta kulturak erakarriko dituzte bisitariak", dio.

Parketxearekin elkarlanean

Urtean zehar, Aizkorri-Aratz natur parkea hobeto ezagutarazi guran, hainbat ekintza antolatu ohi ditu Arantzazuko parketxeak; horiek baliagarri izan dakizkioke aterpetxeari. Hala ere, epe laburrean, behintzat, ez dute bien zerbitzuak batuko dituen pack-ik aterako.

Parketxeak, berriz, badu zer aprobetxatu aterpetxearen irekieraz: astelehenean aurrera, egun bakarreko bisita bakanak ez ezik, hainbat egunetako bisita sorta eskaintzeko aukera izango du. Horretaz jakitun, aterpetxearekin elkarlana sendotzen segitzeko nahia adierazi du parketxearen arduradun Amaia Vicentek. "Aterpetxeari esker, ikasle taldeek hainbat egun igaro ahal izango dituzte Arantzazun. Hori positiboa da guretzat, beraientzat propio diseinaturiko bisita sorta eskaintzeko aukera baitakarkigu. Parketxea indartuko du horrek", azaldu du.

Gaur-gaurkoz, aterpetxearen eta parketxearen arduradunak hasiak dira beraien arteko elkarlana indartzen. Esaterako, egitarau bateratua prestatu dute Aste Santurako. Apirilaren 15etik 21era, lau hitzordu eskainiko dituzte: gaztagintzaren sekretuak ezagutzeko bisita, *Lurrari kasu eginez. Ezagutu, maitatu, zaindu* ekintza, hegaztien inguruko solasaldia eta Kalakan taldearen kontzertu akustikoa.

Korrikarekin bat egiteko gogoz daude herritarrak

Udalak hartuko du Oñatiko lehen lekukoa Udanako gainean bihar, 11:30ean, eta, Elorregiraino, herriko talde, kuadrilla eta eragile ezberdinek eramango dute. Herri bazkarirako txartelak agortuta daude eta txikienek gaur egingo dute euren Korrika

Oihana Elortza OÑATI

Oñatin jende askok parte hartuko duela iragarri zuen duela bizpahiru aste Josu Zubiak, Oñatiko Korrika batzordeko koordinatzaileak. Giro berezia sumatzen zuen berak Korrikaren bueltan eta ia ziur zegoen herritar gehienak Korrikarekin bat egiteko gogotsu daudela. "Ordua eta eguna, gainera, aproposenak dira. Eta eguraldi ona dago iragarrita; beraz, ez dago aitzakiarik. Bihar, denok Korrikara", berretsi du Zubiak.

Pozik dago Zubia Oñatik Korrikari egindako ekarpenaz: "Batzordean egindako bilerak ondo joan dira. Kilometro asko

eskuratu dituzte oñatiarrek, batzuk bikoiztu ere egin dira. Gaztetxean egingo den bazkarirako txartelak astebete lehenago bukatu dira...".

Kilometro kilometro

Bihar, zapatua, 11:00etan Korrika girotzen arituko dira Santa Marinaran Oinaztu eta Irazan taldeko kideak. 11:30ean sartuko da euskararen aldeko ekimena eta Oñatira eta Udalak hartuko du herriko lehen lekukoa. Ondoren: EAJk, Joxely kuadrillak, Sortuk, LABek, Ernaik, musika eskolak, Makalena elkarteak, Txandak,

Oñatzek, Txantxiku ikastolak, Elkar Hezik, Urgainek, gaztetxeak, Lagun Lekuk, Txantxiku ikastolako langileek, Txintxurreta enpresak, Gipuzkoako Urek, Fagor Industrialek, Ulma Fundazioak eta Ulmako langileek.

Herri poteoa egingo dute gero, Foruen plazan hasita, 13:30ean, trikitilariekin, bertolariekin eta dantzariekin.

Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxeetako ikasleek gaur, 15:00etan, egingo dute Korrika Txikia erdigunean. Eta Haur Hezkuntzakoek, berriz, nork bere ikastetxean ospatuko du Korrika.

Zilarrezko Aste Santua izango da aurtengoa Turismo Bulegoan

Turismo Bulegoak 25 urte beteko ditu aurten eta Arrikruz kobek 10. Ospakizun egitarauak prest dituzte

O.E. OÑATI

Urteurren biak ospatzeko ekitaldiak Aste Santuan hasiko dituzte, eta maiatzean jarraitu. Bereziatoko bat Arrikruzeko lehoia lehendabizikoz ikusteko aukera eskaintzen duena izango da. Ekainean izango da hori, eta Donostiara irteera antolatuko dute; tailerrak ere egingo dituzte, indusketa lana nola egin zen azaltzeko. Aurrez eman beharko da izena eta herritarrek izango dute lehentasuna.

Turismo Bulegoak Aste Santuan egingo dituen bisita berezietan gain, datorren hilean gehiago egingo dituzte Txokolateixian eta Arrikruz kobetan, mendia kontuan izanik. Mankomunitateak antolatuko duen Puntaik Punta ekitaldiaren barruan izango da. Corpus jaiaren inguruko bisita ere egingo dute aurten.



Eguaztenez egin dute aurkezpena. A.V.

Webgunea

Turismo Sailaren webgunea eguneratu egin dute urteurrenaren bueltan. Bost hizkuntzatan irakurtzeko aukera dago eta blog bat txertatu dute, bisitariak informazioa jasotzeko. Helbidea honako hau da: www.oñatiturismo.eus.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.eus

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asejim.com

GARRILAN

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.eus
zenbaki@zenbaki.eus

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es



Zumeltzegi dorrean egin zuten aurkezpena. JOSU BILBAO

"Osasuntsu" beteko ditu 50 urte pilota sailak

Maiatzaren 29tik ekainaren 3ra ospatuko dute pilotaren astea. Kultur etxean erakusketa bat antolatuko dute eta ekainaren 3an pilota eguna ospatuko dute. 50. urteurreneko kamiseta bereziak atera dituzte

Oihana Elortza OÑATI

Aloña Mendiko pilota sailak 50 urte beteko ditu aurten, eta, hori dela eta, ekitaldiz betetako urtea prestatu dute Oñatin. Josu Osa da pilota saileko koordinatzailea, eta azpimarratu du pilota Oñatin "oso osasuntsu" heldu dela. Urte askotan laguntzen ibilitako Julian Dorado eta pilotari profesional izandako Jose Ramon Azkoitia oñatiarra izan zituen ondoan Osak urrezko ezteiak nola ospatuko dituzten azaltzerakoan. Baita egungo pilotari gazteak ere.

Aste osoa

Urteurrena ospatzeko ekitaldiak joan den hilabetean hasi zituzten, Abel Barriolaren agurreko partiduetako bat Zubikoara eranda. Baina abendura bitartean beste ekitaldi batzuk ere egingo dituzte; pilotaren astea, esaterako. "Maiatzaren 29tik ekainaren 3ra bitartean pilota astea egingo dugu Oñatin eta aste horretan egongo den era-

kusketa aipatuko nuke, bereziki. *Euskal pilota herriz herri* izena izango du erakusketa horrek. Kultura etxean zabalduko dugu eta argazki eta irudi asko ikusi ahal izango dira", aurreratu du Josu Osak. Aste horretan bertan, pilotaren prestakuntzaren inguruko hitzaldia egongo da eta ekainaren 3an Pilota Eguna ospatuko da Oñatin. Horretan, tako tailerra, Iparraldeko pilota joko ezberdinen erakustaldia eta nesken partidak antolatuko dituzte.

Bigarren ekitaldi nagusiak ikus-entzunezko formatua izango du. "Gure asmoa da 50 urte hauen historia bideo baten jasotzea. Sailak 25 urte egin zituenean liburu bat atera genuen

AZAROAN ERAKUTSIKO DUTEN DOKUMENTALEAN JASOKO DUTE ORAIN ARTEKO HISTORIA

eta orain pentsatu dugu euskarri digitalean egitea dokumentala. Kepa Aranburu ari da lan hori egiten", zehaztu du Osak. Dokumental hori azaroan egingo duten herri bazkarian erakutsiko dute. Bazkari horretan pilotariak, entrenatzaileak eta pilota saileko ordezkariak egongo dira, egungoak zein aurreko urteetakoak.

Laguntzen jarraitzeko konpromisoa

Aloña Mendiko zein Udaleko ordezkariak ere zoriondu egin gura izan dute pilota saila urteurrenagatik, baita bere egoera onagatik ere. Anton Inzak, esaterako, pilota sailean lanean dabilzan eta ibili diren lana goraiatu gura izan ditu, "une kaskarrak eta onak" izan dituelako, eta azpimarratu du pilota saila "osasuntsu, urtemuga oso garrantzitsu batera heldu" dela. Borja Moiuak, Kirol zinegotziak, bestalde, Udaletik pilota laguntzen jarraitzeko konpromisoa berretsi du.

Egindako zirkulazio aldaketen aurka dago EAJ

Neurriak herritarrei galdetu gabe "inposatu" izana leporatu dio Udal Gobernuari

O.E. OÑATI

TAO gunean aparkatzeko dagoen ordubeteko mugak, erdigunean ezarritako piboteek eta Sietevientos bidegurutzearen itxierak zirkulazio arazoak sortu dituztela azaldu zuen EAJko udal taldeak joan den astean egindako osoko bilkuran. Hartutako neurri horiek parte-hartze prozesu barik hartu direla aipatu zuten jeltzaleak, "erdigunean bizi diren herritarrei zein dendariei" galdetu barik, eta hori guztia berresten duen prentsa oharra bidali dute. Sietevientos bidegurutzea itxita egonda, herriko beste gune batzuetan arazoak ekarri dituela gaineratu zuten jeltzaleek, eta, "autoaren erabilera masiboaren aurka eta oinezkoen alde egonda", irtenbide berriak topatzeko prest daudela gaineratu zuten osoko bilkuran.

Udal Gobernuaren iritziz, orain lehen baino errazagoa da ibilgailua kalean aparkatzea. Bestalde, bidegurutze horren itxiera "behin-behineko neurria da, hiru hilabetez proban egongo dena", eta gero aztertuko dute berriz egoera. Parte-hartzeari buruz, alkateak esan zuen mugikortasun plana bera landu zela parte-hartze prozesu bidez.

Irabazi egin behar dute bihar, mailari eutsi ahal izateko

Eskubaloian, emakumezkoen Euskadiko senior mailako neskek bai edo bai irabazi behar dute bihar Bilboko Etxebarri auzoan, mailari eutsi ahal izateko. Kukullagaren kontra jokatuko dute. Denboraldiko azken partidua da eta bi taldeei kome-ni zaie irabaztea, orain arteko maila berean jarraitzeko. Partidu erabakigarria izango da.



NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA

Ilusionistak

Korrika datorrela eta debagoien-darrok antxintxika hasiko dugu asteburua. Aurtengo abesti optimistak Zirkorrikako *trapezistak*, *malabaristak* eta *funanbulistak* aurkezten dizkigu, eta denok euskararen ilusionistak garela dio. Abestien hitzek dutena zera da, bakoitzak berera ekartzen duela letren esanahia.

Bizirauten espezialistak aipatzen dituztenean nire burura datoz elbarritasun edo urritasun bat dutelako egunerokoan esfortzu berezi bat egin behar dutenak. *Ekilibristak* dirudite batzuek, gurpil aulkiarekin dena batean sartu nahian, *akrobatak* beste batzuek, bankura edo notarioarenera hurbiltzeko orduan.

Bizirauten espezialistak soseguz mugitzen dira, oztopoak gaintuz, behar duten denbora hartuz. Hankekin antxintxikarik egin ezin duten, baina bihotzarekin korrika eta hegan egiteko gai diren *ilusionistak* dirrelako.


Mundu bat amaitzen da abestia, *denok bat* egiten duguna, batzuk besteen azalean jartzen garen lekua, eta zailtasunak dituztenei korrika egiteko bideak zabaltzen diegun mundua.

EKILIBRISTAK DIRUDITE BATZUEK, GURPIL AULKIAREKIN DENDARA SARTU NAHIAN

Araotzeko Saloian lehiatuko da etzi Txinparta 1 taldea

Gipuzkoako herriarteko bertsolari txapelketako bigarren itzulian, Karidadeko Benta taldearen aurka lehiatuko da Oñatiko Txinparta 1 taldea. Urko Egaña, Andoni Goitia eta Joseba Lasagabaster bertsolariak lehiatuko dira, Iñaki Olalde, Mirari Sagarzazu eta Julen Irindo ondoan dituztela. Bazkarirako txartelak Txokolateixian daude salgai.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otolara lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA
Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55

Bergararren babesak izango du bi frontoitan

PILOTA Rezustaren eta Iribarriaren finalerako Bergarako ehun pilotazalerendako sarrerak eskatu ditu Mikel Gallastegik; herritik bi autobus joango dira Bilbora. Bergarako frontoian ere babes osoa izango dute; dagoeneko agortu dira sarrerak

Xabier Urzelai BERGARA

Bilbokoa eta Bergarakoa, bi frontoia beteko dira domekan Eskuz Binakako Txapelketako finala ikusteko. Bilbokora sartzeko ondo urratu behar dira poltsikoak; kontrara, partidua Muni- zipalean egongo den pantailan jarraitzeko ez da dirurik ordaindu behar. Hori bai, azkar ibili ez direnek jai dute, dagoeneko agortu dira-eta sarrera guztiak.

Ikusmina dago herrian

Normala den moduan, bigarren urtez herriko pilotari bat Eskuz Binakako Txapelketako finalean ikusteak ikusmina piztu du: "Iaz penaz amaitu zuen Beñatek -finala bertan behera utzi behar



Rezusta Bergaran. I.SORIANO

izan zuten Irujok atzamarrean min hartu ostean-, entzun nion esaten akaso ez zuela halako beste partidu bat jokatzeko aukerarik izango. Baina begira, urtebete geroago, osterera iritsi da finalera", adierazi dio GOIENARI Reyes Azkoitiak.

Gozatu baino gehiago, sufritu egingo du Azkoitiak, baina ez berak bakarrik: "Ea gozatzeko kapaz garen, finalaren nondik norakoek esango dute hori", dio Aspeko teknikari Jokin Etxanizek: "Txapelketan maila oso ona eman dute, baina finalean, partidu bakarrera, faborito izateak ez du askorako balio. Asko poz- tuko nintzateke Beñatek txapela herrira ekarriko balu".

Antzuolak deialdia egin die zaleei bihar taldea babesteko

FUTBOLA Igoera fasean hirugarren dagoen Zarautzen bisita izango dute Estalan; lider jarraitzen du Antzuolak

X.U. ANTZUOLA

Asteburuan senior mailako talde nagusiek etxetik kanpora jokatu dute, Antzuolak izan ezik. Eta gainera, ez da inol- nahiko partidua izango, igoera fasea amaitzeko bost jardunaldi geratzen zaizkielako, lehenengo biak igoko direlako, eta hirugarren dagoen Zarautzen bisita izango dutelako. Hori horrela, zaleen babesak eskatu dute Antzuola futbol taldeko ordezkariak Zarautzen kontrako partidura begira (Estala, 16:30).



Ikasberriren kontra, iaz. GOIENA

Mondra, UDA eta Aloña kanpoan

Lider dagoen Anaitasunaren zelaia egingo du bidaia UDAk, eta Mondrak Aloña Mendiren kontrario zuzena den Hondarri- biaren zelaian jokatu du. Aloña Mendik, azkenik, nahiz eta etxe- tik kanpora jokatu, postu bat atzerago dagoen Ostadarririra

bazi egin beharko dio, bestela zaildu egingo zaio, gehiago, etor- kizuna. Erregional preferentean Bergarak eta Urolak ez dute amore ematen, bi garaipeneko aldearekin jarraitzen dute maho- neroek; bihar, laugarren dagoen Zestoaren zelaian jokatu dute.



REYES AZKOITIA PILOTA ELKARTEKO ORDEZKARIA

"Txapelketa ona egin du, eta aurretik ondo jokatzeko ematen duen konfiantzarekin dago; laurek euren mailan jokatzeko badute, hauek gehiago dira".



JOKIN ETXANIZ ASPEKO KIROL ZUZENDARIA

"Finalera iristen direnak zerbaitengatik iristen dira; ez dute faboritismoek balio. Baina euren maila ematen badute, aukera handiak izango dituzte".



MIKEL GALLASTEGI BEÑAT REZUSTAREN KUADRILLAKOIA

"Domekan Bilbon izango gara, sarrerak antolatzen ibili gara eta 101 sarrera eskatu ditugu; lkerren lagunekin batera bi autobus beteko ditugu".



IDOIA AGIRREZABAL PILOTARIA

"Orain artean oso maila ona eman dute Rezustak eta Iribarriak. Eta gauzak behar den moduan egiten badituzte, herrira ekarriko dute txapela".



GONZALO ARRONDO BERGARAKO PILOTAZALEA

"Ligaxkan bikote horren kontra galdu egin dute, egia da hori, eta Bengoetxea arriskutsua da. Baina euren maila ematen badute, irabazi egingo dute".



JONE SANTOS BERGARAKO PILOTAZALEA

"Beñaten jarraitzaileak gara, txapelketa osoan jarraitu dugu, eta, domekan lan egin behar badut ere, telebistaz ikusiko dut partidua".

ZIKLISMOA Elgetatik eta Bergararik pasako da Itzuliko erlojupekoa

Zapatua izango da Itzulia gurean gehien gozatzeko eguna. Azken etapa izango da, eta Eibarren hasi eta amaituko den erlojupe- koan erabaki dezakete nor izan- go den ziklista indartsuena. Hasierako kilometroetan ziklis- tek Eibartik Elgetara igo behar- ko dute. Handik Bergarara jai- tsi eta Eibarrerantz joango dira.



Otero, helmugan. GOIENA

PILOTA Apirilaren 15ean hasiko dute Bergara Hiria torneoa

Apirilaren 15etik ekainaren 5era bitartean jokatu dute Berga- ra Hiria pilota txapelketa, eta Bergarako antolatzaileek amateur mailako zortzi bikote indartsu osatu dituzte. Apirilaren 25ean Alberdi eta Aizpuru bikoteak Etxeberriaren eta Ibarlozaren kontra jokatu duen partidua- rekin hasiko dute torneoa (19:30).

ZIKLISMOA Julen Otero oñatiarra nagusitu da Uzarragako maldetan

Ulma taldeko txirrindulari gaz- teak estu irabazi zuen zapatuan Uzarraga gainean, beste bi zi- klista esprint lehiatuan gandi- tuta. Hala, bigarren urtez jarraian Aloña Mendi ziklismo saileko ziklista batek irabazi du Antzu- lan, iaz Xabier Murgiondok jaso zituen-eta besoak. Saikapeneko lehen antzuolarra, bestalde, Iñi- go Aranburu izan zen.

Udaberriarekin, badator klasikoaren Musikaldia

Abesbatzen emanaldiak, kontzertu instrumentalak eta bestelako egitasmoak batzen dituen musika zikloa antolatu du Arrasateko Udalak; apirilaren azkeneko asteburuan eta maiatzeko lehenengoan egingo dute, parrokian, Amaia antzokian eta Kulturaten

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Musika klasikoari eta horren inguruan kokatzen diren egitasmoen leku berezia egiteko helburuarekin sortu zuen orain dela hamahiru urte Arrasateko Udalak Udaberriko Musikaldia. "Urtean zehar antolatzen ditugun ekitaldi puntualak gainera, beharrezkoa ikusten dugu estilo horrek toki berezia izatea gure eskaintzan. Azken urteetan, bereziki, gorakada nabarmendu dugu publikoari dagokionez", azaldu du Karmelo Alberdik, Kultura Saileko teknikariak.

Aurtengoa aurreko urteetako bideari eutsiz osatu dutela gaineratu du Alberdik: "Ez dugu estilo edo garai zehatz batera mugatu: abesbatzak daude, gitarra eta saxofoi laukoteak eta bestelako ikuskizun berritzaileagoak ere bai".

Ettxekoendako tokia gordeta Herriko musikarien plaza izatea ere badu helburu Udaberriko



Goikobalu abesbatza, Arrasate Musikaleko Orkestrarekin, 2015eko Musikaldian. I. S.

Musikaldiak; hala, bada, dagoneko klasiko bihurtu den Goikobalu Abesbatzaren eta Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua izango da oraingoan ere. "Asmoa ez da programazio osoa etxekoekin

osatzea, baina bai aukera bat ematea. Arrasate Musikalenzako, esaterako, mesedegarri dira horrelako ekitaldiak, eskolan ikasitako herritarren aurrean erakusteko", dio Alberdik. Edorta Aiastui Arrasate Musikaleko

Komunikazio arduradunak gaineratu du erreperitorioak bi zati izango dituela: "Hasteko, Orkestrak garai bateko Itoiz taldearen kantu ezagunen zatiekin osatutako bilduma joko du; eta bigarren zatian, berriz, Goikobalukoekin batera, Juan Arzamendiren *Oihuska* eta Jesus Guridiren *Eusko irudiak* eskainiko ditugu".

Arrasateko ordezkartza, baina, harago joango da; izan ere, Alberto Urretxo eskarmentu handiko tronboi-jolea ere gonbidatu dutela gaineratu du Alberdik: "*Soinu magikoak* izeneko ikuskizuna egingo du Toti Martinez de Lezea idazlearekin batera. Proiektu berezia eta aproposa iruditu zitzaigun ekitaldi solte moduan programatu beharrean ziklo honetan sartzeko. Musikaren eta kondaira mito-

logikoen arteko nahasketa bitxia da ekarriko dutena; bien artean egindako egitasmoa da".

Laukoteak ere bai

Musika instrumentalaz gozatze hainbat aukera ere izango dira: "Alos Quartetek, Oreka TX taldea lagun duela, *Garden* diskoa aurkeztuko du; Anido, berriz, gitarra laukotea da, eta Iberian Quartet lau saxofoi-jolek osatzen dute. Eta zikloa borobiltzeko, Musica Boscareccia abesbatzaren erreperitorio sakroa".

Amaia antzokikoak ordainduta

Edukiera zaintzeko asmoarekin, Amaia antzokiko ekitaldiek ordaindutako sarrera izango dute. Bost eurotan eskura daitezke *Arrasate.eus* atarian eta antzokiko leihatilan.

Egitaraua

- **Anido gitarra laukotea** Apirilaren 28an, 20:00etan, San Juan Bataiatzailearen parrokian.
- **Alberto Urretxo eta Toti Martinez de Lezea *Soinu magikoak*** izeneko ikuskizuna. Apirilaren 29an, 20:00etan, Amaia Udal Antzokian.
- **Alos Quartet (Oreka TX taldearen laguntzarekin)** Apirilaren 30ean, 20:00etan, Kulturateko areto nagusian.
- **Iberian Quartet** Maiatzaren 5ean, 20:00etan, Kulturateko areto nagusian.
- **Arrasate Musikaleko Orkestra eta Goikobalu Abesbatza** Maiatzaren 6an, 20:00etan, Amaia Udal Antzokian.
- **Musica Boscareccia** Maiatzaren 7an, 20:00etan, San Juan Bataiatzailearen parrokian.

"Eskerrik asko parte hartu eta lagundu diguzuen guztioi!"

IBAN DEL CAMPO HUHEZINEMA-KO ANTOLATZAILEA Hamargarrena bukatuta, hurrengoan pentsatzen hasita

A. ARANBURUZABALA ARETXABALETAK Ordainketak, laburpen-bideoa eta azken orduko bestelako lanak borobilduta, astean itxi dute aurtengo jaialdiaren parentesia. **Antolatzaileak pozik jaialdiarekin?** Intentsua izan da; emaitza ikusita, oso pozik gaude. Ikasleek antolatzen dute eta erantzukizun handia dute, eta aurtzen, hamargarrena izanik, anbizio handia izan dugu egitarau zabalagoa eskainita. Zinema aretoa eguneroko bete dugu eta ikasleek asko ikasi dute, hortaz, pozik!
Eta zer diote parte-hartzaileek?

Irabazleak, nola ez, oso pozik, baina, era berean, parte-hartzaile askoren mezuak heldu zaizkigu jasotako tratua eta jaialdiaren kalitatea goraipatuz. Ikusleen eta babesle batzuen feedback ona ere jaso dugu. **Epaiekin bat datoz lehiakideak?** Orokorrean, bai, ez da zalapartarik izan, sarien kontua oso subjektiboa izaten dela kontuan hartuta. Ikasleen sailean izan da gustuko izan ez duenik, baina hori da jaialdiaren saltsa!
Sariak gainbegirata, zer diozu Sail Ofizialeko onenei buruz?



Del Campo, azken sari-banaketan. J. B.

Goiena saria *Beti Bezperako koplak* animaziozko lanari eman genion. Tradizioaren berrikusketa eguneratu batetik abiatuta, genero indarkeriari buruzko ikuspegi anitza teknika plastiko ezberdin eta indartsuen bitartez

jorratzea goraipatu zuten. Vertigo saria *El Divino* lanak eskuratu zuen; Algortako pertsonaia bitxi bati buruz mimoz egindako dokumentala da. Eguneroko baten itxura duen *Karta Astrala* izan zen, berriz, ikusleen ustet onena.

Azkeneko hori, besteak beste, Maitte Bidartek egin du; hain justu, Basque Culinary saria jaso duenak. *Krispetak* lanagatik jaso zuen; besteak beste, lengoaiarekin jolasteko abilezia goraipatu zuten. Ikusleen saria Wabi-Sabi lanak jaso zuen. Horiez gainera, MU ikasleen sailean eta *Trapu Zaharrak* dokumentalik onena.

Hamaikagarrena bidean, ezta? Ikasketa plana aldatu egin da eta egokitzapenak egin behar dira, baina esango nuke hamaiagarrena izango dela, bai!

Kalakan musika taldearen kontzertua Gandiaga Topagunean

Arantzazuko Parketxeak eta Arantzazuko Aterpetxeak bisita gidatuak eta Kalakan taldearen kontzertu akustikoa antolatu dituzte apirilaren 15etik 21era.

Gomiztegin gaztagintzaren sekretuak ezagutuko dituzte, Pello Zabalaarekin Arantzazuko Parketxeko inguruetan zehar bisita gidatua egingo dute eta Mikel Olanorekin hegaztien behaketa izango dute. Apirilaren 21ean, 19:00etan, berriz, aurrez aipatutako jardueretan parte hartuko dutenendako Kalakan talde ezagunaren emanaldia izango da. Informazio gehiago eskuratzeko eta erreserbak egiteko: 943 78 28 94 eta *arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net*.

Bi emakume idazle 'Kulturizketak' saioan

Oraingoan, bi idazle izango dira 'Kulturizketa' saioaren protagonista nagusiak. Solasaldian, Kattalin Miner eta Karmele Jaio ordu erdiz mintzatu ziren idazleen munduaren arduren eta euren bizipenen gainean

Ane Vitoria ARRASATE

Oraingo honetan, Kattalin Miner eta Karmele Jaio idazleak elkartu dira *Kulturizketa* saioan. Solasaldian, bi idazle hauen literatura munduaren gaineko hausnarketa sakona ikusteko aukera izango da. Batak bestea- ren ibilbidea jarraitzen duela erakutsi zuten solasaldi hasieratik, baita elkar estimatzen dutela ere.

Pertsonaien garrantzia

Topikoa dirudien arren, idazleek liburuaren idazkeran aurrera egin ahala, pertsonaien indarra nabarmentzen dela aipatu zuten elkarriketan. Batzuetan pertsonaiek bizia hartu eta istorioan agintzen dutela dio Minerrek: "Askotan, pertsonaiarengan distantzia uzten dut nire gauzak hartu ez ditzan. Are gehiago, elkarriketak izaten ditut horiekin. Galdetzen diet: nora joko dugu orain istorioan zehar?". Sentsazio horrekin behin baino gehiagotan identifikatu dela esan zuen Karmele Jaio: "Hasi- eran, izugarriko askatasuna duzu, baina, gutxika, istorioaren nondik norakoak direla eta, bidea murrizten doa. Eta, gehien- bat, jartzen dizkiozu ezaugarri- riengatik izaten da". Honez gain, beraien borroka pertsona- lez ere mintzatu ziren. Jaioren- tzat, bere hitzetan jarri nahi izan ez duena azaltzea da, gaiz- ki ulertuak egon daitezkeelako. Berak adierazi nahi duena, agian, ez delako argi geratzen. Mine- rren erronka, aldiz, bukaera egokia topatzea da: "Ipuinak idazteko gai zaretenok inbidia ematen didazue. Irakaspena edo mezu bat izan behar dutenak... kosta egiten zait; baita lotura duen amaiera topatzea ere".

Kolektibitatearen presentzia

Sare gehiagoren sorkuntzak faltan igarri izan dituela onartu du Kattalin Minerrek. Liburuak



Kattalin Miner eta Karmele Jaio, *Kulturizketak* saioko platoon. GOIENA

"ASKOTAN, PERTSONAIEI GALDETZEN DIET: NORA JOKO DUGU ORAIN ISTORIOAN?"

aurkeztu aurretik ideiak parte- katzeko ohitura gehiago egon beharko lukeela uste du. Aur- keztu berri duen liburuaren zirriborroak irakurri duen jen- dea inguruan izan duela onartu du, eta, zentzu horretan, lasaia- go sentitu da, baina idazleen arteko elkarlanaren sustatzaile sutua da: "Izan daiteke orain arte izandako ibilbide kolekti- boagatik, baina sorkuntza mo- mentuan horretan gabiltzanok gure artean kezka partekatu behar ditugu. Batez ere, hasibe- rriak garen idazleen artean".

Emakume idazleak

Literaturan zein idazleen mun- duan emakumeen presentzia jarraitu zuten mintzaten. Atze- ra begira, mundu oso maskuli- noa izan dela aitortu du Jaio: "Batzuetan pentsatu dut nolako mundu maskulinoa den; zein

zaila den bestea izatea. Eta, or- duan, konturatzen zara beste hori, zu zarela". Hala ere, pauso handia eman dela uste dute, eta, egun, emakume idazle kopurua handitu egin dela argi dute.

Adi egotea, oinarritzkoa

Inguruari adi egotea funtsezkoa dela uste dute biek, eta luzaroan horren inguruan mintzatu ziren solasaldi honetan. Minerrek bere idatzizkoetan errealtatetik hartutako gauzak txikiak txer- tatzen dituela onartu zuen: "Ida- ztea lapurtzea da, baina ez duzu edozein gauza lapurtzen, baizik eta zurekin konektatzen duen zerbait". Honez gain, krisiak gauza txikietan gauzatzen dire- la esan zuen, baina, ondoren, duda existentzial potolo bilaka- tzen direla aitortu zuen. Ideia horrekin erabat ados azaldu zen Jaio: "Xehetasun bat aukeratzen baduzu, arrazoi bat duela uste du. Zure barnean dagoen zer- baitekin konektatu duelako izan daiteke". Horretaz guztiaz min- tzatu ziren bi euskaldun idazle hauek. Hain zuzen ere, horien arteko solasaldia ikusteko au- kera apirilaren 27an, eguna, 21:30ean.

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira martxoko irabazleak!

KORRIKAKO ARROPA-SORTA

Miren Urzelai Eizagirre (Oñati)
Lurdes Garzia Zapiain (Arrasate)
Juan Carrillo Montoya (Eskoriatza)
Iratxe Gonzalez Uribe (Aramaio)
Lierni Arregi Iturralde (Oñati)
Jon Ozaeta Elorza (Arrasate)
Jokin Iturriotz Gastesi (Arrasate)
Nerea Garai Kortabarria (Arrasate)
Mikel Orobengoa Kruzalaegi (Arrasate)
Aitor Aginagalde Garitano (Bergara)

(Korrikako arropa-sorta jasotzeko, zatoz GOIENAREN egoitzara, apirilaren 10etik 12ra.)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO BINA SARRERA

Emilio Bernal Alfayate (Bergara)
Amparo Irizar Beiztegi (Arrasate)
Ana Mari Aranburu Murgizu (Bergara)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Amaia Arana Beitia (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzteko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikruzteko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Orduetia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egi- teko) Harreman dendako otarrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. Saria jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** erakutsi edota **BAZKIDE ZENBAKIA** jakitera eman beharko da. GOIENA Otolara Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Orduetia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Spaloia kafe antzokiari esker

Lauroba musika taldearen kontzerturako sarrerak ditugu.
Spaloia kafe antzokian, Elgetan. | Apirilaren 22an, 22:00etan.

Spaloia kafe antzokiari esker

Mikel Urdangarinen kontzerturako sarrerak ditugu.
Spaloia kafe antzokian, Elgetan. | Apirilaren 28an, 22:00etan

Arrasateko Udalari esker

'Soinu Magikoak' musika emanaldia ikusteko sarrerak ditugu
Amaia antzokian, Arrasaten. | Apirilaren 29an, 20:00etan.

PARTE HARTZEKO: (APIRILAREN 10ERA ARTE)

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "KLUBA" "Lauroba/ Urdangarin/Soinu Magikoak" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketan honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.
Eskubidea izango duzue datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntu aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...

Apirilaren Tetik 30era eskaintza berezia:
10 euro.

Bazkidetu zaituzte!

Deitu: **943 25 05**

05. goienakluba.com

Bidali mezua

688 69 00 07

Eta bazkidetzen zareten lehen- dabiziko **100ak, 100 euroko** erosketa txartel baten zozketan sartuko zarete.


goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



URTEURRENA

Jose Ramon Iriarte Urrutia

2016ko apirilaren 13an hil zen, 76 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 9an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Zure oroimena eta irribarre bidelagun izango ditugu beti.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2017ko apirilaren 7an.

URTEURRENA

Rufino Laskurain Askasibar

2016ko apirilaren 6an hil zen, 86 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 9an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2017ko apirilaren 7an.


URTEURRENA



Donato Iburguren Unanue

Felisa Iturrinoren alarguna

2016ko apirilaren 28an hil zen, 95 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 9an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Zure izena beti goguan, Zaldumendikuon iragan eta geruan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2017ko apirilaren 7an.

URTEURRENA

Eusebia Garitano Eguren

2016ko apirilaren 4an hil zen, 90 urte zituela.




Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 9an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Zure irribarre hori beti edukiko dugu gogoan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2017ko apirilaren 7an.

URTEURRENA



Julian Uribesalgo Macazaga

Carmen Goikoetxearen alarguna

2016ko apirilaren 10ean hil zen, 91 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 9an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Beti izango zara gure bihotzean. Maite zaitugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2017ko apirilaren 7an.

URTEURRENA



Juan Mari Aspiazu Iza

(Iker gas SL)

2016ko apirilaren 15ean hil zen, 66 urte zituela.



Urteurreneko meza igandean izango da, apirilaren 9an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Beti egongo zara gure bihotzean. Maite zaitugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi eta urte honetan gure ondoan egon zareten guztioi, bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean. Bergaran, 2017ko apirilaren 7an.

OROIGARRIA



Martin Garai Iturbe


2017ko apirilaren 3an hil zen, 68 urte zituela.



Argia, langile nekaezina, bihotz onekoa, baina, batez ere, beti, edonori, laguntzeko prest zegoena. Ejenplu itzela izan zara danontzat. Ez zaitugu ahaztuko eta bihotzean eramango zaitugu. Eskerrik asko danagatik, senar, aita, aitaita.


Arrasaten, 2017ko apirilaren 7an.

ESKER ONA



Martin Garai Iturbe

2017ko apirilaren 3an hil zen, 68 urte zituela.



Eskerrik asko momentu gogor hauetan familiaren ondoan egon, hiletara etorri eta babesa eman diguzuen guztioi.

Bere arimaren aldeko meza domekan izango da, apirilaren 9an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Arrasaten, 2017ko apirilaren 7an.

URTEURRENA

Bixenta Irizar Aranguren

2016ko apirilaren 8an hil zen, 70 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 9an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren elizari.


Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Antzuolan, 2017ko apirilaren 7an.

ESKER ONA

Antonio Bikuña Igartua

'Txope'

2017ko martxoaren 23an hil zen, 74 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, apirilaren 8an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizari.


Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko apirilaren 7an.

ESKER ONA

Jose Manuel Perez Giraldez

2017ko apirilaren 1ean hil zen, 72 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, apirilaren 8an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizari.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko apirilaren 7an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Sagardotegira irteera**

Astigarragako Petritegi sagardotegira irteera egin zuten Bergarako Helduen Eskola Iraunkorreko ikasle eta irakasleek. "Trikitalari eta pandero-joleek afaria alaitu ziguten eta primerako giroa jarri zuten", diote.

2. Sote eta Luis

Arrasateko Luis Barberok eta Sote Lopezek urrezko ezteiak beteko dituzte apirilaren 8an. "Lan gogor eginda familia polit hau sortu duzue eta ospakizun politarekin eskertu nahi dizuegu, bikote. Bihotz-bihotzez, zorionak!".

3. Roberto eta Beatriz

Roberto Horrillo eta Beatriz Calvo arrasatearrak zapatuan ezkonduko dira. "Egun zoragarria izan dezazuela, familiaren, lagunaren eta, bereziki, Anerren partetik! Zorionak, bikote!".

Kontatu, kontatu!

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

#DIOTENEZ

BOOKTUBER

EAEko gaztetxoaren artean ikus-entzunezkoen bidez **irakurtzeko** zaletasuna sustatzeko helburuarekin, **mundu** mailan sekulako arrakasta izan duen BookTube **fenomenoa** baliatuz, **BookTuberBoom** egitasmoa sortu dute EAEko Liburutegi Zerbitzuak eta Galtzagorri Elkarteak. BookTuber plataforma sortu gura dute, eta, horretarako, **lehiaketa** bat antolatatu dute. 14 eta 18 urte bitarteko

gaztetxoei zuzendutakoa izango da. Maiatzean hiru **kedada** egingo dituzte; horietako bat, **Arrasaten**. Maiatzaren 5ean izango da.

ARRAIN ERRALDOIA

24 kiloko **lantesa** arraintzerra ikusi dute Bergarako arrandegi baten eguaztenean. Arrain ikusgarria benetan, **metro** inguru luzekoa, arrandegiko erakusleioan. Handia izan arren ere, arrandegiko arduradunek

adierazi dutenez, "lonjan zegoen txikiena" da Bergarara ekarri dutena.

BIKIAK

Go!azen telesailko aktore bikiak Arrasatera zetozela zabaldu zen herrian eta gaztetxo asko elkartu ziren Herriko Plazan paperak, boligrafoak eta kamerak zitzutela, **argazkiak** ateratzeko eta **sinadurak** eskatzeko. **Inder** handiko **txutxu-mutxua**.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Iraia Arregi Orueta
Apirilaren 21ean, 9 urte. Zorionak, potxola! 9 urte? Ondo pasatu zure eguna! Patxo pila, batez be, Aiantzeren eta Anerren partetik. Mua!



OÑATI
Uxuri Olalde Suarez
Apirilaren 21ean, 5 urte. Familia guztiaren maitasunez, zorionak, potxola!



ARRASATE
Daniel Azpiazu Barrena
Apirilaren 17an, 6 urte. Zorionak, Daniel! Patxo potolo-potolo bat lagunaren eta familixakuen partetik! Batez ere Izarrena.



ESKORRIATZA
Helene Mujika Udaondo
Apirilaren 9an, 2 urte. Zorionak, potxola! Amaren, aitaren, Jokinen, Iñakiren, Aitorren eta amamaren partetik.



BERGARA
Isolde Beristain Laskurain
Apirilaren 9an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Eta muxu handi bat familia guztiaren eta, bereziki, Iraideren partetik.



ARRASATE
Irene Iturbe Ceme
Apirilaren 9an, 5 urte. Mozu handi bat, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetzean eta patxo erraldoi bat, zure Arrasateko eta Ekuadorreko familien partetik.



BERGARA
Garazi Arana Mendizabal
Apirilaren 7an, 8 urte. Zorionak, Garazi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo handi bat danon partetik. Batez be Markelek eta Anek.



BERGARA
Tina Mendez
Apirilaren 7an, urtebetetzea. Zorionak seme-alaben, bilobaren eta senararen partetik!



ESKORRIATZA
Martin Berezibar Arevalo
Apirilaren 5ean, 12 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta jarraitu horrelakoa izaten. Familiaren eta lagun guztien partetik!



ANTZUOLA
Lantz Aizkorbe Jauregi
Apirilaren 5ean, urtebete. Zorionak, Lantz! Oso ondo pasatu zure lehen urtebetetzea! Patxo potolo-potolo bat Bidarten, aitaoren eta amatxoren partetik!



ARRASATE
Markel Errasti Canales
Apirilaren 4an, 2 urte. Zorionak, *terremotillo!* Ondo pasatu zure egunean. Mila patxo familiakoen partetik. Bereziki, Haizea, Aitor, June eta Alazne.



OÑATI
Olatz Zumalde Agirre
Apirilaren 4an, 3 urte. Zorionak, Olatz. Neskatila handia egin zara. Muxu potolo bat, etxeakoen partetik.



ARETXABALETA
Nahia de la Torre Muñoz
Apirilaren 3an, 8 urte. Zorionak, Nahia! Familia guztiaren eta, batez ere, aitaoren, amatxoren eta Anerren partetik. Muxu handi bat!



ARETXABALETA
Elene Iztueta Etxenausia
Apirilaren 18an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, neska handi! Ondo-ondo pasatu zure 5. urtebetetze eguna. Oporretan gainera! Patxo handi bana Atxabaltako familia danaren eta, bereziki, Araitzen, Doltzaren, Pauleren eta aita-zo-amaxoren partetik.



BERGARA
Julen Unamuno Marzan
Apirilaren 17an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! 8. urtebetetzean ondo-ondo pasatu, Ekaitzen eta etxekoan partetik. Muxu bat.



ARETXABALETA
Egoitz Ibahe Santamaria
Apirilaren 15ean, 7 urte. Zorionak, pitxin! Azkenian heldu da eguna. Ondo ospatu eta tori mila patxo, etxeko guztion partetik! Zorionak!



OÑATI
Maia Arregi Martin
Apirilaren 12an, urtebete. Zorionak, Maia! Apirilaren 12an, urtetxo bat! Muxu handi bat eta segi horren polit eta alai! Tia Miren, aita, tita, Xabi eta tia Txaro.



ARRASATE
Garazi Garitaonandia Uribe
Apirilaren 12an, 20 urte. Etxekoan partetik, zorionak!



BERGARA
Nora Larrea Gantxegi Uribe
Apirilaren 11n, 10 urte. Zorionak, Nora! Dagoeneko 10 urte! Primeran pasatu zure eguna. Muxu handi bat, familia guztiaren eta, bereziki, Anerren eta Unaxen partetik.



BERGARA
Ane Gartzia Perez
Apirilaren 11n, 10 urte. Zorionak, Ane, txapelduna! Belarritik 10 tirakada eta muxu handi bat. Familia osoa eta, bereziki, Ander, Erik, Elene, Nora, Jurgi eta Irati.



OÑATI
Izaro Bellido Gonzalez
Apirilaren 10ean, 5 urte. Zorionak, *guapetona!* Oso ondo pasatu eta ospatu zure eguna. Patxo handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Unairen partetik.



ESKORITATZA
Ane Gallego
Apirilaren 8an, 22 urte. Zorionak, Ane. Familia guztiak egun polita pasatzea espero dugu.



ANTZUOLA
Elene Kone
Apirilaren 8an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo, etxeko guztien partetik. Batez ere zure lehengusu eta lehengusina Ainara, Aitziber, Aitor eta Irati.



BERGARA
Naia Berraondo Mateos
Apirilaren 8an, 10 urte. Zorionak, *guapisima!* Oso egun polita pasatu. Muxu handia etxeko denon partetik, maitia!



OÑATI
Leire Maiztegi Lete
Apirilaren 8an, 6 urte. Zorionak, printzesa, eta ondo-ondo pasatu eguna. Tarta goxia preparatu danontzat. Patxo handi bat, Oñatiko eta Antzuolako familixen partetik.



BERGARA
Miren Irizar Arzamendi
Apirilaren 7an, 6 urte. Zorionak gure motxardatu hori! Egundua polita pasatu, familixaren eta lujuren partetik! Maitte zaitugu, pila-pila patata tortila!



OÑATI
Auritz Gorosabel Urrutia
Apirilaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, txapeldun! Patxo potolo bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
Maialen Betraña Murillo
Apirilaren 6an, 4 urte. Zorionak, Maialen. Edero ospatu zure eguna, aita Juanen partetik!



BERGARA
Marcela Murillo Garcia
Apirilaren 6an, urtebetetzea. Zorionak eta ondo ospatu zure eguna, familia osoaren eta, batez ere, aitaren partetik!



OÑATI
Xabier Kortabarria Otxoa-Aizpurua
Apirilaren 6an, 9 urte. Zorionak, Xabier! Ze handi egin zaren. Segi horrela, txapeldun! Muxu handi bat, familixa danaren partetik!



OÑATI
Kimetz Bellido eta Erlantz Alberdi
Apirilaren 5an eta 6an, 5 urte. Zorionak, bikote! Disfrutatu eguna eta opari asko jaso! Familia osoaren partetik. Ah! Eta Aierren partetik, noski.



DEBAGOIENA
Iraia eta Haiza
Apirilaren 5ean eta 7an, 33 eta 2 urte. Zorionak familiaren partetik! Muxu handi bat. Maitte zaituztegu! Ondo-ondo pasatu zuen eguna.



ARRASATE
Ibai Alberdi Segovia
Apirilaren 5ean, 8 urte. Aupa, futbolari! Ondo pasatu zure eguna, txapeldun, eta urte askotarako. Familiaren eta, batez ere, Naroaren partetik!



ARETXABALETA
Anje Herrasti Errarte
Apirilaren 4an, 4 urte. Zorionak, Anje! Patxo erraldoi bat, familia danaren partetik eta oso ondo pasatu zure egunien, *kokito!*



ARRASATE
Aratz Sanzberro Iria
Apirilaren 4an, 3 urte. Zorionak, pirata! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat etxekoan eta, bereziki, Ilargiren partetik.



ARRASATE
Oihana Ezkurra
Laugarren hilaren laugarren egunean jaio zinen bapatean eta beti bezala ospatuko duzu maite zatutenen artean. Bereziki, bi txikitxoaren partetik, muxu handi bat.



ARETXABALETA
Kaiet Galan Perez
Apirilaren 2an, 3 urte. Zorionak etxekoan partetik.



ARETXABALETA
Irati Betegi Jausoro
Apirilaren 2an, 8 urte. Zorionak, Irati! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Naia Unamuno Martinez
Apirilaren 1ean, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Patxo potolo bat denon partetik. Bereziki, Marenek.



ARETXABALETA
Oier Fernandez Valor
Apirilaren 1ean, 6 urte. Zorionak, txapelduna! 6 urte jada. Espero dugu oso-oso ondo pasatzea zure egunean. Muxu pila eta besarkada handia zuretzat. Etxekoak.



BERGARA
Aitana Aristei Iturralde
Martxoaren 31n, 10 urte. Zorionak, maitia! Gure printzesa neskato bihurtu da. Segi horren lirain! Biziki maite zaitugu. Aroa, Ender, amatxo eta aita-zo.



BERGARA
Naia Murgiondo Kortabarria
Martxoaren 30ean, 8 urte. Zorionak, Naia! 8 belarri-tirakada jada! Ondo pasatu zure eguna, etxeko guztion eta, batez ere, Alazneren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



GOIENA

DEBAGOIENA 20. Korrika bailara helduko da

Egubakoitzean gauean Bergaratik sartuko da lekukoa Debagoienera. Zumarraga eta Legazpi aldera egin ostean, Udantatik behera, Oñatitik Leintz Gatzagaraino egingo du. *Gaur, egubakoitza, eta, bihar, zapatua, herri gehienetan.*

ARRASATE Gaztegunea zabalik Gaztetxoendako. *Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.*

ARETXABALETA Zinema saioa Gaztetxoendako ekintza. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

ESKORIAITZA Karta jokoak Gaztetxoak trebatzeko ekintza. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

OÑATI Ganbara kantu eskolaren emanaldia Bigarren hiruileko kontzertua egingo dute. *Santa Anan, 19:30ean.*

ASTELEHENA 10

ARETXABALETA III. udaberriko Gaztekonkis 12-17 urteko nerabeendako askotariko ekintzak. Gaur, askotariko probak egingo dituzte Urkulun. *Herriko Plazan, 10:00etan.*

OÑATI Sormen tailerra Ludotekaren ekintza berezia Aste Santuko oporretarako. Eguraldi txarra egiten badu, merkatuaren plazan. *Foruen plazan, 16:30ean.*

ARETXABALETA Valleko kondea Valleko kondea, modernitatea eta tradizioa; garai aldaketa baten isla delako erakusketa ikusgai ipini dute apirilaren 29ra arte. XIX. eta XX.

mendeetako eguneroko bizitza ikusteko aukera. *Arkupen, 18:00etan.*

BERGARA Txorimalo lehiaketako Erramu Zapatuko lehiaketara aurkeztutako txorimaloak ikusgai. *Oxirondon.*

MARTITZENA 11

ARETXABALETA III. udaberriko Gaztekonkis 12-17 urteko nerabeendako askotariko ekintzak egingo dituzte. *Herriko Plazan, 10:00etan.*

OÑATI Bitxigintza tailerra Ludotekaren ekintza berezia Aste Santuko oporretarako. Eguraldi txarra bada, merkatuaren plazan. *Foruen plazan, 16:30ean.*

ARRASATE Eski alpinoa egiteko irteera Apirilaren 15etik 22ra egingo dute Besaideko lagunekin. Izena emateko egunak martitzena eta eguaztena, 18:30etik 19:30era, Besaideren bulegoan. *Izen-ematea aipatutako egunetan eta orduan.*

ARRASATE Artzaintzaren ibilbidearen 9. etapa Espejo-lruña Oka ibilaldia egingo dute. Izena emateko egunak martitzena eta eguaztena, 19:30etik 20:30era, Besaideren bulegoan. *Izen-ematea aipatutako egunetan eta orduan.*

EGUAZTENA 12

BERGARA Kafe Konpon Tresna txikiak konpontzeko tailerra. *San Joxepen, 16:00etan.*

OÑATI Imanekin eskulanak Ludotekaren ekintza berezia Aste Santuko oporretarako. *Foruen plazan, 16:30ean.*

BERGARA Osintxuko ludoteka Gailetak egingo dituzte. *Ludotekan, 17:00etan.*

BERGARA Oxirondoko ludoteka Gailetak egingo dituzte. *Ludotekan, 17:00etan.*

ARRASATE Guadarramako mendizerrara irteera Gaur bukatzen da epea. Besaideren bulegoan eman behar da izena, 19:30etik 20:30era. *Aipatutako lekuan eta orduan.*

BERGARA Zinekluba Patxo Telleriaren *Igelak* pelikula, *Euskal ekoizpenak* egitarauaren barruan. Sarrerak, hiru euro. *Zabalotegin, 20:00etan.*

EGUENA 13

OÑATI Bisita gidatuak Unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko bisita gidatuak, egunero, 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez izena ematea komeni da. *Turismo bulegoan.*

ZINEMA

ARRASATE
AMAI ANTZOKIA
Moonlight
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Igelen erresuma (euskaraz)
Domeka: 17:00.

BERGARA
ZABALOTEGI
Los hombres libres de Jones
Domeka: 19:30.
Vaiana
Domeka: 17:00.

OÑATI
KULTURA ETXEA
El bar
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

El regalo de Molly Monster
Zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

ARETXABALETA
ARKUPE
El guardian invisible
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.
Teresa eta gaitzagorri
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR
COLISEO
Life
Zapatua eta domeka: 17:00.
El viajante
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Mañana empieza todo
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA
Los pitufos
Zapatua eta domeka: 17:00.
Life
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ
FLORIDA
Los pitufos
Zapatutik martitzena: 12:00, 16:30, 18:15.
Life
Egubakoitzetik martitzena: 18:25, 20:15, 22:30.

El bar
Egubakoitzetik martitzena: 22:30.
El otro lado de la esperanza
Egubakoitzetik martitzena: 18:15, 20:30, 22:30.

La bella y la bestia
Egubakoitzetik martitzena: 18:15, 20:30, 22:30.
El reino de las ranas (euskaraz)
Egubakoitza: 16:30.
Zapatutik martitzena: 12:00, 16:30.

Power Rangers
Egubakoitzetik martitzena: 17:30, 20:00, 22:30.

Batman
Zapatutik martitzena: 12:00.
Es por tu bien
Egubakoitzetik martitzena: 16:30.

Los ultimos dias en La Habana
Egubakoitzetik martitzena: 20:35, 22:30.

Mañana empieza todo
Egubakoitzetik martitzena: 17:30, 20:00, 22:30.

Ghost in the shell
Egubakoitzetik martitzena: 17:30, 22:30.

Locas de alegria
Egubakoitzetik martitzena: 20:00.

BOULEVARD
Power Rangers
Zapatutik martitzena: 15:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.

Live
Zapatutik martitzena: 15:00, 17:30, 19:50, 22:00.
Egubakoitzetik martitzena: 17:30, 19:50, 22:00.

Los pitufos
Egubakoitza: 17:10, 19:20, 21:20.
Zapatua: 15:00, 17:10, 19:20, 21:20.
Domeka, astelehena eta martitzena: 15:00, 17:10, 19:20.

Los pitufos 3D
Egubakoitzetik martitzena: 16:00.

El bar
Zapatua eta domeka: 18:00, 20:10, 22:20.
Egubakoitza, astelehena eta martitzena: 15:50, 18:00, 20:30, 22:40.

Ghost in the shell
Egubakoitzetik martitzena: 15:45, 18:00, 19:35, 20:30, 22:40.

La bella y la bestia
Egubakoitzetik martitzena: 16:45, 18:30, 19:30, 21:15, 22:10.

La bella y la bestia 3D
Egubakoitzetik martitzena: 15:45.

Mañana empieza todo
Egubakoitza: 17:50, 20:15, 22:40.
Zapatua eta astelehena: 15:25, 17:50, 20:15, 22:40.
Domeka: 20:15, 22:40.

Es por tu bien
Egubakoitza: 17:30, 22:15.
Zapatutik martitzena: 15:30, 17:30, 22:15.

El guardian invisible
Egubakoitzetik martitzena: 19:40, 22:25.

Ballerina
Zapatua eta domeka: 16:00.

Kong: la isla de la calavera
Egubakoitzetik martitzena: 17:10.



'El reino de las ranas' pelikulako fotograma. SENSACINE



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

BatZuk eta Artisauek

Zutabe honetan zertaz idatzi pentsatzen jarri naizenean konturatu naiz argitaratuko den egunean iritsiko dela Korrika gurera.

Gasteizen parte hartzeko aukera izan nuen eta demasa izan zen. Asteazken zehar Hendaia eta Irun lotzen dituen zubian euskalgintza eta instituzioak elkarrekin ikusteak itzaropena ere piztu dit.

Gaur gauean iritsiko da Bergarara eta ilundutakoan Korrikaren furgonetaren zain egotean sentitzen den zirrara biziko dugu berriz. Ostirala izanda, asko izango gara; inoiz ez gehiegi. Itxura ezin hobea dakar ostiralak, ttipi-ttapa.

Eta hurrengo egunean Bergaran Erramu Zapatua ospatzen ari garela, Bakearen Artisauek –aitortuko dut ikaragarri gustatzen zaidala izena eta baita izana ere– antolatuta ETaren armagabetzearen inguruko ekimen soziala egingo da Baionan. Gizarte zibilak lideratu du armagabetzea eta horrek ere pizten du itzaropena. Gobernuek egin nahi ez dutena herritarrek egingo dute.

Honetan ere, gure etorkizunaren erantzukizuna gure gain hartzen, ttipi-ttapa.

Asteburu emankorra eta itzaropentsua.

BUKATZEKO



Laket Zumalde eta Gaizka Aiausti, Oñatiko brigadako langileak. AMAIA TXINTXURRETA

Kirriñeneko kantoiko iturria berreskuratu dute

Duela zazpi urte kendu zuten Oñatiko Kale Barriaren eta Atzeko kalearen artean dagoen Kirriñeneko kantoiko iturria; orain, Udalak hori berreskuratzea erabaki du eta brigadako langileek lehengo tokian jarri dute gaurtik aurrera erabilgarri dagoen iturria

Eneko Azurmendi OÑATI

XIX. mendean iturri sare bat egin zen Oñatin, zerbitzu publiko eskaintzen zuen iturri sarea. "Gutxi gorabehera, herriko iturri guztiak garai berekoak dira eta garai hartan iturri publikoak ziren; hau da, etxeetan ur sarrerik ez zegoen. Herritarrek pitxarra hartu eta gertuen zegoen iturrira jaisten ziren, ur bila",

azaldu du Oñatiko alkateak, Mikel Biainek. "Nik uste dut iturriek esangura handia izan dutela, batez ere, zerbitzu publiko bat den heinean, eta Oñatiko herriak badauka aberastasun hori, zentzu horretan. Hain zuzen, aipatutako iturri sare horretako zati txiki bat da berreskuratu dena", gaineratu du. Izan ere, XIX. mendean eginda-

ko iturri sare horren baitako iturri bat da gaurtik aurrera berriro erabilgarri egongo dena, Kirriñeneko kantoian dagoena, Udal Gobernuak berreskuratzea erabaki ostean.

Hala ere, jarri berri duten iturria ez da orain dela zazpi urte kendu zutena, baizik eta M. Aozaratzak kalean lehen zegoen iturria –Atxaga bizartegi alboan–

Iturri hori ere duela urte batzuk kendu egin zuten eta ordutik hona Goribar Goiti baserrian gordeta egon da. "Norbaitek, irizpide onez, iturri hura gordetzea erabaki zuen. Hori horrela, pentsatu genuen polita izango zela iturria berreskuratzea", azpimarratu du Biainek. Lehen zegoena ez izan arren, garrantzitsua iturria berreskuratzea dela azaldu du alkateak. "Ez da originala, baina aurretik egon diren beste hainbat ere ez dira originalak, garrantzitsua iturria berreskuratzea da", dio.

Horren harira, iturrien garrantzi historikoa nabarmendu du. "Inportantea da, ondare ikuspegitik begiratuta, herriko historiari keinu bat egitea. Memoria laburra daukagu eta ahaztu egiten gara, baina, orain dela ez askora arte, herriko etxeetan ez zegoen ur sarrerik, gure aiton-amonek ez zuten ur sarrerik etxean", zehaztu du.

Brigadaren lana

Herriko langileak aritu dira iturria jartzeko eta egokitzeko lanetan. Alkateak azpimarratu du Udalak zortea daukala, "brigada indartsu eta osasuntsua" daukalako halako lanak egiteko.

Andoni Beristain brigadako arduradunaren esanetan, astebete behar izan dute iturria jartzeko. Izan ere, astelehenean hasi zituzten lanak eta atzo, eguena, azken ukituak eman ostean, gaurtik aurrera erabilgarri egongo da. "Kale hau berriro egin da, oinezkoentzako kalea da orain, eta iturria ere badu. Garai egokian jarri dugu, udaberria eta uda datoz orain, eta herritar askok pozez hartu dute albistea".

KORRIKA DEBAGOIENEAN

GOIENA TELEBISTA - SAIO BEREZIA

APIRILAK 8, ZAPATUA, 22:00

APIRILAK 9, DOMEKA, 13:15 ETA 19:00

APIRILAK 11, MARTITZENA, 21:00

BABESLEA:

MGEP
MUNIZIPALDUN GOIENAKO ELIZOLA POLITIKORRIKALAK

goiena
ZU HEMEN ZAUDE

